

ezagutza
feminista
eta itzulpen
politikak II

conocimiento
feminista
y políticas
de traducción II

Edizioa/Edición
M^a José Belbel Bullejos
Arteleku 2014

ARTELEKU

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
Diputatu nagusia / Diputado General
Martin Garitano Larrañaga

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren Diputatua /
Diputada del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte
Ikerne Badiola Garciandia

Kulturako zuzendari nagusia / Directora General de Cultura
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi

Arteleku eta Ikus arteen zerbitziburua /
Jefa de Servicio de Arteleku-Artes Visuales
Esther Larrañaga Galdos

Artelekuko programa koordinatzailea / Coordinador de Programa de Arteleku
Xabier Gantzarain Etxaniz

Edizioa / Edición: M^a José Belbel Bullejos
Erderazko itzulpenak / Traducciones al castellano: M^a José Belbel Bullejos

Euskarazko itzulpenak / Traducciones al euskera: Tisa / Juan Mari Mendizabal

Diseinua / Diseño: Estibaliz Sádaba Murguía

ISBN: 978-84-7907-719-8

Depósito Legal / Lege Gordailua: SS 1033-2014

aurkibidea/ índice

POSIBILITATE ZENTZU BAT: <i>TOUCHING FEELING</i> . AFEKTUA, PEDAGOGIA, PERFORMATIBOTASUNA, EVE KOSOFSKY SEDGWICK M ^a José Belbel Bullejos	5
ATARIKOA Eve Kosofsky Sedgwick	13
IRAKURKETA PARANOIKOA ETA IRAKURKETA KONPONTZAILEA, EDO HAIN PARANOIKO ZAUDE, ZIUR ASKI USTE DUZU SAIAKERA HAU ZUTAZ DELA Eve Kosofsky Sedgwick	41
BUDISMOAREN PEDAGOGIA Eve Kosofsky Sedgwick	73
UN SENTIDO DE POSIBILIDAD: <i>TOUCHING FEELING</i> . AFECTO, PEDAGOGÍA, PERFORMATIVIDAD DE EVE KOSOFSKY SEDGWICK M ^a José Belbel Bullejos	107
NOTA SOBRE LA TRADUCCIÓN EN RELACIÓN AL GÉNERO GRAMATICAL M ^a José Belbel Bullejos	115
INTRODUCCIÓN DE <i>TOUCHING FEELING</i> Eve Kosofsky Sedgwick	117
LECTURA PARANOICA/ LECTURA REPARADORA, O, ERES TAN PARANOICO QUE PENSARÁS QUE ESTE TEXTO SE REFIERE A TI Eve Kosofsky Sedgwick	149
LA PEDAGOGÍA DEL BUDISMO Eve Kosofsky Sedgwick	187

POSIBILITATE ZENTZU BAT: *TOUCHING FEELING*.
AFEKTUA, PEDAGOGIA, PERFORMATIBOTASUNA,
EVE KOSOFKY SEDGWICK

María José Belbel Bullejos

Ezagutza feminista eta itzulpen politikak itzulpenaren inguruko lehenagoko beste lan batzuk jarraitzen dituen proiektu bat da, itzulpena, betiere, zentzu zehatz eta era berean zabal batez ulerturik. Bilduma hau 2013an abiatu zen Artelekurekin, eta asmoa du testu batzuk aditzera ematea, euskaraz eta gaztelaniaz. Testu horiek, izan ere, ekarpen garrantzitsua egin diete generoari buruzko azterlanei, azterlan feministei eta sexualitateari buruzko azterlanei, jakintza-politikei eta egiteko moduei buruzko gure kontzepzioaren handitze eta birformulatzeari bezalaxe. Ahalegin apal bat da, espainiar estatuan genero teoriaren inguruko ahultasun editoriala arintzeko eta erakusteko, testu garrantzitsu eta beharrezkoen itzulpen falta azaltzeko, eta itzulpen proiektuek mundu akademikoan eta ekintzailetzan erakusten duten ahultasuna agerian jartzeko. Mugimendu sozialen parte handi baten intelektualtasun kontrako jarrera aipatzeko ahalegina ere bada ezen, Azañak zioen moduan, “espainiarrok bakar-bakarrik dakigunaz hitz egingo bagenu izugarritzko isiltasuna sortuko litzateke, eta ikasteko aprobetxa genezake hori”. Teoria kritikoaren testu garrantzitsuak ezagutu behar ditugu, eta aditzera eman, murgildu egin behar dugu heteropatriarkatua eta heteronormatibitatea zalantzan jartzen dituen produkzio teorikoan, modu inklusibo eta transbertsalean, kuestionamendu horien formulazio batzuek, erabat kontziente izan gabe, sortu dituzten konbentzio eta erreifikazio teoriko askoren gaineko gaur egungo gogoeta baten bidez. Beharbada analisi autokritiko honek hobetu egingo du produkzio propioa, ezen neurri handi batean jasan egiten baitu ongi idatzi den hainbat gairen gaineko itzulpen eskasia. Hobeto itzuli eta hobeto aldatu ahal izatearren, zentzu hertsian itzultzeko borondate politiko batetik.

Kontua baita dagoeneko ia-ia hogeita bost urte igaro direla queer teoriaren fundazio testuak argitaratu zituztenetik, honakoak baititugu:

Epistemology of the Closet, Eve Kosofsky Sedgwickena, (1990), *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*, Judith Butlerrena, (1990), *Inside/Out: Lesbian Theory, Gay Theory*, Diana Fuss-ek editatua(1991) –honetan kolaboratzaile dira, Diana Fuss-ez beraz gain, Judith Butler, Carole-Ann Tyler, Ed Cohen, Lee Edelman, D.A. Miller, Patricia White, Judith Mayne, Richard Dyer, Wayne Koestenbaum, Michèle Aina Barale, Richard Meyer, Thomas Yingling, Jeff Nunokawa, Ellis Hanson, Catharine Saalfeld, Ray Navarro, Cindy Patton eta Simon Watney- eta *Fear of a Queer Planet. Queer Politics and Social Theory*, obra korala, Michael Warner-ek 1993an editatua eta Jonathan Goldberg, Andrew Parker, Eve K. Sedgwick, Diana Fuss, Janet E. Halley, Steven Seidman, Cindy Patton, Cathy Griggers, Lauren Berlant, Elizabeth Freeman, Henry Louis Gates Jr, Phillip Brian Harper, Robert Schwartzwald eta Douglas Crimp-en saiakerak jasotzen dituen bera. Lan horiek aipatzen ditut, bai duten garrantziagatik bai horietan inplikaturako pertsona kopuru handiaren erakusle direlako, eta ondo gogoan dut diren guztiak ez daudela jasota.

Queer teoria genero ikerketa akademikoen parte bihurtu da, genero eta sexualitatearen teoria gisa, eta diziplina arteko presentzia transbertsala du unibertsitateko departamentu askotan. Egiten duen obra gaztelaniara modu erregularrean itzultzen dioten teorialari queer bakarra Judith Butler da. Pozik egoteko arrazoia bada Butlerren obra gaztelaniaz eskuratu ahal izatea (haren lehen liburua itzultzeko hamaika urte igaro ziren (2001); Paidós-ek atera zuen, Mexikoko Unibertsitateko Genero Azterketen Programaren barnean), baina, hala ere, begi-bistakoa da berriro ere ikustarazi nahi digutela autore bakar batek ordezkia dezakeela mugimendu konplexu eta aniztasun handiko oso bat. Mugimendu oso bat, bere deriba eta bere bilakaera historiko guztiarekin. Eta, horrela, irakurleei ukatu egiten zaizkie pentsalari horiek sortzen diren testuinguruak eta horietako aberastasun, aniztasun eta historia. Itzulpen politika horiek horixe baitira: politikak. Gauzak egiteko moduak, ideologia eta praktika batzuetatik ezagutza zabaltzeko moduak, dirudienez errentagarritasun ekonomikoa ezagutzaren beraren gainetik dagoen moduak. Eta modu horiek gogoetara bultzatzen gaituzte, beste praktika batzuk garatzera.

QUEER MUGIMENDUAREN HISTORIAKO HISTORIA BATZUK. TOUCHING FEELING-EKO TRESNA EZ DUALISTA BATZUK

XX. mendeko azken hamabost urtean queer politikek izandako eklosio handiaren ondotik, Sedgwickekin bat etor gaitezke, esaten digularik ezen

dirudienez, politika gay eta lesbikoen estrategiaren hutsaltzeareneraginez, eta horrek hiesaren izurritearekiko harreman historiko eta egungoarekiko erakutsi urruntze erabatekoarengatik, baliteke jada igaro izana teoriak, ezagutza-arlo askotan, aktibismo sexualarekin oso harreman produktiboa izan zuen unea.

Sedgwickek adieraziak agian azalduko digu Judith Butlerren lanak zergatik zabaldu duen bere interes teorikoaren gai esparrua, duela hamabost urte baino lehenagotik eta bereziki 2001eko irailaren 11z geroztik; izan ere, gai esparrua zabalago egite horrekin batera pisu eta zentraltasun handiagoa bereganatu ditu gizarte mugimenduei eta nazioarteko politika eta gatazkei loturik Butlerrek garatutako interbentzio politikoak. Eve Kosofsky Sedgwickek agian horixe izango zuen arrazoi, halaber, laurogeita hamarrekiko urteen erdialdetik aurrera bere ahaleginen parte bat Afektuen Teoria garatzera bideratzeko -honetan Silvan Tomkins eta Melanie Klein-en obraren laguntza eta budismoaren irakaskizunak baliatu zituen, funtsezkoak baitira subjektibotasunaren eraikuntza ulertzeko eta mendealdeko modernitatearen autoritarismo zientifiko psikoanalitiko eskusibista problematizatzeke, eta hark berak parte hartu zuen eztabaida teorikoen inguruan egin zuen lanaren berrirakurtze kritiko baterako-; edota pedagogiari eta Estatu Batuetako historia intelektual, kultural eta artistikoari berari hain lotuta dagoen budismoa aztertzeke; olerki liburu bat argitaratzeko eta bere libururik autobiografikoena, *A Dialogue on Love* izenekoa, prestatzeko; eta collage, ikusizko olerki eta ehunezko instalazioak produzitzeko. Lan horiek ausart eta erradikalki politikotzat kalifika litezke, eta zorionez ez moralista, ez preskriptibo eta konplexutzat: horretatik, hain zuzen, sarrera honen izenburuan *posibilitate zentzu* bat aipatzea. Obra horrek, izan ere, ez du eredu edo modelo batzuen tokian bere eredu edo modeloa jarri nahi, baizik eta bultzatu modelo desberdinek (irakurketa

paranoikoak eta suspergarriak, psikoanalisiak eta psikologiak, esate baterako) modu ez hain autoritario eta baztertzailan elkarrekin hitz egin dezaten, esperientziaren testa pasatu beharko duten jarrera eta argudioak eman ditzaten, birformulatuak, kritikatuak, hobetuak edo alboratuak izan daitezten, duten erabilgarritasunaren arabera. Garrantzi politiko handiko eta politikarako garrantzi handiko lana, Afektuetatik eta hauen egituratik; Pedagogiatik, ezagutzarekin egin behar denari buruzko galderatik, eta performatiboaren produktibitatek: hizkuntzazkoak ezagutza-modu ez hitzekoen gainean zertzen duen tutoretzaren gaineko eztabaidetatik.

Ezagutza feminista eta itzulpen politikak lanaren bigarren liburukia Eve Kosofsky Sedgwick idazleari eskainita dago, bera hil eta bost urtera, egin zuen obrak queer teoriaren kontzeptualizazioari dagokionez izan zuen izaera fundatzaileagatik baita bereziki ezaguna. Pertsona gazteentzat, queer teoria iragan samarreko garai batean sortutako zerbait izango da agian, laurogeiko urteen erdialdekoa; feminismoan eta sexu liberazioan hezitako pertsona zaharragoentzat, ordea, queer teoria gauza berri samarra da, 60 eta 70eko urteetako belaunaldientzat indarrean zen teoriaren ondotikoa. Belaunaldi horiek, izan ere, eta normalean modu autonomo batez, marxismoan eta askatasun mugimendu antiinperialisten, emakumearen liberazioaren eta homosexualen liberazioaren teorien heziak ziren, eta psikoanalisi freudiarrarekiko interes txiki samar batez; arbuia egiten dute “post” aurrizkia, eta ez dituzte gehiegi bereizten postmodernitatearen forma batzuk eta azterketa post-estrukturalistak. Eta hori guztia identitate eztabaidak oso modu ikusgarrian sortu diren testuinguruari dagokio. Berriro martxan jartzen denean, esaterako, “liberazio” kontzeptua, are Foucault aipatuz horretarako, eta hegemonia/kontrahegemonia; kontsentsua/gatazka; boterea/kontraboterea, bestetasun nazionalaren defentsa erradikala... aipatzen direnean, galdera egin beharko genuke: zer ikasi dugu “sistema” eta “status quo” terminoen eta horien kontrako “antisistema”, “alternatibo”, “liberazio nazional” terminoen dekonstrukzio/problematizazio/kuestionatze/autokritikatik, kanpotasun batekiko sinestea baliatzen baitute, eta dirudienez galdua dugun kanpo eratzaila batean, hots, barne/kanpo, erdi/bazter, hondo/forma, azal/sakon ... batean kokatzen baikaituzte? Badirudi erabilera bitarra jorratzen dugula eta horrek, proiektu antiesentzialisten izenean,

errefikatu egiten dituela, gauza bihurtzen alegia, desplazatu nahi genituen esentziak; horixe iruditzen zait, behintzat, bio-emakume eta bio-gizon, edo saldo bezalako terminoak entzuten ditudanean, are transfemenino bezalako terminoak zirkulazioan jartzen direlarik nire adiskide transfeminista zintzoak zailtasun handietan murgilduta ikusten ditudanean niri azaldu nahirik hori guztia zer den, zehazki izan ez arren.

Horregatik, *Ezagutza feminista eta itzulpen politikak*-en bigarren liburuki honek euskarazko eta gaztelaniazko irakurleei aditzera eman nahi die *Touching Feeling. Affect, Pedagogy and Performativity* liburuko -2003an argitaratu zuten, eta egilea bizi zen arteko azken liburua da- testu aukera bat, hiru kapitulu zehazki. Sedgwickek, eskerronen atalean, adierazten du “*Touching Feeling* aurretiko obraren, argitaratu zein argitaratu gabearen palimpsesto bat” dela. “Beharrezko ikusi dudana berrikusi badut ere, idatzi ziren hurrenkerari jarraiki ageri dira saiakerak”, eta, geroago, honakoa diosku:

Saiakera hauetarako aukeratu dudan izenburuak, *Touching Feeling* baita, ehunduren eta emozioen artean intimitate partikular bat dagoela dirudielako nire intuizioa jasotzen du. Baina zentzu bikoitz bera, ukimenezkoa gehi emozionala, “ukitu” (touch) hitzean bertan aurkitzen dugu jada; eta, era berean, berezkoa du “sentimendu” (feel) hitzak ere.

Itzuli dugun lehen saiakera den *Touching Feeling*-en “Sarrera” atalean dauden performatibotasunari buruzko paragrafo batzuk Andrew Parker-ekin batera idatzitako *Performativity and Performance* lanekoak dira; liburu hori elkarrekin editatu zuten 1995ean. “*Paranoid Reading/Reparative Reading*” atalaren bertsio bat, *Touching Feeling*-en 4. kapitulua, jasota egon zen 1997an *Novel Gazing: Queer Readings in Fiction* izenburuaz editatu zuen liburuari Sedgwick egin zion sarrerari; eta “Budismoaren pedagogia”, *Touching Feeling*-en 5. kapitulua, *Critical Terms for the Study of Buddhism*-erako enkargu bat izan zen, azkenean 2005ean argitaratu zen liburu hori ari baitzen orduan prestatzen Donald S. Lopez Jr.

Baina *Touching Feeling* proiektu espezifiko bat ere bada, hamarkada batean zehar garatua, “pentsamendu eta pedagogia ez dualista baterako

erabilgarriak izan daitezkeen tresna eta teknika batzuk aztertzen” dituen bera. Jakin badakigu logika bitarretik irtetea errazagoa dela esaten, egiten baino, are “ez dualismoa inbokatzeara... tranpa dualista bihurtzeko”. Horretarako, Sedgwick lau testuren bidez sartzen da eztabaidan. Oso testu garrantzitsuak dira maila “politiko, intelektual eta irudimenezkoan”, eta pribilegiatu sentiarazi badute ere horietatik ikas dezakeelako, urteak igaro ahala halako frustrazio kognitibo-politiko bat eragin dioten elementuak ere badauzkate; testuak honakoak dira: *How to Do Things with Words*, J.L. Austin-ena, M. Foucault-en *Histoire de la sexualité* lanaren lehen liburukia, J. Butlerren *Gender Trouble* eta Silvan Tomkins-en *Affect Imagery Consciousness* lanaren lehenbiziko hiru liburukiak; Afektuen teorialari Silvan Tomkins-en obrari oso garrantzitsu deritza Sedgwicken, aurretik aipatuak baino askoz ezezagunagoa bada ere.

Saiakera itzulietan dialogoan sartu, eta obra horiek Sedgwicki eragin dizkieten frustrazio kognitiboak aztertzen dira. Adibide bat jartzearren, azken hogeitun urtean genero azterketetan eta kultur azterketetan gehien erabili eta aipatutako terminoetako bat hartuko dugu: performatibotasun kontzeptua, bai duen hizkuntza adiera austindarrean bai antzerkiko adieran, performance baita, eta horretan performatiboak bi adiera baititu: dramatikoak eta ez auto-erreferentziazkoak; eta termino horiek dekonstrukzioaren proiektu antiesentzialistetan eta generoaren teorian duten garrantzia ere aztertuko dugu, Butlerrek performatiboaren dekonstrukzio derridarraz egiten duten erabileran termino bi horiek sortzen dituzten arazoak erakustearren. Sedgwickentzat, arazo iturria da Derrida zein Butler “hautatu behar batetik abiatzea, hautatu behar horretan Austinen taxonomia sintaktikoek, aldi berean behin-behinekoak eta ludikoak baitziren, bakar-bakarrik izaera esentzializatzaile murriztu batez iraun baitezakete”, eta ez dago prest “errealitateko alderdi ez hitzezkoak hizkuntzazkoaren tutoretzapean” jartzeko, ezta “hitzezko forma ontologikoki pribilegiatzeko ere hitzezkoaren aurrean”. Eta harritu gaitzakeen, agian gogoetara bultzatuko gaituen proposamen bat planteatzen du, hori artikulatzea espero baikenuen, eta proposamena parez pare topatzen dugunean honela diogu: haxe zen behar zena, ibiltzeko moduko bidea dela ematen du: “antiesentzialismoa alde batean uztea eta pisu erlatibo txikiagoa

ematea egia esentzial baten inguruko eskaera epistemologikoei”, “hizkuntzaren alderdi berezien egitura eta efektuetan arreta jarri” ahal izatearren.

Sedgwicken *Touching Feeling*-eko sarrerako atal honek, amaitzeko, adierazten digu ezen “dekonstrukzioan bertan ere hitz egite ekintza performatiboei buruzko zerbait gehiago esan daitekeela, ontologikoki deskonektatuta daudela edo bere barnean ez erreferentziazkoak direla esatetik haratago”. Eta, Paul de Man-i jarraiki, esangurak eta honek duen erreferenteak “tortsioarekin, elkarrekiko perbertsioarekin –horrelaxe dei dakioke-eta erreferenteak errealtatearekin duen harremanari-” duen harreman ezinbestez “aberrantea” planteatzen du.

Sedgwicken zalantzan jartzen du “bizkor perfektzionatzen den edo iraultzailea den eta bakar-bakarrik suma daitekeen praktika autoritario batera” “behartzeko” keinu autoritarioa. Horrelako jarreraren adibideak egunero ikusten ditugu. Egilearen asmoa ez da “sakontzea” opresio edo esentzialismoak “argitara ateratzeko” itxura batean horrelakoak ez diren proiektuetan, horixe izan bada ere azken lau hamarkadetan zehar garatu den lan teorikorik garrantzitsuenaren ardatza. “Interes deleuzear bat” inbokatzeko du “planoen arteko harremanetan, eta ...*ren ondoan*-en kokapen ezin menderatuzko espazialak agian erresistentzia baliagarriren bat eskaini ahal izango digu, ...*tik haratago* eta ...*ren azpian*-ek bere deskripzio espaziala aldatzeko eta hurrenez hurren sorburu eta helburu narrazio inplizitu bihurtzeko duten erraztasunaren aurrean”; aldiz, ...*ren ondoan*-ek agnostizismo osasungarri bat ere eskaintzen digu pentsamendu dualista itxuratzen duten hainbat logika linealekiko, honakoak baitira: kontraesanik eza, ‘baztertutako tarteko zerrenden’ legea –gauza zeharo agerikoa Sedgwicken obran, eta kontsentsuarekin, sen onarekin eta batezbestekoarekin inolako zerikusirik gabea-, kausaren eta efektuaren arteko erlazioarena, subjektua eta objektuarena”; eta, era berean, ez du “berdintasunezko fantasia metonimiko” baten mendean zertan geratu.

Sedgwick ez da autore irakurterraza, filosofia irakurtzen oso ohituta dauden pertsonen salbuespenaz, baina zentzu pedagogiko sendo eta

kontzeptu argitasun nabari batez blaituta daude idazkiak. Sarritan, artikulua bakoitza liburu osoa iruditzen zaigu, are liburuki multzoa ere, asko eta asko ikasten dugulako eta berriro irakurtzen dugun bakoitzean atzera ikasten dugulako, ez baita batere konbentzionala, eta galderak egiteko gaitasuna erakusten baitu, baita berak egindako lanari berari buruz ere, etengabe. Erabiltzen dituen erreferentziak eta genealogiak teorialari kanonikoenetatik –Marx, Freud, Nietzsche- haratago iristen dira, esaterako pentsamendu budistara, hau zeharo lotuta baitago hark garatutako lan pedagogiko eta autopedagogikoarekin; edo literaturara eta, bereziki, bere bizitzako azken hamar urtean zehar garatutako Prousti buruzko mintegira; edo ikusizko arteetara; edo ehunarekin jorratu zuen praktikara, horretan gauzak hitzez ez egiteak bidea ematen baitzien, ikusizko olerkien bidez, hitzei berei. Sedgwicken lana ondoen definitu duen hitza “trebatzailea” izan da, gauzak egitea ahalbidetzen digun lan egiteko modu bat baita.

(*) EKSren bizitzari eta egin zituen obra, jarduera, proiektu, mintegi, argitalpen eta hitzaldiei buruzkorako, honakoa: www.evekosofskysedgwick.net. Hal Sedgwick jarri du martxan web orri hori, eta bertan kolaboratzaile ditu autorearen lanari zabalkundea eman beharra ikusten duten haren lehengo ikasle eta lankide zenbait.

Touching Feeling honen testuaren parte handi bat beste testuinguru batzuetan agertu zen bere garaian. Baina saiakera bilduma hau beste proiektu bati dagokio, hamarkada oso bateko lana, eta hala ere tema gero eta handiagoz egitura lineala hartzeari uko egin diona. Uste dut deskribatzeko modu onena dela pentsakera eta pedagogia ez-dualistarako etorkizun handiko tresna eta teknikak esploratzeko proiektu bat dela esatea.

Zalantzarik ez dago era ez-dualista batean pentsatzeko nahi biziak berak moldatu zuela proiektuak gai bakar baten gaineko arrazoibide linealeko liburu luzeraren forma ez hartzea. Ahots askok esaten digute era ez-dualistan pentsatzeko, eta are zer pentsatu behar dugun era horretan. Gutxiagok transmititu dezakete hori nola egin, zer ohitura eta praktika kognitibok eta are afektibok esku hartzen duten, arauzko moldeetan formulatuak izateko prest ez daudenak. Gehienez ere, espero dut liburu honek halako pentsamoldeetan arrakastaz lan egiten duten pertsonetako batzuen aintzatespena ekartzea; eta berriak edo artikulatu gabeak izan daitezkeen ikuspegietan, aukera zentzu bat. Hemen aurreikusten ari naizen ideala gogo bat da, pentsamenduei irekia, haiek elikatu eta elkarlotzeko gai dena, eta haiek izatean zoriona lor dezakeena.

Batez ere 60ko hamarkadatik hona, hainbat eta hainbat mendebaldar diskurtso akademiko, dibulгатzaile eta profesional eskatzen aritu dira, gero eta gehiago, ikuspegi ez-dualistak zenbait alorretan: fisika, genero eta sexualitate, arte, psikologia eta psikoanalisia, deseraikitzea, harreman postkolonial, pedagogia, erlijio eta espiritualitate, arraza, gogo-gorputz arazo sorta, berreskurapen mugimendu eta azterketa zientifikoan, besteak beste. Baina, jakina, askoz errazagoa da pentsamolde binarioen eragin nahasle alderdikoiak kritikatzeko –eta haien jarraikitasun ergeltzaile sarria agerian uztea– beste pentsamolde batzuk artikulatu edo arautzea baino. Ez-dualismoa eskatzea ere, sutra budista ugarik adierazten duten legez,

zuzenean segada dualista batean erortzea da. Beti suposatu izan dut gisa honetako lan erabilgarriena sarrien gerta daitekeela idazle batek gogo onez nola esan eta, zer esanik ez, besteei nola agindu ez dakienaren mugatik gertu: Jakoben aingeruarekiko borrokan –edo tai txian, antzera-, zeinean nahasi egiten baita ekintza pasibotasunarekin, nortasuna liburuarekin eta munduarekin, lanaren xedeak haren bitartekoekin, eta, agian larriena, adimena ergeltasunarekin. Hala balitz, baliteke gauza pozgarririk egotea *Touching Feelings*en tema estrukturalean.

Liburu honek barne hartzen dituen tema moten artean (izan ere, Taurus bainaiz), 1990ean argitaratutako testu teoriko gutxi batzuekiko bere obsesioa da nabarmenena. Ohartaraztea gustatzen zait obsesioa kapital intelektualezko mota iraunkorrena dela. Modu gutxi-asko esplizituan, saiakera hauek guztiek aukera zirrargarri eta oraingoz agortezinezko sentipen bat -baita frustrazio bat ere- esploratzen dute, lau testu zailek eragindakoa: J.L. Austinen *How to Do Things with Words*, Michel Foucaulten *History of Sexuality*ko lehen liburukia, Judith Butlerren *Gender Trouble* eta Silvan Tomkinsen *Affect Imagery Consciousness*en lehen hiru liburukiak (Tomkinsen *Shamen* laburtuak). Gainera, Tomkinsen lan ez hain ezagunaren kasuan izan ezik, eragin handiko testu horien harrera eta erabilera kritiko eta pedagogikoei erantzuten diete saiakerek; sarri erantzun ere, niretzat behintzat, sumintasan suspertzaile baina tarteka latz edo desatsegin batekin. Hori bezain nabarmena izatea nahi nuke (agian batzuetan hala da) esker ona, politikoki, intelektualki eta irudimentsuki funtsezkoak bizi izan ditudan elkarrizketetan solaskide izatearen pribilegioagatik.

Aldi berean, *Touching Feelings*ek kontatzen dituen istorio errepikakorretako bat izan daiteke idazle batek alor intelektual zehatz batean pisu handi bat izatearen irudipen gero eta gutxiago duela. Halako topaketek, azken bi atalak taxutzen dituzten hilkortasun edo budismoarekikoek bezala, zenbait eragin labainkor izan dituzte, onerako edo txarrerako, *Epistemology of the Closet* bezalako liburu bat sexualitate eta teoria kritikoaren egungo agertokietan eragina izan duen konfiantza markatzen duen bokazio-kontzientzia indartsuan. Azken hamarkadan *Touching Feelings*ekin paraleloan egin dudan lanean elkarlanean egindako zenbait esperimendu editorial daude; poesia liburu bat; *A Dialogue on Love*ko bi ahotseko *haibun* luzatua; minbiziaren inguruko kazetaritza lan mordo bat; eta, gero eta gehiago,

ehun-artearen lan ez linguistikoa. Aldi berean, eta hau interesgarria da, nire ikasgela-bizitza egituratuago eta erlaxatuago bihurtu da horren eraginez. *Touching Feelings* osagai horietako ezein salbuetsiko ez lukeen errealtate sentipen bati lekua uzteko borrokatu banaiz ere, begien bistakoak izaten ziren egia batzuen gaineko segurtasun irmoa lasaitu behar izan dut, haien artean idaztearen ekintzaren erabateko pribilegioa.

Elizabeth Bishopen «One Art» poema ezagunean, errepikatzen den leloa da «Galtzeko artea aise menderatzen da». Estetika aratzaile batean behin eta berriz tematuta, sekula gustatu ez zaidan haren poema bat da; dieta egiten ari direnei atea ez irekitzeko esaten dien hozkailuko iman baten modura irudikatzen dut. Niretzako atsegingarriagoa izango litzatekeen bertsio batek *lasaitzearen* artea eskatuko luke: eta ez arte bakar baten moduan, ezpada elkarlotutako arte multzo baten gisara. Orduan, era idealean, bizitza, maitasunak eta ideiak lasai egon litezke puska batean esku ahurraren gainean. *Touching Feeling* hau hori bezain irekia izatea nahiko nukeen, eta hori bezain kontzentratua. Sarrera honetan, idazte prozesuan ez beharrezkoak edo nahiko antzemangarriak izatea iritsi ez duten topoi nagusietako gutxi batzuk bakarrik agertu ditzaket.

PERFORMATIBOTASUNA ETA FUNTZIONAMENDUA

Enuntziatu performatiboen inguruan J.L. Austinek idatzitako funtsezko lanaren inguruko zenbait eragin eta ondorioerekiko lilura intrantsigente batean dago sustraituta *Touching Feeling*. Performatibotasun kontzeptuak pentsamolde nabarmen desberdinak bultzatu baditu ere, niri oso interesatu zait Derridarengandik Judith Butlerren lehen laneraino doan lerro bat, 90eko hamarkadan genero azterketen eta queer azterketen garapenean eragin bereziki handia izan duen lerro bat.

Performatibotasunaren «queer» potentziala garbi erlazionatzen da haren oinarri ontologikoaren lausotasunarekin; izan ere, bere karrera intelektuala hasten baitu terminoa asmatu zuenaren alde aurretiko arbuioarekin. Austinek performatibotasuna sartu zuen 1955ean Harvarden emandako hitzaldietako lehenengoan (gerora *How to Do Things with Words* gisa argitaratua), baina zortzigarrenera-edo iritsi orduko arbuiaitzeko. Hau da, arbuiaitu edo desmuntatu egin zuen «performatibotasuna»,

enuntziatu kategoria zehatz eta mugatu baten izena den aldetik, enuntziatu deskribatzaile hutsaren kontrajarria egon zitekeena, betiere ohartaraziz: «benetako hizkuntza ekintza batek bietatik du» (147). Hala, deseraikitzeak «performatibotasunarentzat» izan duen erabilera enuntziatu guztiek komunean duten ezaugarri edo alderdi bat dela aitortuz hasten da. Hizkuntzalaritza eta filosofia analitikoa, aitzitik, eta Austinen eragozpenak gorabehera, luzaro gorde zuten interesa enuntziatuak performatiboen eta deskribatzaileen artean sailkatze prozesuan.

Alabaina, Shoshana Felmanek *The Literary Speech Act* lanean ohartarazten duen moduan, Austinen beraren funtzionamendua hitzaldi sorta hartan ez da batere erraza. Haien ezaugarri maltzurretako bat da enuntziatu performatiboranzko halako tropismo errepikatu bat, harekiko lilura nabarmen bat, haien adibide mota berezi bat. Hasieran kontu aratz, jatorrizko eta kontzeptu definitzaile baten modura aurkeztua; azkenekoan bazter utzia haren «bazterreko kasu mugatzaile» bat besterik ez delakoan, hori bai, adibideak edo kontzeptua hitzaldien eragiketa analitikotik harago bizi direla esan daitekeen neurrian (Austin 150); hala ere behin eta berriro aipatua, ezein argudio edo azterketak, ezein deseraikitze edo desegituratzek ezin izango balu bezala kutsatu edo are zalantzan jarri haien adibide-indarraren ziurtasuna; esaldi horiek dira Austinen lanak gogoan ezartzen duena performatibotasun *tout court* gisa, nahiz eta erabilezin bihurtu performatibotasunaren kontzeptua *tout court*. Jakina denez, bada esaldi multzo bat, zeinen inguruan «garbi ematen baitu esaldia enuntziatzea (zirkunstantzia egokietan, noski) ez dela egiten ari naizena [gauza bat] deskribatzea (...) edo hori egiten ari naizela baieztatzea: egitea da» (3). Adibideen artean daude «hitza ematen dut», «oinordetzan uzten dut», «bataiatzen zaitut», «barkamen eskatzen dut», «erronka jotzen dizut», «zigortzen zaitut».

Liburu honetan, Austinen erabileratik aldenduz, *enuntziatu performatibo esplizituak* esaten diet adibide horiei. Zenbait ezaugarri edo arau sintaktiko eta semantiko komun dituzte: (1) singularreko lehen pertsonan doaz, (2) orainaldian, (3) indikatiboan, (4) ahots aktiboan, (5) esaldi bakoitzean aditzak enuntziatuak egiten duen ekintza (Austinen terminoa erabiliz, ilokuzioa) izendatzen du, eta (6) «honen bidez» adizlaguna tartekatu liteke haietako edozeinetan haien forma edo esanahia aldatu gabe.

Hala, «[honen bidez] barkamen eskatzen dut» barkatzea da, «[honen bidez] zigortzen zaitut» zigortzea da.

Enuntziatu performatibo esplizitua kategoriak argigarria izan nahi badu, ez du lortuko zalantzazko kasuak alde batera utzita. Hainbat eta hainbat esaldiren indarrak arazorik gabe performatiboa dirudi zentzu austindar klasikoan, baina goiko arau guztiak hausten dituzte. «Bilera atzeratu egin da» esaldiak, 1.a eta 4.a hausten ditu; «Ordena epaigelan»ek 1.a eta 2.a hausten ditu; «Kanpora»k 1.a eta 5.a hausten ditu; «Hemen nago!»k 1.a, 2.a eta 3.a hausten ditu, eta agian baita 6.a ere.

Baina kategoria murritzuaen helburua ez da beste maila bat sartzea, bertan salbuespenak aurkitzeko eta enuntziatu ñabartuen eta ez ñabartuen artean bereizteko jolasean aritzeko. Aitzitik, uste dut kategoria baliagarriagoa dela pentsamolde espazializatu batean. Baldin eta, Austinek berak dioen bezala, bereizketarik ez badago enuntziatu performatiboen eta ez performatiboen artean, orduan lagungarriagoa izan liteke mapa baten antzeko erlazio multzo bat irudikatzea: mapa horretan agertu litezke *enuntziatu performatibo esplizituak*, 1. arautik 6.eraingo zorrotz betetzen dituztenak, erdialdean, eta beste enuntziatu ugari hurbilago edo urrunago sakabanatuta edo multzokatuta, adibide horien antzekoak edo ez izateko moduen arabera. *Touching Feelings* 2. Atalean, «Performatibotasunaren inguruan», aurrera jarraitzen dut bulkada espazializatzaile horrekin, eta enuntziatu *periperformatiboen* klase berri bat planteatzen dut, zeinaren eraginkortasun konplexua enuntziatu performatibo esplizituekiko hurbiltasunaren eta haietatiko desberdintasunaren arabera baita.

Hizkuntza performatiboaren moldeetako interes maila zabal hori ere urrundu egiten da lehen aipatu dudane genealogia deseraikitzaile/queeretik. Zeren Jacques Derridarengandik Judith Butlerrenganaino literatura eta genero teoriaren ibilbidea gero eta gehiago okertu baita une gramatikala esan geniezaiokeenetik, edo bulkada gramatikaletik, performatibotasuna eztabaidatzean. Asko sinplifikatuz, planteatuko dut bai deseraikitzeak bai genero teoriak aipatu dutela Austinen performatibotasuna gutxi gorabehera antiesentzialismo gisa identifika litekeen proiektu epistemologiko baten zerbitzura dagoen zerbait bezala. Austinen performatibotasunak zerikusia du hizkuntzak errealtatea eraiki edo eragiteko moduarekin hura deskribatzera mugatzearekin bainoago. Hizkuntzaren alderdi zuzenean *produktibo* hori

oso esanguratsua da proiektu antiesentzialistentzat delako enuntziatuak ia-ia galdatzen ari direlako errealtate autonomo nabarmen extradiskurtsibo batekiko erlazio simple huts bat. Antzeko moduan, historiaren esparruan, proiektu antiesentzialista berberak lehen planora ekarri dute soilik deskriptiboak direla aldarrikatu duten taxonomia eta diziplinen, baita soilik ukatzea itxurazko eragin bakarra duten debekuen indar produktiboaren Foucaulten behin eta berriz errepikatutako frogak. Hizkuntzak berak errealtatea sor dezakeela ikerketa antiesentzialistaren lehen mailako funtsa da.

Hein horretan, badirudi bai deseraikitzeak bai genero teoriak interesa dutela Austinen performatibotasuna enuntziatu eredugarri edo enuntziatu motetan duen bizilekutik deslotzen eta erakusten askoz gehiago dela hizkuntzaren edo diskurtsoaren ezaugarri bat. Karikatura gisa, irudika genezake Derrida Austinen performatibotasun esplizituen frogari erantzuten: «Baina horren parte benetan interesgarria hizkuntza oro performatiboa dela da»; eta Judith Butlerrek gaineratzen: «Ez hori bakarrik, baizik eta ahalik eta performatiboena da bere performatibotasunak esplizitutasun maila apalena duenean; eta areago, ziur aski performatiboena da benetako hitzetan gorpuztuta ez dagoenean».

Ez diet gogor egin nahi frogia indartsu horiei, ezta haiek bultzatzen dituen antiesentzialismoari ere. Baina azpimarratu egingo nuke Derridaren eta Butlerren performatibotasunek, motibo antiesentzialista baten zerbitzura baitaude, eratuak diruditela, adibidez, John Searlek edo Emil Benvenistek egin duten Austinen erabilera positibistaren ezaugarria izan diren taxonomia gramatikal hipostatizatuen kontrako irudiaren arabera. Esan nahi baita, antza denez, Derrida eta Butler abagune batetik agertzen direla, zeinean Austinen taxonomia sintaktikoak, jatorrian behin-behinekoak eta ludikoak, murriztaile eta esentzialistatzaileak diren aldetik soilik iraun baitezakete; *hizkuntza batzuetatik hizkuntza guztietara* pasatzea beharrezkoa dirudi haien proiektu antiesentzialistentzat. Beharbada hizkuntzaren parte zehatzen egitura eta efektuei erreparatzeak, eta horixe da nire asmoa saiakera hauetako askotan, antiesentzialismotik urruntzea eskatzen du, funtsezko egiaren eskaera epistemologikoa apur bat arintzea.

Argi eta garbi urrundu naiz ere fenomeno itxuraz ez linguistikoak

termino linguistiko zorrotzetan aztertzeo proiektu deseraikitzailetik, Butlerrek egiten duen bezala estilo ez ahozko bat aztertzean enuntziatu performatibo baten aldaera moduan (“Performative” 272-73). Deseraikitze lan askok bezala, *Touching Feeling*ek esperientziaren eta errealtatearen alderdiak aztertu nahi ditu, molde proposizional edo are ahozko moldean ere agertzen ez direnak agertzen direnekin batera, haiek bien artean bereizketa zorrotza eskatzen duen itxurazko zentzuaren mendean jarri beharrean, eta horrek aurrekoaren lehentasun ontologikoa ekarri ohi du. Lan honetan bestelakoa izan daitekeena, baina, da lehentasun horiek ez dituela balio gabetzen errealtatearen alderdi ez ahozkoak linguistikoen babespean ipiniz. Suposatzen dut hitzen eta gauzen edo fenomeno linguistikoen eta ez linguistikoen arteko lerroa etengabe aldatzen ari dela, irazkorra dela, eta behin betiko artikulatzeko guztiz ezgaia. Wittgensteinekin batera, ordea, esanahiari eta hizkuntzari balio, mistikotasun edo gauzatasun oso berezi bat egozte arbuiaitzeko joera dut. Objektu eta gertakari anitzek *esanahia* dute, modu eta testuinguru desberdin ugarian, eta nik balioetsi egiten dut premiarik gabe esanahi mota linguistikoak ez reifikatu edo zerbait misteriotso bihurtzea.

Orain arte performatibotasuna aztertu izan dut haren garrantzi teorikoa Austini jarraitutako lanetatik edo hizkuntza ekintzetatik zuzenean baletor bezala. Baina gaur egungo erabilera askotan, bereziki genero eta kultura azterketetan, badirudi lotuta dagoela batik bat antzezpenaren nozioari, batez ere hark eraginda. Butlerren hasierako lanean gonbidapen bat artikulatzen da, haren hitzetan, «generoa (...) “antzezpentzat” (...) jotzeko, nolabait, eta hori bai dela bai intentzionala bai performatiboa, eta hemen «performatibo» horrek «dramatiko» eta «ez erreferentzial» esanahi bikoitza darama (“Performative” 272-73). “Performative”k une honetan bi diskurtso nahiko desberdinen autoritatea dauka: alde batetik, antzerkiarena, eta bestetik hizkuntza ekintza teoriaren eta deseraikitzearena. Bi diskurtsoen ospea partekatzeak, hala ere, Butlerrek iradokitzen duen moduan, oso esanahi desberdina dauka bakoitzean. Antza denez, «performatibo» hitzaren antzerkiari dagokion esanahiaren eta esanahi deseraikitzailearen arteko tartea ez hitzezko eta hitzezko ekintzaren arteko polaritateak hartzen ditu. Barne hartzen ditu orobat mutur bakoitzekoak, antzezlearen

kanporakoitasuna (ikus-entzuleengana guztiz zuzendua) eta adierazlearen *barrenkoitasuna* («barkamen eskatzen dut» bakarrik barkatzea bada, «zigortzen zaitut» bakarrik zigortzea bada, eta abar). Antzerki izaeraren eta absortzioaren arteko Michael Frieden aurkakotasunak neurriira egina dirudi «performatibotasunaren» inguruko paradoxa honetarako: zentzu deseraikitzailean, performatibotasunak absortzioa markatzen du; agertokitik hurbil, ordea, performatibotasuna antzerkiari dagokiona da. Baina beste erabilera mota askotan, Lyotarden *La condition postmoderne* bezalako testu batek «performatibotasuna» erabiltzen du *eraginkortasuna* bezalako zerbaiten erradikaltasuna adierazteko –irudikapen postmodernoa eraginkortasun kapitalistaren mota bat den aldetik-; baina Paul de Manen edo J. Hillis Millerren «performatibotasun» deseraikitzailearen ezaugarria balirudike adierazlearen eta munduaren arteko kausa eta ondorioaren deslotura. Aldi berean, ez da ahaztu behar deseraikitzean ere gehiago esan daitekeela hizkuntza ekintza performatiboen inguruan ontologikoki deslotuak edo barrenkoiki ez erreferentzialak direla baino. De Manen azalpenari jarraituz esaten duenean badagoela «errotiko bereizte bat edozein testuren esanahiaren eta haren funtzionamenduaren artean» (298), tentaldia egon liteke ez kontzentratzeko hainbeste performatiboa denaren ez erreferentzian, eta bai haren erlazio nahitaez «itxuragabea» (de Manen hitzetan): erreferentziaren eta performatibotasunaren okerdura, elkarrekiko perbertsioa, esan genezake. *Touching Feeling* honen lehen bi atalak performatibotasunaren eta antzerki izaeraren arteko desbideratze horretan zentratzen dira bereziki: lehena Henry Jamesek bizitza osoan fantaseatu zuen antzerki ingelesarekiko oroimin sakon erantzunik gabean; bigarrena, ezkontza burges eta gauzekiko esklabotzaren azterketa batean, XIX. mendeko narratibaren antzerki mugikorraren –prosenio ibiltariaren- bi bertsio direlakoan.

HARATAGO, AZPIAN ETA ALBOAN

Jada adierazia naiz, performatibotasunean duen interesa gorabehera, *Touching Feeling*en indar higiarazlea ez dela azterbide itxuraz ez esentzialisten atzean ezkutatzen diren esentzialismoaren hondar moldeak agerian uztea. Ezta literatur moldeen itxurazko funtzioaren

azpian leudekeen bulkada edo obsesio inkontzienteak azaleratzea ere. Eta planta estetiko liberalen azpian mozorrotutako indar historiko bortitz eta zapaltzaileak igartzea ere ez da.

Halako praktika kritikoak gutxiesten saiatu gabe, proiektu honetan saiatu naiz sakontasunaren edo barneraezintasunaren toposaren inguruko bide batzuk esploratzen, tipikoki agerian jartzearen drama atzean daramatena, azken lau hamarkadetan lan kritiko askoren lehengaia izan dena. *Azpian* eta *atzean* askatzen zailak dira; baina *haratagotik* apur bat urruntzea are zailagoa izan da, batez ere zirriborratu besterik ezin den berehala biribildutako praktika kritiko edo iraultzaile bat «eskatzeko» nagusikeriazko keinua atzean uztea.

Beraz, izenburuak berak iradoki bezala, *Touching Feeling*eko preposizio garrantzitsuena *alboan* da ziur aski. Deleuzek bi dimentsioko erlazioetan izandako interesa kontuan hartuz, badirudi *Alboanen* posizio irmoki espazialak erresistentzia baliagarri pixka bat egiten diola *azpian* eta *haratago* espazio-deskribatzaileak izatetik hurrenez hurren jatorriaren eta xedearen narratiba inplizituak izatera pasatzeko erraztasunari.

Alboan preposizio interesgarria da halaber haren inguruan dualismo handirik ez dagoelako; zenbait osagai egon daitezke elkarren alboan, baina ez kopuru infinitu bat. *Alboanek* halako agnostizismo espazial bat ahalbidetzen du pentsamendu dualista indartzen duten logika linealetako zenbaiten inguruan: kontradikziorik eza, edo hirugarren salbuetsitakoaren legea, kausa versus ondorio, subjektu versus objektu. Baina haren interesa ez da harreman metonimikoki igualitarioen edo are baketsuen fantasia baten araberakoa, anai-arrebekin ohe bat partekatu duen edozein haurrek dakien bezala. *Alboanek* barne hartzen du erlazio sorta zabal bat, besteak beste desiratzea, identifikatzea, irudikatzea, arbuizatzea, berdintzea, bereiztea, elkarren etsai izatea, joera izatea, bihurritzea, imitatzea, atzera egitea, erakartzea, oldartzea edo desbideratzea.

Geografia edo antropologia bezalako diziplina espazializatzaileek, ordea, abantaila bat dute, ahalbidetzen dutelako ikuspegi ekologiko edo

sistemikoak identitatea eta funtzionamendua bezalako gaietan. Esate baterako, Esther Newton antropologoak, Estatu Batuetako transformisten inguruko 1972ko *Mother Camp* azterketan, bi drag klubuen planoak agertzen ditu (71, 89). Planook leku bakoitzeko ikuskarrien inguruko haren alor-datuen parte bat dira, eta haren azterketa espazialki zehatzaren indarretako bat da bereziki erne dagoela gune batean elkarren *alboan* dagoen jendearen arteko alde anitzeko elkarrekintzen aurrean. Hala, gela mota batean artista bat agertokian bakarrik geratu eta gero ikusleekin nahasten ez den bitartean, beste gelako artista ia etengabe ari da elkarrekintzan taldeburuarekin, klubeko managerrarekin, ikusle batzuekin eta beste artista batzuekin, zaharragoak eta gazteagoak, mozorrotuak eta mozorrotu gabeak, amateurak eta profesionalak. Ondorioak berretsi egiten du Newtonen hipotesi etengabea: draga halako ekintza bakun bat baino gehiago, sistema heterogeneo bat dela, esparru ekologiko bat, zeinaren erlazionaltasun intentsibo eta definitzailea barrukoa izan arren, aurre egin diezaiekeen arauetara zuzenduta baitago. Bestalde, Butler Newtonen lanean inspiratzen denean *Gender Trouble* liburuaren amaieran, espazioari emandako arreta ekologikoak gainbehera egiten du une batez generoa azpimarratuz, «errepikapen estilizatu» edo «denboratasun soziala» den aldetik (J. Butler 140-41). Alabaina, bere espazialtasuna galtzean, drag antzezpenaren alor berez konplexuak itxuraz saihetsezina den bakuntze eta reifikatze bat nozitzen du. Izan ere, uste dut dimentsio galera horrek esplikatu egin dezakeela zergatik hasierako irakurleek, oker, Butlerren argudioak interpretatu zituzten boluntariotasun sinplista bat inposatzen dutelakoan. Pentsaera denborazkoa eta espaziala inoiz ez badira izaten benetan elkarren alternatiba, *Touching Feeling* honetan saiatu naiz espazioaren dimentsio aberatsari arreta gutxiegi emateko joera profesional baten aurka egitea.

ERREPRESIO-HIPOTESIAREN AMARRUAK

Jendearen oroimenean geratzen diren txisteak benetan ulertzen ez dituenak izaten dira. *Touching Feeling*ek erakusten du, nire ustez, halako erlazio bat Foucaulten *History of Sexuality*ren lehen liburukiarekin. Foucaulten liburukiak txiste bat gogorarazten dit, haren argudioa hain ekonomikoa delako eta hainbeste promesten duelako; ongi ulertzen ez badut, haren dotoretasunak

berak ere bere promesa itxuraz bete ezina egiten duelako da.

Niretzat, liburuaren ia eldarniozko promesa oso lotuta dago «errepresio-hipotesiarekiko» Foucaulten identifikazioari eta hura inguratzeko moduak egon zitezkeela haren iradokizunari. Foucaultek arbuiazen duen errepresio-hipotesiaren arabera, sexualitatearen historia boterearen eta sexuaren arteko «erlazio negatiboarena» bakarrik izan liteke, «arauaren jarraitutasunarena», «debeku zikloarena», «zentsuraren logikarena» eta eskasia eta debekuaren «aparatoaren uniformetasunarena»: «Hori eskubideak formulatzen dituen printzearen irudiari egozte, debekatzen duen aitarenari, isiltasuna behartzen duen zentsuratzailearenari edo legea xedatzen duen jabearenari, edozein kasutan boterea molde juridiko batean eskematizatzen ari da, eta haren ondorioa obeditzea dela definitzen du» (82-85). Bestalde, Foucault, nahiz eta urrun egon «sexua ez da debekatua, baztertua, mozturrotua edo gaizki interpretatua izan aro klasikotik» aldarrikatzetik (12), gehiago harritzen du sexualitatearen inguruko diskurtso modernoan ugaritasunak haien ezabatzeak baino. Edo, eta hau interesgarriagoa da, sumatzen du egiatan ezin daitekeela izan «hausturarik» «errepresioaren eta errepresioaren analisi kritikoaren» artean (10); «bere isiltasunaren gainean hitz eta pitz ari den eta esaten ez dituen gauzak xehetasun guztiz kontatzen ahalegintzen den» gizarte baten paradoxari erantzunez, hark, alderantziz, uste du aro modernoan definitzen duela «sexuaren inguruko diskurtsoen aniztasunak, boterea baliatzen den alorretan: haren inguruan mintzatzeko, gero eta gehiago mintzatzeko, bulkada instituzionalak; boterearen agentzien deliberamendua hartaz hitz egiten entzuteko eta hartaz hitz egin dadin artikulazio esplizituz eta metatutako zertzelada amaigabeek» (18). Hala, errepresio-hipotesi ustez askatzailea amarru gisa ikusten du haren inguruan izan den ahozko ugaritasun zapaltzailetik gehiago exijitzeko.

Pentsamolde dualistetatik –batez ere sexuari dagokionez- urrundu nahi duen proiektu batentzat, zer abiapuntu izan zitekeen errepresio-hipotesiaren eztabaida hau baino hobea? Baina Foucaulten liburua arreta gehiagoz irakurrita, eta batez ere haren arazoen tratamendua beste idazle batzuen lanetan ikusita, gero eta garbiago ikusten da Foucaulten liburuan barne banaketa bat zegoela errepresio-hipotesiaren bere kritika zabala, izugarri adartu eta sotilaren bidez nahi zuenari dagokionez. Banekien

hartatik zer nahi nuen: giza desira ulertzeko bide batzuk, debekutik eta errepresiotik alde batera egon litezkeenak, eta, beraz, debekua/ errepresioa bere kameleoi-antzeko moztzeko guztietan bilatu eta erasotzeko prestutasun ezinbestean dualista eta «askatzailea», heroikoa ez bezala egituratu zitekeena. Errepresioaren analisi kritikoa, berez, errepresiotik banaezina baldin bada, orduan gutxieneko era eraginkor batez pentsatzeak guztiz bestelako modu batean pentsatzea izan behar du».

Diskurtso ustez erradikal eta eten ugaritan –marxistan, psikoanalitikoan eta libertarioan, baita liberalean ere–errepresio-hipotesiak irauteari Foucaultek egiten duen analisi kritiko arretatsuak adierazten du, inondik ere, bestela pentsatzean proiektua lehen mailako motiboa izan zela haren azterketan. Eta, neurri handi batean, liburuki haren osteko haren idazlanek proiektu hura aurrera eramaten saiatzen dira. Baina *1 Liburukiaren* indar erretoriko karismatiko irabazleak era berean iradokitzen du Foucaultek bere burua konbentzitu zuela –irakurle ugari konbentzitu da orobat– bere azterketa errepresio-hipotesitik kanpo lan egitearen adibide eredugarri bat zela. Baina hartatik kanpo baino gehiago, *1 Liburukia*, Foucaulten aurreko lanaren gehiena bezala, hobeto deskriba liteke esanez are gehiago hedatzen duela errepresio-hipotesia lekualdatzearen, biderkatzearen eta hipostatizazioaren bidez.

Nire iritzia zuzena bada, hona hemen errepresio-hipotesiaren gaineko Foucaulten eztabaida (gaizki?) interpretatzeko modu arruntenen balizko taxonomia bat. Arestian teoriariek seguruak ematen dute liburuki hori ulertu dutela, honako agudioetakoren bat erabiliz:

1. Errepresio-hipotesitik harago ere, debekuaren bertsioen batek jarraitzen du izaten ulertu beharreko garrantzitsuena. Baina *sortuz* funtzionatzen du, gauzak/pertsona motak/portabideak/ subjektibotasunak sortuz, ezabatuz baino gehiago.
2. Errepresio-hipotesitik harago ere, debekuaren bertsioen batek jarraitzen du izaten ulertu beharreko garrantzitsuena. Baina mekanismo *barneratu* eta itxuraz boluntarioez funtzionatzen du, kanpoko baimen negatibo ikusgarriez baino areago.
3. Errepresio-hipotesitik harago ere, debekuaren bertsioen batek

jarraitzen du izaten ulertu beharreko garrantzitsuena. Baina hori kanal eta diskurtso anitz, sarri ñimiñoen bidez gertatzen da, goitik ezarritako lege bakar batez baino gehiago.

4. Errepresio-hipotesitik harago ere, debekuaren bertsioen batek jarraitzen du izaten ulertu beharreko garrantzitsuena. Baina debeku bakar *transzendental* batez funtzionatzen du (hizkuntzaz, adibidez, edo Aitaren Izenean), tokiko debeku esplizituen bidez baino gehiago.
5. Errepresio-hipotesitik harago ere, debekuaren bertsioen batek jarraitzen du izaten ulertu beharreko garrantzitsuena. Baina bere burua *naturaz* (alegia, esentziaz) mozorrotuz funtzionatzen du. Natura eta esentzialismoa dira, eta beti izan dira, errepresio/debekuaren amarru definitzaileak.

Garbia dirudi pentsabide horiek heuristikoki indartsuak izan badaitezke ere, haietako ezeinek ezin dezakeela bete Foucaulten barne promesa: egon litezkeela moduak errepresio-hipotesitik urruntzeko debekuaren auziak egituratuko ez lituzkeen pentsamoldeetarantz jotzeko. Baina orduan, zergatik espero izango luke batek hori egitea? Kontuan hartuz debekuaren errealitate hutsa giza diskurtsoen, eta sexualitatearenaren, ezaugarria dela, eta Foucaultek onartu egiten du hori, ematen du errepresio-hipotesitik urruntzeko interesa xalotasunetik bakarrik sortu litekeela, hura desiratu edo zintzoa izan: errealitateari aurre egiteko erresistentzia zehatz batetik.

Baina, Foucaulten promesa implizituari halako indarrez erantzutean, ez ninduen akuilatu errepresiorik edo debekurik gabeko mundu baten fantasiak. Goiko zerrendako interpretazioekiko nire desadostasuna ere ez da pesimistegiak direla, edo ez direla nahiko utopikoak. Alderantziz, Foucaultek egiten duen errepresio-hipotesiaren egitura etengabe hedatzaile eta moldagarriaren erakusketak hunkituta, arrisku kognitibo bat ikusten hasi nintzen interpretazio haietan: tautologia moralista bat, bere burua halakotzat hartzeko gero eta ezgaiagoa zena.

Edo, «tautologia» baino hobeto, logikaren hizkera estatikotik hartua bera, sistemen deskribapen bat izan liteke. Esan dezagun errepresio-hipotesitik aldentzeko ahaleginak, haren pluraltasun aldakorren azterketa zorrotz jarraituan oinarrituak, feedback positibozko begizta hautsezin bat

eratzen dutela. A eta B elkarrekin ohean baleude bezala da, kontrol bikoitzeko tapaki elektriko baten azpian, baina kontrolak ustekabean aldatuta: Ak hotza sentitu eta tenperatura igotzen badu, Bren aldeko tapakia berotuko da; orduan Bk tenperatura jaitsiko du, eta Aren aldea are gehiago hoztu; beraz, Ak ostera igotzen du tenperatura... Bren aldean, eta abar, eta abar.

Touching Feelingen 4. Atalak halako feedbackezko begiztak –elkar sendotzaileak, Silvan Tomkinsen terminologian, elkar betearazleak izan beharrean- aztertzen ditu zehaztasun handiz. Laburtuz, Foucaulten liburukiaren eta haren ondorioen kasuan, esango nuke errepresioaren eta askapenaren arteko pseudodikotomiaz egiten duen azterketak eraman duela, kasu askotan, bere burua kontzeptualki berrinposatzera hegemonikoaren eta subertsiboaren molde are abstraktu eta reifikatuan. Halako terminoen itxurazko urgentzia etikoak mozorrotzen du haien substantzia galera mailakatur, gramscitar-foucaultar gisako kutsatze batek «hegemonikoa» beste izen bat bihurtuko balu bezala status quoarengatik (hau da, *den* guztiarengatik) «subertsibo» definitzeko harekiko erlazio negatibo gero eta hutsago baten moduan (Foucaulten azalpenean errepresio-hipotesia lehenik eta behin definitzen zuen «erlazio negatibo» beraren mutur bat). Aldi historiko bat «jarraitutasunezkoa» edo «aldaketazkoa» izan ote zen jorratzen zuten argudio historikoak askatzeko erabiltzen zen batere lagungarria ez den egitura berbera da. Status quoa reifikatzearen beste arazo bat da zer egiten duen agentziaren maila ertainetan. Baten erlazioak *zer denarekin* erreaktiboa eta bitarikoa izateko arriskua du, kontsumitzaile batena: baten aukerak murrizten dira onartzera edo arbuiatzera (erostera edo ez erostera) haren adierazpen hau edo bestea, soilik obsesioaren eta borondatezkitasunaren muturrak agertuz. Baina agentziaren maila ertainek bakarrik eskaintzen dute espazioa benetako sormen eta aldaketarako.

TESTURA ETA AFEKTUA

Gai foucaultar kutuna izanik, lotsa pixka bat ere ematen dit *Touching Feelinge*k sexua hain gutxi aipatzeak. Arrazoi handi bat da neure bizitzaren eguneroko ziurgabetasuna, zeren zirkulatzen duen estrogenoaren arrasto txikiena ere ezabatu nahi duen minbiziaren aurkako terapiak hausnarketarako interes gutxiko, gero eta interes gutxiagoko gai bihurtzen du sexualitatea.

Nabarmena da ere, politika gay eta lesbianaren banalizatze estrategikoarekin eta hiesaren izurrite historiko eta jarraituarekiko harremana irmo ukatzen dutenez, alor askotan agian teoria aktibismo sexualarekiko harreman oso emankorrean zegoen unea igaroa izan balitz bezala.

Liburu honek tematika sexuala zuzenean aztertzen du batez ere 1. Atalean, bertan aipatzen baita uzki batean sartu eta bertan ezkututzen dela imajinatzen den altxorra ateratzen duen esku baten irudiarekiko Henry Jamesen lilura. Nigan eragin handia izan duen saiakera batean, Renu Borak Jamesen gorotz-interes bizia hartzen du abiapuntu testuraren gai osoaren gaineko eztabaida izugarri emankor bat sortzeko. Behaketa bat garatzen du bertan: testura sumatzea, berehala eta de facto sartu behar dela ezaugarri fisikoek denboran duten eraginaren eta alderantzizkoaren gaineko hipotesi sortze, frogatze eta berrulertze aktibo narratiboaren esparruan. Testura sumatzea ez da bakarrik galdetzea edo jakitea «Nolakoa da?», ezta soilik «Zer eragin du nigan?» ere. Testura sumatzeak beti esploratzen ditu beste bi auzi: «Nola bihurtu da hori? eta «Zer egin nezake horrek?». Hauek dira James J. Gibsonek 1966ko *The Senses Considered as Perceptual Systems* bere liburuan «afordantzia» deitzen zituen ezaugarri intrintsekoki elkarreragileak, eta, Tomkinsek afektuaz egindako lanaren kasuan bezala, pertzeptzioaren ikuspegi horrek asko zor dio gerra ostean zibernetikaren eta sistemen teoriaren inguruan sortutako interesari.

Boraren saiakerak frogatzen duen bezala, ez dut testura bat sumatu izan harik eta aldi berean pentsatu dudana arte ea sumatzen ari naizen objektua jalkia den, edo estrusioak eragina, xaflatua, pikortua, leuna, zaharkitua, feltro antzekoa edo harroa. Antzeko modura, testura bat sumatzea da jakitea edo teorizatzea gauza bat erraza edo zaila izango den, segurua edo arriskutsua atzemateko, metatzeko, tolesteko, zarratatzeke, gainera igotzeko, tinkatzeko, labaintzeko, blaitzeko. Beste pertzeptzio-sistemak baino errazago, antza, ukimenak txorakeriak bihurtzen ditu agentzia eta pasibotasunaren edozein zentzu dualista; ukitzea beti da aldi berean eskua luzatzea, laztantzea, pisatzea, kolpetxoak ematea edo biltzea, eta betiere ulertzeko beste pertsona edo naturaren indar batzuek lehenagotik egin dutela hori, besterik ez bada ere testuradun objektua eratzean.

Walter Benjaminek deskribatzen zuen modu bat objektu eta subjektu testuralen ezaugarri itzulgarriak baliatzeko idatzi zuenean, «Borges bat

lurreko bere izateari iraunkortasuna emateko ezgai bada ere, badirudi harentzat ohore kontua dela egunero erabiltzen dituen objektu eta trepeten arrastoak betiko gordetzea. Burgesiak alaitasunez hartzen du era guztietako objektuen eragina. Txapin eta erlojuentzat, termometro eta arrautzontzientzat, mahaitresna eta aterkientzat estalkiak eta kutxak bilatzen ditu. Gogoko ditu belus eta ilainkizko estalkiak, ukitu bakoitzaren arrastoa gordetzen dutelako. Bigarren Inperioaren amaierako estiloarentzat, bizitegi bat halako estalki bat da» (46). «Estilo horretan, [bizitegia] halako estalki bat da pertsona batentzat, eta barne hartzen du haren ondasun guztiekin batera, bere arrastoez arduratuz granitoan txertatutako fauna hilaz natura arduratzen den bezala. Aise ikusten da bi alderdi daudela prozesu horretan. Hala gordetako objektuen balio erreal edo sentimentala areagotu egiten da. Jabeak ez direnen begien aurretik desagertzen dira, eta haien ertzak lausotu egiten dira era berezi batean. Ez da harritzekoa kontrolen aurreko erresistentzia, pertsona asozialen ekintza erreflexua bihurtzen dena, burgesia jabearekin itzultzea» (46-47).

Aldi viktoriarreko ilainkitik distira postmodernoraino joanez, Borak ohartarazten du: «leuntasuna testura mota bat da, bai testuraren bestea ere» (99). Haren saiakeran bereizketa oso baliagarri bat egiten du bi testura motaren, edo zentzuren, artean, berak «testura» izendatzen duena, s bakarrez, eta «tesstura», bi sz. «Tesstura» halako testura bat da, substantiboki, historikoki, materialki nola sortu zen inguruko informazioz trinkotua. Oraindik bere fabrikazioaren orbainak eta distira irregularra daramatzen adreilu bat edo metalezko ontzi bat tessituraren adibideak izango lirateke zentzu horretan. Baina badago ere testura –s bakarrez idatzia- ausarki edo are era ikusezinean halako informazioa blokeatu edo errefusatzen duena; bada testura bat, ordea, eskuarki distiratsua, argi eta garbi gustu txarrekoa ez denean, substantziaren eta gainazalaren artean bereizten duena, bere historiaren ezabatze desiratua sinbolizatzen duena. Borak kontzeptua aztertzeko moduaren ondorio bat: distira oso handia izan arren, testura gabezia ez da existitzen.

Borak fetitxismo kontzeptuaren testura alorreko historiaren azterketa distiragarri bat egiten du, fetitxismo psikoanalitikoa eta ondasun fetitxismoa barne hartuta, fetitxismoaren lekualdaketak argiaren abiaduraz bezala mugiarazten dituen gainazal fabrikatuaren edo nabarmenduaren

lekualdatzeetan barrena. Baina bestelako testura motaren trinkotasun narratibo-performatiboak –haren historizitate ezabaezinak- ere nola edo halako fetitxe-balioa hartzen du. Azken honen adibide bat gerta liteke exotikotasuna dagoenean jokoan, edo esku arrotz askoren lan merke baliotsuaren erregistro testural ukigarri eta oso erosgarria, begi arrotz kaltetu askoren argitan.

Boraren saiakerak azpimarratzen du halaber testurak halako definizio oinarri bat ukimenean badauka ere, testura berez ez dela lotzen zentzumen bakar bati, ezpada «ukimenaren eta ikusmenaren ezaugarrien muga liminalki erregistratua izateko joera duela» (101). Izan ere, ikusmenaz eta ukimenaz harago, beste zentzumen batzuek parte hartzen dute testuraren pertzepzioan, panazko galtzen igurtzia edo oilasko oso karraskatsu baten kurruska *aditzen* dugunean bezala.

Testuran zentzumen batek baino gehiagok parte hartzen badute, egia da orobat pertzepzio-sistemen ezaugarriak, eta historia moderno erotik desberdinak, testuraren historia bihurritu eta bereizteko joera ere izan dezaketela. Ukitu fisikoaren sentipena, orain arte bederen, eta harrigarria bada ere, ezin izan du teknologiak anplifikatu. Bularraren buru-azterketa egiten duten emakumei batzuetan irakasten zaie xaboi likidozko geruza bat, oihal satinatzuko zati bat edo are ur geruza bat daraman plastikozko xfla mehe bat erabiltzen bularraren ingurua hatzentzat sumagarriagoa egiteko. Baina zentzumen-areagotze gutxieneko hori gehigarri bat besterik ez da Leeuwenhoek eta Newtonen geroztiko areagotze esponenzialaren aldean. Testuraren eleberri osoenetako bat den *Middlemarchen* narratzaileak zooma erabil dezake bi esaldi soiletan teleskopiotik mikroskopiora pasatzeko (Eliot 83). Halako ikusizko alorrak eguneroko gauza bilakatzen direnean, hatzen autoritatea ez da inoiz berdina izango, nahiz eta anplifikatze horri aurka egiten diotenean halako urrezko arau bat izan daitekeen, pertzepzioei dagokienez. Areago, aldi modernoan ukimenaren eta ikusmenaren arteko erlazioaren ezaugarriak diren eskala fisiko gero eta desberdinagoek (eta haien aldaketaren erritmo oso desberdinek) krisialdiak eta esanahi hausturak irudikatzeko jarraitutasun metonimikoak bezain egokiak egiten duten testuraren beste kontzepzio batzuetara daramate.

Hala, testuraz zenbait zentzumenen bidez mintzatzeko beharrak berarekin dakar testuraz eskala desberdinetan pentsatzeko beharra. Bidaia

teknologiek, bai ikusizkoek ere, azpimarratzen dute testurak eskalarekin erlazio handia bada ere, ez dagoela berez testuraren eskala den eskala fisiko bakar bat. Hegazkin bat aireportuaren gainean jiraka ari denean, hektarea laurden bateko zuhaitzi batek eskaini dezakeena da testura. Baina egurretan ari zarenean, zuhaitz bakar bat izan daiteke forma edo egitura zure ikus-alorrean, baina testura egurraren azalera pikortuaren eta aizkoraren aho leunaren arteko erlazio mailakoa da.

Gainera, eskala edozein dela ere, gainazal bateko mailadura batek, edo hiruk, ez dute testura osatzen. Motibo errepikatu batek, hala nola motibo tantotu batek, osa lezake, baina hori tanten tamainaren eta zure distantziaren arabera: gelaren beste muturretik ikus ditzakezu geruza gris lau baten moduan; metro bat edo bira tantek testura ikusgai bat osatzen dute; lupa baten bidez, horren azpiko paper zein oihalezko testura sumatzen duzu, diseinu handi bat osatzen duten bizpahiru itxura biribilekin erlaziorik ez duena. Hitz gutxitan esanda, testurak barne hartzen ditu pertzepzio alorreko data sorta bat, errepikapena barne, baina haien antolakuntza maila forma edo egitura mailaren azpitik dabil.

Testuraren garrantzia barnekotasun burgesarekin Benjaminek egiten duen identifikazioari aurre eginez, William Morrisek testura ezaugarri horien erabilera utopista bat egiten du *News from Nowhere* bere eleberri espekulatiboan; bertan berdintasun politikoa, etika komunitarioa, plazer estetiko emankorra eta oreka psikologikoa etenik gabe hedatzen dira eskala kongruentezko gainazal batetik bestera; eta Morrisen motibo tipikoa, apaindura «natural» distantziakide, lehen planorik gabe, hautsi gabe eta perspektibarik gabea, paisaiatik arkitekturara zabaltzen da, barne diseinura, gizon-emakumeen jantzieta, gorputzera eta atzera itzultzen da. Ezaugarri horiek, beren testura alorreko estetika malguaren bidez adierazten dute «gizakia bizi den lurraren azalarekiko maitasun bizi, neurritz kanpoko, maitaleak maite duen emakumearen mami leunarekikoa bezala» (158); haien jantziak, aitzitik, apaintzen dira «gure gorputzen estalkiak gure gorputzak bezain ederrak ikusi nahi ditugulako, orein edo igaraba baten larrua hastapenetik ederra izan den bezala» (165).

Era berean, ohartaraztekoa da performatibotasunaren definizioa bera ere zein ustekabea modulatzeko duen testuraren hizkuntzak. Austinek performatibotasunaren inguruko lan taxonomikoari aplikatzen

dizkion tematikak konsistentzia nazkagarrikoak dira, kontraste harrigarrian dagoena haren sintaxi aspergarri dotore ustekoarekin; balidurike egia/faltsua (enuntziatu konstatiboarentzat) eta zoriontsu/zorigabe(enuntziatu performatiboarentzat) dimentsioak beti daudela busti/lehor ardatz nahasgarrian sartuta desagertzeko arriskuan. Austinen arabera, haren estiloaren Jack Benny gisako barre-algara gorabehera, haren proiektuaz gerta dakiguke geratzea «trabatuta, maila logikoez» (13), edo izatea «bi gako berri eskuetan, *eta*, noski, aldi berean, bi zangotraba berri»(25). «Aurreiritziaren zoru irmoa desagertzen ikustea gogo-pizgarria da», idazten du, «baina bere mendekuak dakartza» (61); «bakarrik», promesten digu gero, «ibilaldi bat eskainiko dizuet, balantzaka bada ere» (151). Garbi dago Austinentzat esaldi zehatzekiko lan taxonomikoa ez dela performatibotasunaren reifikazio searletarra, baizik eta areago haren sorreraren lantegi zikina, irristatze markez zeharkatua, dikotomiez betea, eta «dikotomia asko, izan ere, ezabatzeko premia dago» (149); performatibotasuna sortzen den bizitza funtsezko, agian mingarria, ez oraindik berezitua irudikatzen du.

Modu hauetan, badirudi testura dela arreta maila posible bat zenbait elkarrizketa diziplinartekotan garrantzia kentzeko arestian epistemologian ipinitako temari (eta horrek iradokitzen du performatibotasunak erakutsi diezagukeela egia esentzialik dagoen edo ez, eta nola ezagutu genitzakeen, edo zergatik ez ditugun ezagutzen), galdera berriak eginez fenomenologiaz eta afektuaz (adibidez, zerk ondorioztatzen du performatibotasuna eta funtzionamendua, eta zer eragin banako eta kolektibo agertzen dira haiek burutzean?). Saiakera hauentzat aukeratu dudana izenburuak, *Touching Feeling*, adierazten du testuen eta emozioen artean barnekotasun berezi batek irauten duela, itxuraz. Baina esanahi bikoitz bera, ukimenari dagokiona eta emozionala, jadanik hor dago «touching» hitz bakarrean; era berean, «feeling» hitzaren barruan ere badago. Asoziazio horretan hats ematen dit zalantzazko «touchy-feely» epitetoak, iradokitzen duelako afektuaz mintzatzeak ere azken batean larruazalen ukitzea dela.

Areago, ukituaren eta afektuaren arteko erlazioa nabarmenegia izan daiteke: haren zentzu onak laguntza errazegia eskaintzen diola ematen du giza harreman eta sentipen guztietan desira sexuala zentrala dela dioten teoria modernoei. Foucaultek aztertzen duen «botere/jakintza» erregimen

post-erromantikoa, errepresio-hipotesia egituratu eta hedatzen duena, ideia freudar batetik dator, hots, bulkada fisiologiko bat –sexualitatea, libidoa, desira- dela funtsezko iturria, eta Foucaulten hitzetan ikusten da giza motibazioaren, nortasunaren eta emozioaren «egia» gorpuzten duela. Sexualitateaz idatzi nuen lehen liburuan, adibidez, adostasun moderno horretan inspiratu nintzen «gizonezkoen desira homosoziala» terminoa azaltzeko: «Gehienetan, “desira” erabiltzen ari nintzen psikoanalisiak “libido” erabiltzen duen antzeko moduan: adierazteko ez egoera afektibo edo emozio zehatz bat, baizik eta indar afektibo edo soziala, lika, haren adierazpidea areriotasuna, gorrotoa edo hainbeste karga emotiboa ez duen zerbait izan arren, harreman garrantzitsu bat itsasten duen lika» (Sedgwick, *Between Men 2*). Ikuspegi adostu horrek ez ditu emozioak kanpoan uzten, baina, aipua iradokitzen duen moduan, emozioa lehenik eta behin hor dagoen libido bulkada baten bitarteko edo adierazpen gisa hartzen du. Zirrara, sumina, indiferentzia ere «desiraren» eraldatze gutxi-asko baliokideen gisara ikusten dira. Afektuaren izaerak edo kalitateak, antza denez, ez du pertsona bat haren helmugara eramateko hegazkinaren koloreak baino garrantzi gehiagorik.

Afektua bulkadara honela mugatzeak pentsamendu zorroztasun diagramatiko bat ahalbidetzen du, hala ere txirotzaileegia izan daitekeena termino kualitatiboetan. *Touching Feeling*eko saiakera guztiak ahalegintzen dira nolabait alternatibak eskaintzen afektua bulkadaren mendean jartzeko ohiko joerari. 3. Atalak Adam Frankek eta biok ikuspegi horietako gehienen oinarria eskaintzen duen Silvan Tomkins psikologoaren idazlanak ezagutzearen lehen urratsak aztertzen ditu¹. Tomkinsentzat, bulkada sistemaren eta afektu sistemaren arteko aldea ez da bata bestea baino sustraituago dagoela gorputzean; Tomkinsentzat biak daude erabat gorpuztuta, baina gehiago edo gutxiago bilbatua prozesu kognitiboetan. Ez, aldea dago zehatzagoaren eta orokorragoaren artean, mugatuagoaren eta ez hain mugatuaren artean: hau da, konplexutasuna eta askatasun mailak sortzeko gaiago eta ez hain gai diren biologian oinarritutako sistemen artean². Hala, esate baterako, bulkadak erlatiboki mugatu egiten dira beren helburuetan: arnasteak ez dit gosea berdinduko, lo egiteak libratzeko nire beharra asebeteko ez duen bezala. Denborari dagokionez ere, bulkadak erlatiboki mugatuak dira; izan ere, bizirik jarraitzeko arnastu egin behar baitut

hurrengo minutuan, zerbait edan gaur eta datorren asteetan zerbait jan. Are garrantzitsuago, haien objektu sorta ere erlatiboki mugatua da: gasen azpimultzo ñimiño batek bakarrik asebetetzen du arnas egiteko dudak premia, edo likidoenak, edateko dudak premia. Modu hauetan eta beste batzuetan, sexualitatea da argi eta garbi bulkaden artean gutxien mugatua (afektuaren antzekoena). «Freudek ebaska sartu izan ez balitu afektu sistemaren ezaugarrietako batzuk bulkaden inguruko bere pentsamoldean, haren sistema ez zen hain interesgarria izango», idazten du Tomkinsek, eta Freuden teoria ere kaltetua ikusten du sexualitatea erabiltzen duelako bulkadak oro har irudikatzeko (*Shame* 49). Baina sexualitatea bulkada (mugatu) bat den neurrian, azken batean bulkadak afektuetatik bereizten dituen bera ez den xede eta jomuga zehatz baterantzko *instrumentaltasun* berehalakoa partekatzen du, orientazio definitzailea.

Tomkinsen laburpen osorik ezean, hiru dimentsiok irudika ditzakete afektuen eta bulkaden arteko alde nabarmenak. Afektuek bulkadek baino askatasun askoz gehiago dute, adibidez, denborari dagokionez (sumina segundo batzuetan lurrundu daiteke, baina hamarkadetako mendekuzko jarrera ere ondoriozta dezake) eta helburuari dagokionez (musika zati bat entzuteak hartu dudak atseginak behin eta berriro entzutera eramanez, edo beste musika mota bat entzutera, edo konposatzailea izateko ikastera). Bereziki afektuek, ordea, askatasun handia dute objektuari dagokionez, zeren eta, bulkadetan ez bezala, «edozein afektuk edozein "objektu" izan dezake. Hori da giza motibazio eta portaeraren konplexutasunaren funtsezko iturburua» (7). Sumina, gozatzea, zirrara edo lotsa bezalako afektuen objektua ez dagokie bereziki afektuei arnastearen objektu berezia airea den modu berean: «Ez dago, hitzez hitz, objekturik historikoki lotuta egon ez dena afektu bati edo besteari. Afektu positiboa inbertitu da minean eta giza miseriaren mota guztietan, eta afektu negatiboa plazeraren eta giza espirituaren garaipen guztien ondorioz bizi izan da. (...) Mekanismo berei esker, [jendeak] existentziaren edozein alderdiri egotzi diezaiokie zirraren eta pozaren magia, edo beldurra, lotsa eta zorigaitzaren ikara» (54). Afektuak atxiki dakizkieke gauzei, jendeari, ideiei, sentipenei, erlazioei, jardueri, nahiei, instituzioei eta beste edozein gauzari, beste afektu batzuk barne. Hala, suminak berotuta egon gaitezke, lotsak nahigabetuta, edo pozak harrituta.

Afektuen askatasun horrek ahalmen estruktural bat ere ematen die, bulkada sisteman gertatzen ez dena: bulkaden instrumentaltasunarekin eta beren burua ez den haien helburu bateranzko haien orientazio zuzenean ez bezala, afektuak autotelikoak izan daitezke: «Afektu sisteman ez dago bulkaden gauzatzearen eragin onuragarriaren antzekotasun zorrotzik. Gertatzen dena izaten da *afektuak piztea eta afektuen ordaina identikoak direla afektu positiboen kasuan*; afektu positiboak aktibatzen dituen a “asebetegarria” da» (58; letra etzana gaineratua). Tomkinen pentsamenduzko esperimendu handituan benetako giza automata sortzearen inguruan,

[makinak] afektu sistema bat beharko luke. Zer esan nahi du horrek programa espezifikoko bati gagozkiolarik? Halako makina batean ezaugarri buru-saritzailleak eta buru-zigortzailleak dituen zenbait erantzun eraiki behar direla. Horrek esan nahi du erantzun horiek berez onargarriak edo berez ez onargarriak direla³. Horiek, funtsean, erantzun afektiboen ezaugarri estetikoak dira, eta zentzu batean ezin daitezke gehiago mugatu. Gorritasunaren esperientzia daltonismoa duen pertsona bati ezin azaldu dakioken bezalaxe, zirrara, poz, beldur, tristezia, lotsa eta suminaren kalitate bereziak ezin zaizkizu deskribatu beharrezko aparatu igorle eta hartzailerik ez baduzu. Horrek ez du esan nahi estimuluen eta hartzaileen ezaugarri fisikoak gehiago ezin azter daitezkeenik. Azterketa hori azkengabea da. Areago da kalitate fenomenologikoa barne ezaugarri saritzaile edo zigortzailleak dituela dioguna.

Automatak ingelesa ikasten badu, orduan poza edo zirraren aurrean «gogoko dut hau» bezalako erreakzio berezko bat beharko genuke, eta beldur, lotsa edo zorigaitzaren aurrean «Hau edozer dela ere, ez dit axola» bezalakoa. Ezin dugu kalitate hori definitu hari ematen zaion berehalako erantzun konduktistaren terminoetan, zeren eta *erantzun afektibo horien eta erantzun instrumentalen arteko etena da beharrezkoa* giza erantzun motibatuko moduan funtzionatuko badu. (42; letra etzana gaineratua).

Logikoa dirudi, orduan, Tomkinsek sexualitatea honela definitzea: «bulkaden artean, osagai afektiboak paper garrantzitsuena jokatzen duena: ez da bakarrik «bulkada guztien artean premia gutxienekoa», baina bakarra da «zeinean bulkada aktibatzeak, gauzatu gabe ere, kalitate saritzailea baitu, zigortzailea baino gehiago. Askoz ere zirrargarria eta onuragarriagoa da», minimizatzen du, «sexualki berotuta sentitzea gosea edo egarria sentitzea baino» (60). Nahiz eta sexu desira bera

ez den helburu edo objektu baterantz orientatzen, askoz malguagoa da, bere helburuei eta objektuei dagokienez, beste bulkadak baino, eta, afektu positiboek bezala, autotelikoa izateko ahalmena du.

Tomkinsek faltsua dela frogatzen duen bulkaden inguruko tesi logiko garrantzitsuena da bizirauteari lotuago daudenez, afektuak baino modu zuzenago, urgenteago eta sendoago batean bizitzen direla. Zentzuak diktatzen du, alegia, bulkada sistema dela giza portaeraren lehen mailako motibatzailea, eta afektuak halaberharrez bigarren mailakoak direla. Tomkinsek frogatzen du kontrakoa dela egia: motibazioa bera, are bulkada biologikoak gauzatzeko motibazioa, afektu sistemaren auzia dela:

la aulkitik erori nintzen, harriduraz eta zirraraz, bat-batean konturatu nintzenean beharrezkoa duen airea falta zaion baten izuak ez duela zerikusirik bulkada anoxikoaren seinalearekin berez [izan ere, oxigeno galera mailakatuak, heriotza dakarrenean ere, ez du izurik eragiten, ezerk ez duelako harriduraren afektua aktibatzen]. (...) Urrats labur bat zegoen ikusteko zirrarak ez duela berez zerikusirik sexualitatearekin edo gosearekin, eta bulkada sistemaren ustezko urgentzia maileguan hartua zela afektu egokiekiko bere konbinaziotik, haiek beharrezko anplifikagailuak baitira. Freuden *ida* paperezko tigre bat zela eman zuen bat-batean, sexualitatea, hark ondotxo zekien bezala, bulkaden artean zailena zela, aise inpotente bihurtzen zuelako lotsak, antsietateak, asperdurak edo suminak. ("Quest" 309)

Hitz gutxitan, bulkada sistema ezin da behar bezala ulertu afektuek mendeko xehetasun edo euskarri moduan funtzionatzen duten lehen mailako egitura gisa. Izan ere, haien askatasuna eta konplexutasuna direla-eta, «afektuak edozein bulkada baino askoz ustegabekoagoak edo askoz monopolistagoak izan daitezke. (...) Freudek Inkontzienteari eta *Idi* egozten zizkien ezaugarri gehienak afektu sistemaren alderdi nabarmenak dira egiatan. (...) Afektuek eragin dezakete aseezintasuna eta muturreko aldakortasuna, axolagabetasuna eta maniakotasuna» (52).

Testura eta afektua, ukia eta sentipena, itxuraz elkarrekin badoaz, hori ez da gertatzen halako eskala-sotiltasun bat dutelako, derrigorrean «irakurketa hurbila» edo «deskribapen sakona» eskatuko lukeena. Komunean zera dute, *edozein eskalatan dihardutela ere* biak fenomenologiko murriztezinak direla. Haiek batez ere egitura terminoetan deskribatzea beti da irudikapen kualitatiboki okerra.

Psikologia eta materialtasuna afektu eta testura mailan aztertzea bada halaber gabeziak nahiz subjektu/objektu edo bitarteko/helburu zentzuzko dualtasunek markatu gabeko esparru kontzeptual batean sartzea.

Badirudi *Touching Feeling*eko saiakeren arteko desberdintasunek elkarri lotutako zenbait narratiba marratzen dituztela, baina haien esanahia ez dut oso garbi ikusten. Aipatu bezala, saiakeren sexu interesa beherantz doa, antza, baina pedagogiaren zentzua sakondu egiten da. Saiakera guztiek lotura handia dute afektuarekin, baina liluratuta nindukan afektu berezi batek, lotsak, afektu teoriaren basoan sartzera bultzatu ninduenak, bertan behera utzi ninduen han. Liburua amaitzean, afektu positiboak (interesa-zirrara, eta, batez ere, gozatzea-poza, Tomkinsen eskemaren arabera) askoz interesgarriagoak dira. Haiek ez bakarrik ondorio zoriontsuak, autotelikoak ere izatea bateragarria dirudi liburu honek budismoarekin duen loturarekin. Halako narratibak elkar txirikordatu egin badaitezke, emaitza nekez izango da *A Dialogue on Love* liburuan osatzen saiatu nintzen narrazioa baino linealagoa. Hartan, terapeutaren oharrek, amaieratik hurbil, aipatzen dituzte

ZETAZKO LANA –OIHALA BESTE OIHAL MOTA BAT BIHURTZEN/
HAURTZAROKO TAPAKIA SATENEZKO ERREMATEAREKIN /
LARRUAZAL GOSEA / ANAIAREN BURKOA «PIFFO», HAREN LERDEA,
HAREN GAINEAN «ARRAINAK EGITEA» / AGIAN ESANAHIA DA
GURE LARRUAZALAK NOLAKO UKI GOSEA ZUEN; BAITA BALIABIDE
AUTONOMOAK GARATZEKO BAIMENA DUGULA /. . . . ESTIMU
HANDITAN IZATEA ZETAZKO ZATIAK / NOLA EDO HALA ZETA ETA KAKA
ELKARREKIN DOAZ– HONDAKINAK, BURUASKITASUNEZKO FANTASIAK,
DEPENDENTZIARIK GABE, LASTOTIK URREA HARILKATZEA. (206)

JUDITH SCOTT, EHUNGINTZA ARTISTA

*Touching Feeling*eko frontispizioko argazkia izan zen liburua daukan forman osatzera bultzatu ninduen katalizatzailea. Leon A. Borensztein Kaliforniako argazkilariak Judith Scotti (1943) bere lanarekin batera egindako argazki askotako bat da.

Argazkiko eskultura nahiko tipikoa da Scotten lana eraikitzeari dagokionez: material handi heterogeneoz osatutako muin bat kolore askotako hari, listari, xingola, soka eta bestelako zuntz pasaratutako geruza askotan

bildua, eta emaitza hiru dimentsioko forma iraunkor bat da, gehienetan ardatz bakarrean taxutua, haren bihurtune eta planoak biomorfikoki bateragarriak dira, eta haren eskala alderatu egin daiteke Scotten gorputzarekin. Haren artean agertzen diren lorpen formalen artean daude fardel erraldoiak lotzeko haren teknika asmotsuak, hiru dimentsioko lerro eta bihurtune konplexuak eraiki eta modulatzeko era sotila, eta kolorearen erabilera izugarri orijinala, bizia edo motela izan, plano batean hedatu daitekeena, edo bizi distiratu geruza askotako bildukiaren bidez, edo halako zirimiri grafiko bat sortu, jostura enpatiko batez zeharkatua.

Ikusi dudan Scotten lan guztiak presentzia bizi bat du berez, baina argazki horren gaiak barne hartzen du halaber bere lanarekin duen erlazioa, eta ziur aski baita diada hori ikustearekin ikusleak duen erlazioa ere. Niretzat, irudi horretatik subjektu/objektu distantzia bizitzea ez da Scotten eta haren lanaren arteko halako erlazio bat aurreikustea baino gertagarriagoa. Hura eta haren sorkariak elkarren aurrean aurkezten dira, ongietorri handi bat emanez bezala. Haien hurbiltasunaz, badirudi ikusmena desagertu egiten dela ukimenaren mesedetan. Ez bakarrik artistaren eskuak eta besaurre biluziak, haren aurpegia ere lanpetuta dago testura prozesatzen. Gurasoek eta haurrek, bikiek (Scott bikia da) edo amoranteek komunikatu egin lezakete halako abstrakzio haptiko baten bidez. Ez dago bi forma horien «hurbiltasuna» ulertzeko modu bakar bat, haietako bata besteak egina izanagatik ere. Argazkia blaitzen duen afektua misteriotsua da, edo behintzat anizkuna, kalitateari dagokionez: Scottek bere eskultura besarkatzen duen samurtasun nabarmenez gain, haren gihar erlaxatuek eta buru makurtuak nahigabea iradokitzen dute, adibidez, eta gauza bera egiten du beharbada haren aurpegiera eskulturaren kontra zapaltzen duen axolagabekeriak. Haren besarkadaren altuerak eta zabalerak bere burua kontsolatzen ari dela iradoki lezakete, edo eskulturatik espero duela kontsolamendua, bereganantz apur bat makurtuta dagoelako bera zutik dagoen bitartean; haren besarkadaren zabalera erlaxatua ere haren Down sindromearen sintoma bezala interpretatu liteke. Baina forma biribilaren lotutasunik gabeko goialde eta behealdeak dira tonu soileko zuri-beltzeko argazki hau aldi berean garaipen, poza eta lasaitasunez beteta dagoela iradokitzen duten alderdi ikusgaiak.

Halabeharrez, arte «arrotzaren» [outsider] esparruan arestian

hartutako aintzatespena baino lehenago eta geroago, Scotti diagnostikoak egin zaizkio behin eta berriz gabezia terminoetan. Haren gorrieriak, adin ertaina izan arte diagnostikatu ez ziotena, haren atzerapena muturretara joatea ekarri zuen; haurtzaroan «hezi ezina» bezala kalifikatua, biltegitatu egin zuten Ohioko babesetxe izugarri arduragabe batean hogeita hamabost urtetik gora (McGregor 49-51; Smith). Artista gisa aurrera egin zuenean ere, Kaliforniako Creative Growth Art Centerren laguntzaz, haren irakasleadore emaile eta hunkituak, Sylvia Seventy ehun-artistak, esplikaziorik gabe, erabaki zuen daltonikoa zela (McGregor 69) eta ezin zuela berez erabaki lan bat noiz zegoen bukatuta (72). Eta John MacGregor, haren bultzatzaile nagusia izan zen Art Bruteko kritikari psikoanalista, obsesionatuta dago Judithek in ezeztapen enfatikoaren hizkera erabiltzearekin: «Ez dago aukerarik ñimiñoena ere Judithek bere lanaren emaitza, azken forma, aurreikusi dezan» (33); «Judithek ez ziharduen inondik inora ere artelanak ekoizten (72); «Judith ez da inola ere konturatzen eskulturaren existentziaz» (92); «forma abstraktu, ez-figuratiboa ideia konplexu bat da, Judithek inondik ere kontzeptualizatu ezin duena» (109). Antza denez, MacGregorrek uste du halaber Scottek arte jarduera –areago, agian haren jarduera osoa– «inkontziente» jo behar dela, beharbada hizkuntzarik erabiltzen ez duelako (106, III).

Ez dut uste derrigorrean ez kaltegarria denik etorri handiko hiltun dohatu batek, hezkuntza aukera guztiak izan dituen, Judith Scottena bezalako argazki batekin, oeuvre batekin eta narratiba batekin halako indarrez identifikatzea. Baina, arraroa badirudi ere, uste dut Scottekin dudak identifikazioa gutxiago dela halako gabezia bat duelako, altxor ilun bat gordetzen duelako baino, edo altxor horrek nahita gordetako pertsona bat delako baino. Scottekin talentuaren drama areagotu egiten du, inondik ere, haren historia izugarriak, hizkuntzatik bakartua izateak, frustrazio kognitibo suposatzen dut sarritan gertatutakoek. Baina haren kontzientzia estetikoaren osotasun nabarmena, konfiantza tematiz ekoizpen autotelikoan sartzea, haren gaitasun artistikoa bere lehengaiei erantzutea zaila baina atsegingarria izango den galdera berri, kezkarriak egiten jarraitzeko... ematen du pribilegio horiek ezgaitasunaren ardatzarekiko ortogonal den angelu batean irradatzen dutela.

Barbara Herrnstein Smithek gogoko du «zahartaro sublimearen»

idea, berak dioen bezala, eta ni ere beti sentitu naiz hark erakarrita. Solasean erabiltzen du jende zahar baina distiratsuen portaera gutxi-asko ulergarriak deskribatzeko, artistak, zientzialariak edo intelektualak izan, zeinetan hizkuntza sortzaile baten iradokipen hutsa azkenik agertzen dela baitirudi adeitsutasunaren, aukera egokiaren edo batzuetan are koherentzia zentzua zegoen lekutik. Nori ez litzaioke gustatuko zahartaro sublime batera pasatzea? Scottengandik hurbil sentitzen naiz nabarmena delako ehunek eta testurek balio berezi bat -bai harremanei dagokienez, baita, nolabait, ontologikoki ere- duten sentsibiltate bat partekatzen dugula. Baina esploratzea eskatzen duen opari preziatu batekiko samurtasuna aitortzen dudanean suposatzen dut aldi berean identifikatu egiten naizela argazki horretako tristezia eta makalaldia oso adierazgarriekin. Beharbada Scotten argazkia katalizatzailea izan zen artikulatzen zaila den liburu honetarako arrazoi batengatik, besteak beste: osotasun afektibo eta estetiko bat transmititzen du, frustrazio kognitibozko esperientziekin ere erlazionatu daitekeena. Liburu hau idaztean etengabe sentitu naiz nire ergeltasunaren mugen kontra estutua, opari transmitigarrien hurbiltasun prometagarria sentitzen nuen bitartean ere.

OHARRAK

1 Orain arte, ohiko erabilerari eutsiz, «afektua» eta «emozioa» era berean erabili ditut. Baina atal honen gainerakoan «afektuetan» zentratuko naiz, Tomkinsen zentzuan. Tomkinsentzat, afektu kopuru mugatu bat -taula periodiko bateko osagaiek egiten duten antzera- konbinatzen dira normalean emozioak esaten zaienak sortzeko, eta horiek, osagaietatik sortutako substantzia fisikoen antzera, teorian kopuru mugagabekoak dira. Ikus Tomkins, *Shame* 34-74.

2 Testuinguru honetan, Tomkinsek ez du «askatasun» hitza erabiltzen banako baten buruaren jabetasunaren zentzuan; askatasunaren eta konplexutasunaren arteko erlazioaren haren eztabaida erabilgarriako, ikus *Shame* 35-52, gorago «agentzia maila ertainak» deitu diedanei sistemen teoriaren ikuspegi baterako zenbait tresna eskaintzen baitira bertan.

3 Jabetu *erantzunak*, ez estimuluak, dauzkala berezko kalitate afektiboak. Horrek alde garrantzitsu bat agertzen du konduktistekiko; Tomkinsek ez zeukan egonarririk haien ideiekin, nahiz eta, XXI. mendeko irakurleentzat, haren idazkerak haien oihartzunak ekarri.

IRAKURKETA PARANOIKOA ETA IRAKURKETA KONPONTZAILEA, EDO HAIN PARANOIKO ZAUDE, ZIUR ASKI USTE DUZU SAIAKERA HAU ZUTAZ DELA

Eve Kosofsky Sedgwick

Hies izurritearen lehen hamarkadako erdialdean nonbait, laguntza eskatzen ari nintzaion nire lagun bati, Cindy Patton aditu eta ekintzaileari, hiesaren balizko historia naturalaz. Garai hartan nonahi espekulatzen zen ea birusa nahita sortu edo zabaldu zen, ea GIBa kontroletik ihes egindako estatubatuar armadaren plan edo esperimentu bat zen, edo agian funtzionatzen ari zela hasieratik nahi zen bezala. Odol produktuen trafiko globalaren geografia eta ekonomiaren inguruan gauza mordo bat aditu ondoren, azkenean, nolabaiteko gogo biziz, Pattoni galdetu nion ea zer irizten zien birusaren jatorriaz bolo-bolo zebiltzan zurrumurru zorigaitzoko haiei. «Haren zabalpenaren lehen fasean ustekabekoa edo nahita egindakoa izan zitekeen», esan zidan. «Baina kosta egiten zait horretan interesa hartzea. Hau da, konspirazio baten osagai guztiez seguru geundela ere suposatuz, hots, afrikarren eta afroamerikarren bizitzek ez dutela deus balio Estatu Batuen begietan; gay gizonak eta droga erabiltzaileak mespretxatuak direla, zuzenean gorrotatuak ez direnean; militarrek nahita ikertzen dituztela etsai moduan ikusten dituzten zibilak hiltzeko moduak; agintean dagoen jendeak patxada handiz hartzen duela ingurumen eta populazio alorreko aldaketa katastrofikoaren probabilitatea. Gauza horietaz guztiez seguru bageunde ere, zer jakingo genuke, orain ere ez dakigunik?».

Solasaldi hartatik joandako urteetan, gogoeta ugari egin dut Pattonen erantzun hartaz. Halako pesimismo atsegin hotz batez aparte, uste dut hartan ahalungarritik aurkitu dudana izan dela gutako askok «susmoaren hermeneutika» etiketa jartzen diogun bagage intelektualaren zenbait osagai deslai elkarrekiko erlazio historiko eragin edo gaindeterminatutik askatzeko aukera iradokitzen duela. Pattonen iruzkinak iradokitzen du norbaitek zapalkuntza handi eta benetan sistematikoaren inguruan iritzi nabarmen haserrea izateak ez duela nahitaez behartzen pertsona hori ondorio epistemologiko edo narratiboak dituen bide bat hartzera. GIBen

jatorria edo hedapena *errealitatean* estatuak lagundutako konspirazio batek eragin *izan zezakeela* jakiteak, ezagutza hori bereizi egin daiteke hies ekintzaile intelektual edo talde jakin baten energia halako balizko azpijoko bat ikertzen eta agerian uzten hobeto erabil zitekeela dioen kontutik. Izan zezakeen, agian bai eta agian ez. Etikoki oso tenkatua izan arren, aukera ez da hain begien bistakoa; ikertze eta agerian uzte proiektu oso konbentzigarri horri ekitea edo ez erabaki estrategiko eta tokiko bat da, ez nahitaez agindu kategoriko bat. Pattonek eman zidan erantzunak espazio ireki bat zirudien bertan mugitzeko «Ezagutza berezi bat egia da? Eta nola jakin dezakegu?» galdera nahiko obsesibotik ondoko galderetara: «Nola *eragiten* du ezagutzak?» Hura bilatzeak, lortzeak eta agerian uzteak, jada badakigun ezagutza bat berriro hartzeak? Labur esanda, *nola* da ezagutza performatiboa, eta nola mugi gaitezke modu onenean haren kausen eta ondorioen artean?

Suposatzen dut honek epifania nahiko arrunt bat iruditu beharko lukeela: ezagutzak *egin* egiten duela, besterik gabe *izan* baino gehiago, ikastea nahiko ohikoa dela. Hala ere, badirudi halako aurkikuntzen benetako indarraren parte handi bat moteldu egin dutela formulei beraiei halako garrantzi handia eman dieten teoria kritikoaren molde berberen ohiko praktikek. Bereziki, litekeena da Paul Ricoeurrek era ospetsuan «susmoaren hermeneutika» esaten zion hartan gorpuztutako ohitura kritiko oso emankorrek –ohitura kritiko oso zabalduak, agian dagoeneko kritikaren beraren ia sinonimo bilakatuak- beharbada tenteltze albo ondorio ez bilatu bat izan dutela: agian zaildu egin dute, erraztu baino gehiago, edozein ezagutzaren eta haren ondorio narratibo/epistemologikoen arteko tokiko harreman kontingenteak errazteko bilatzaileari, dakienari edo kontatzen duenari.

Ricoeurrek susmoaren hermeneutikaren kategoria sortu zuen Marx, Nietzsche, Freud eta haien ondorengo intelektualen posizioa deskribatzeko «esanahia berreskuratzearen hermeneutika» filologiko eta teologikoa bezala hermeneutika diziplinario alternatiboak» ere barne hartzen zituen testuinguru batean. Formulazio horietan lehenak eskaintzean, haren asmoa deskribatzailea eta taxonomikoa zen, aginduzkoa baino gehiago. Alabaina, AEBetako arestiko teoria kritikoaren testuinguruan, zeinean Marx, Nietzsche eta Freud berez kritika Historiko Berri, deseraikitzaile, feminista,

queer eta psikoanalitikoaren korrante nagusiaren genealogia nahikoa dela pentsatu ohi baita, susmoaren hermeneutika bat aplikatzea ulertzen da, nik uste, agindu moduan, zenbait aukeraren arteko aukera bat bezala bainoago. Esaldiak badu zerbait Frederic Jamesonen «Hurbildu beti testuinguru historikora» estatus sakratutik, eta, hura bezala, nekez egokitzen da Legearen tauletan duen posizio berrian. Hurbildu testuinguru historikora *beti*? Zerk izan lezake zerikusi gutxiagorik testuinguru historikora hurbiltzearekin «beti» adizlagun aginduzko atemporalak baino? Gogora ekartzen dizkit pegatina haiek, autoetan jartzen zirenak eta besteei aholkatzen zietenak «Agintea zalantzan jarri». Aholku ezin hobe, beharbada alferrik galdua auto bati itsatsitako paper zerrenda batek agintzen duenari jaramon egiten dion edonorentzat! Aginduzko esparruak gauza bitxiak eragiten ditu susmoaren hermeneutikan.

Ez da harritzekoa egungo praktika kritikoaren aurrean susmoaren zentraltasun metodologikoak aldi berean berarekin ekartzea paranoiaren kontzeptuaren lehentasuna. Freuden Schreber epaile paranoikoaren inguruko saiakeraren azken paragrafoetan aipatzen da Freudek «antzekotasun harrigarria» ikusten duela Schreberren jazarpen mania sistematikoaren eta Freuden teoriaren beraren artean. Izan ere, Freudek gerora orokortu egingo zuen, eta ospetsu bihurtuko, ezen «paranoikoen eldarnioek kanpo antz eta barne kidetasun desatsegin bat [dutela] gure filosofoen sistemekin», eta azken haien artean bere burua sartzen zuen (12:79, 17:271). Bere maltzurkeria gorabehera, egia izan liteke paranoiaren eta teoriaren arteko balizko bat-etortze hori Freudek desatsegin jotzea; hala balitz, baina, dagoeneko ez da desatsegin jotzen. Beharbada halako bat-etortze baten artikulazioa ekidinezina izan da, edonola ere; Ricoeurrek ohartarazten duen bezala, «Marx, Nietzsche eta Freudentzat kontzientziaren funtsezko kategoria ezkutuan/agerian edo, nahiago bada, simulatu/ageriko erlazioa da. (...) Hala, Marxen, Freuden eta Nietzscheren ezaugarri nabarmena da kontzientzia faltsuaren prozesuaren eta dezifratzeko metodoaren inguruko hipotesi orokorra. Biak elkarren ondoan doaz, susmoak dituen gizonak gizon maltzuraren faltsutze lana baitarama ifrentzuan» (33-34).

Susmoak dituen gizona ziria sartzen gizon maltzurari: Freud osteko pentsalarien eskuetan, paranoia diagnostiko bat baino gehiago bihurtu

da, ezustean bezala, sendabide. Zapalkuntza sistemikoaren ebidentzia aurkitzeko eldarniorik jasatea beharrezkoa ez den mundu honetan egoera paranoiko kritikoa *ez den* edozerk ematen du gaur egun tolesgabe, zurikeriazko edo atsegin-emaila. Nik behintzat ez dut nahi itzuli «paranoiko» diagnostiko patologizatzaile bat dela dioen adieran, baina asko galtzen dela iruditzen zait ematen duenean paranoiaren inguruko ikerketarekin batera datorrela ikerketa teoriko kritikoa, eta ez kontsideratzea praktika teoriko kognitibo/afektibo mota bat, beste mota alternatibo batzuen artean.

Egun susmoaren hermeneutikak teoria kritikoan oro har duen ospea alde batera utzita ere, queer azterketak agindu paranoikoarekiko barnekotasunezko historia bereizi bat du. Freudek, noski, paranoia adibide guztien jatorria sexu berekoen arteko desiraren errepresioan kokatzen zuen, gizonengan zein emakumeengan. Freuden loturaz egin den erabilera tradizional psikoanalitiko homofobikoa izan da homosexualak paranoiko moduan patologizatzea edo paranoia gaixotasun soilik homosexualizat jotzea. Baina *Homosexual Desire*, 1978an ingelesera itzulitako 1972ko liburua bera, Guy Hocquenghem Freuden formulazioetara itzuli zen haietatik inkongruentzia kaltegarri hori erreproduzituko ez zuen ondorio bat ateratzeko. Paranoiak sexu bereko desiraren *errepresioa* islatzen baldin badu, arrazoitzen zuen Hocquenghemek, orduan paranoia leku ezin hobe da argitzeko ez homosexualitatea bera, freudar tradizioan bezala, ezpada haren aurkako zapalkuntza homofobiko heterosexistaren mekanismoak, hain zuzen ere. Paranoiaren kontzepzioak argitzen duena ez da nola funtzionatzen duen homosexualitatea, homofobiak eta heterosexismoak nola funtzionatzen duten baizik; laburtuz, ulertzen baldin bada zapalkuntza horiek sistemikoak direla, nola funtzionatzen duen munduak.

Halaxe bihurtu zen paranoia teoria antihomofobikoaren *aztergai* kutuna 80ko hamarkadaren erdialdean. Nolatan pasatu zen hain azkar estatutu hartatik haren *metodologia* baimendu bakarra izatera? 80ko hamarkadan neronek eta beste kritikari batzuek idatzitakoak aztertzen aritu naiz, trantsizio horren jatorriak berraurkitu nahian; izan ere, trantsizio horrek aztertzea eskatzen du egun, baina bere garaian nik uste munduko ekintza naturalena zirudiela. Esprikazioaren parte bat paranoiaren ezaugarri batean dago. Modu sinplean esanda, paranoiak kutsagarria izateko joera du; zehatzago esanda, paranoia harreman simetrikoak

eraikitza bideratuta dago, eta horretarako joera du, bereziki epistemologia simetrikoak eraikitzekoa. Leo Bersani idazten duen legez, «Interesa piztea da irakurketa paranoiko bat bermatzea, inspiratzen ditugun interpretazioen inguruan halabeharrez susmoak izan behar ditugun bezalaxe. Presentziaren bikoitzeta interpretatzaile saihetsezin bat da paranoia»(188). Lapur bat jartzen du (edo, beharrezkoa izanez gero, bera bihurtzen da lapur) lapur bat harrapatzeko. Maltzurkeria mugiarazten du susmoaren aurka, susmoa maltzurkeriaren aurka; «bat ezagutzeko bat behar da». Pentsatzen ari dena irakurtzen diodala sinetsita dagoen neskalagun paranoiko batek pentsatzen ari naizena irakurtzetik daki hori; idazle susmabera ere izanik, beti agertzen da plagiozko delitu agertokietan, dela gaizkile gisa edo biktima gisa; lankide borrokalaria ere badenez, imajinatzen nau ez bakarrik bera bezain aditua kalumnia alorreko legerian, baizik eta denboraren joanaz horixe bihurtzen nau. (Bide batez, adibide hauek guztiak asmatuak dira).

Kontuan hartuta paranoiak ustez erlazio bereziki hurbila duela homosexualitatearen inguruko dinamika fobikoarekin, orduan agian estrukturalki saihetsezina izan da lan antihomofobikoan eskuragarrien eta emankorrenak izan diren irakurketa praktiken artean irakurketa paranoikoak izatea. Baina arrazoi historiko eta estrukturalak egongo ziren hala gertatzeko, ez baita horren erraza termino estrukturalak edukitzea metodologia paranoikoen lehentasun sarrirako queer ez diren arestiko proiektu kritikoetan, hala nola teoria feminista, teoria psikoanalitikoak, deseraikitzea, kritika marxista edo Historiagintza Berria. Paranoiaren inguruko azken aldiko eztabaidan 60ko hamarkada amaierako esaldi ezagun bat agertu da: «“Paranoiko izateak ez du esan nahi zure atzetik ez dabilzanik”» (Adams 15). Egia esan, sinesgarria dirudi axioma horren bertsioaren bat (agian «Paranoiko batek ere etsaiak izan ditzake», Henry Kissingerrek esana) hain errotuta egotea gerra osteko haurren garunetan, non etsaigoaren epistemologiaren inguruko jakintza berezi bat daukagun ilusio jarraitua eskaintzen baitigu. Nire irudipena, berriz, da formulazio konstatibo hori bota dezakegula aginduzko indar nabarmen bat izango balu bezain suharki: paranoikoek ere etsaiak dituztela dioen oharra erabiltzen da haren ondorio guztiz beharrezkoa izango balitz bezala «beraz, *ezin zara inoiz nahikoa paranoiko izan*».

Baina jatorrizko axiomaren egiazko balioa, benetakoa dela

suposatuta, ez du hain begien bistako egiten agindu edo agindu paranoikoa. «Paranoiko izateak ez du esan nahi etsairik ez duzunik» entzunda, norbaitek ondorioztatu lezake paranoikoa izatea ez dela etsaiengandik libratzeko modu eraginkorra. «Beraz, ezin zara inoiz nahikoa paranoiko izan» ondorioztatu beharrean, pertsona horrek pentsa lezake «baina orduan etsaiak edukitzeak ez du esan nahi paranoikoa zarenik». Hau da, berriro ere: norbaitek zapalkuntza sistemikoen inguruan ikuspegi argi bat izateak ez du *intrintsekoki* edo *derrigorrez* ekartzen pertsona hori ondorio epistemologiko edo narratibozko sorta batera. Paranoikoa ez izateak (eta, jakina, termino hori arreata askoz handiagoz definitu beharko dugu), paranoikoak ez diren ezagutze moldeak praktikatzek ez du, berez, ondorioztatzen zapalkuntzaren errealitate, pisu edo etsaigoaren ezeztapena.

Nola ulertu behar dugu paranoia halako moldez, non kokatu egin baitezakegu praktika epistemologiko bat bezala, beste batzuen, alternatiboen, artean? Freudenak ez ezik, helburu horretarako formulazio egokienak lirudikete Melanie Kleinenak eta (paranoia molde afektiboa bezain kognitiboa den neurrian) Silvan Tomkinsenak. Kleinengan, bereziki atsegingarria iruditzen zait *posizioen* kontzeptua –posizio eskizoide/ paranoikoa, posizio depresiboa- nola erabiltzen duen; alegia, esate baterako, normatiboki ordenatutako *faseak*, *egitura* egonkorak edo diagnostiko alorreko *nortasun motak* erabili beharrean. Hinshelwoodek bere *Dictionary of Kleinian Thoughten* honako hau idazten du: «“posizio” terminoak egoak bere objektuekiko hartzen duen jarrera tipikoa deskribatzen du. (...) [Kleinek] posizio ideiaren bidez, transmititu nahi zuen joan-etorriko prozesu askoz malguago bat baten eta besteen artean, eskuarki garapen faseetakoren batera erregresioa egitea esaten zaiona» (394). Kleinar *posizioetan* inplizitu dagoen joan-etorriko mugimendu malgua baliagarria izango zait *praktika* kritiko paranoiko eta konpontzaileen gaineko eztabaidan, ez ideologia teoriko gisa (eta inola ere ez nortasun egonkorreko kritikari motak bezala), baizik eta harreman alorreko jarrera aldakor eta heterogeneoak diren aldetik.

Kleinen kontzeptuaren alde interesgarriena da, nire ustez, posizio paranoikoa ikusten duela balizko beste oso bestelako baten joan-etorriko testuinguruan: posizio depresiboa. Kleinen haur edo helduarentzat, posizio paranoikoa –gorrotoak, inbidiak eta antsietateak markatua, uler daitekeen bezala- izugarritzko eretasunezko posizio bat da batek bertan era

defentsiboan inguratzen duen mundutik proiektatu, haiek eratu eta handik hartzen duen objektu partzial gorrotozko eta bekaiztiek dakartzaten arriskuen aurrean. Alderantziz, posizio depresiboa haurrak edo helduak soilik tarteka, eta askotan oso epe laburrez, bizitzen duen lorpen antsietate-aringarri bat da: posizio horretatik, berriz, posiblea da nork bere baliabideetara jotzea objektu partzial izugarriak elkartu edo «konpontzea» eta osotasun bat bihurtzea; baina, azpimarratuko nuke nik, *ez nahitaez aurretik existitzen zen osotasun baten gisara*. Norberaren nahierara elkartu ondoren, objektu asebetegarri berria eskura dago bai harekin identifikatzeko, bai norberari elikadura eta osotasuna eskaintzeko. Kleinek prozesu konpontzaileari deitzeko izen bat, besteak beste, maitasuna da.

Kleinen posizioen nozioari atxiki zaizkion ezegonkortasuna eta elkarrekiko inskribatzea kontuan hartuta, ni ere, proiektu honetan, interesatuta nago buru-aitortutako proiektu kritiko paranoikoetan eragina duten –ziur naiz- praktika konpontzaile indartsuei justizia egiten, baita jakintza eta enuntziatu ez paranoikoetarako sarri beharrezkoak diren eskakizun paranoikoetan ere. Adibidez, Pattonek eman zidan erantzun patxadatsua, GIBen jatorriaz galdetu nionean, ikerketa askotan oinarritzen zen, berarenak eta beste jende batenak, eta haietako askok egitura paranoikoa izatea eskatzen zuten.

Egokitasunagatik, erakusten ditudan adibideak joan den hamarkadako bi azterketa eragingarritatik atera ditut, bata gutxi gorabehera psikoanalista eta bestea Historigintza Berriari dagokiona; baina hori egiten dut egokitasunagatik baino gehiagotik, bi azterketak liburu banatik datozelako (Judith Butlerren *Gender Trouble* eta D.A. Millerren *The Novel and the Police*), haien garrantzia nire pentsamenduaren eta gehien interesatzen zaizkidan mugimendu kritikoen garapenean haien indar eta eredugarritasun nabarmenaren adibideak baitira. Gainera, haietako bakoitza, eta interesgarria da, queer teoriaren zenbait adarrekiko erlazio esan gabe edo nabarmen marjinal, baina atzera begira jatorrizko eta baimentzaile batean kokatzen dira. Azkenik, neure burua baimenduta ikusten dut, bi liburuok ez direlako jada beren egileen oso adierazgarriak edo arestian idatzitakoak; beraz, haien irakurketa praktiken inguruko oharrek ihes egin liezaiokete, hala espero dut, egilearen izenari alegorikoki bezala itsatsiak izateari.

Lehenengo eta behin, eztabaida honetatik kanpo utzi nahi nuke alde batetik paranoiaren eta bestetik demenzia goiztiarra (Kraepelinek),

eskizofrenia (Bleulerrek), edo, eskuarki, megalomania edo psikosia esaten zaien egoeren arteko edozein gainjartze. Laplanchek eta Pontalisek ohartarazten duten bezala, psikiatriaren historia gainjartze horren zenbait azalpen proposatu dituzte: «Kraepelinek garbi bereizten du paranoiaren eta dementzia goiztiarraren artean; Bleulerrek dementzia goiztiarraren, edo eskizofrenien taldeko azpikategoriatzat jotzen du paranoia; Freudi dagokionez, paranoiaren aterkipean dementzia goiztiarraren molde paranoiko delako jakin batzuk hartzeko prest dago. (...) [Adibidez, Schreberren] “dementzia paranoiko” kasua paranoia hutsa da funtsean [eta, beraz, ez eskizofrenia molde bat] Freuden begietan» (297). Kleinen geroako idazlanetan, bien bitartean, psikotiko antzeko jazoera mentalak gertatzea fenomeno unibertsala da haurrengan zein helduengan; beraz, paranoia bezalako mekanismoek lehentasun ontologikoa dute dementzia bezalako kategoria medikalen aurretik. Urrats hori aldeztu aurretik azpimarratu nahi izatearen arrazoia da, berriro ere, egiazko balioaren auzia ondorio performatiboaren auzitik hipotetikoki askatzen saiatu nahi dudala.

Esaten ari naiz praktika paranoikoak zalantzan jartzeko arrazoi nagusiak ez direla haien susmoek eldarnioen eragina jasan dezaketela edo okerrekoak izan daitezkeela. Aldi berean, estrategia paranoikoak erabiltzearen arrazoietako batzuk ez direla benetako jakintzarako sarbide berezi bat eskaintzen duten aukera eskaintzen dutela. Jakintza bilatu, aurkitu eta antolatze bide *bat* dira, beste bide batzuen artean. Paranoiak ongi ezagutzen ditu gauza batzuk, eta beste batzuk gaizki.

Orain testuinguru honetan paranoiaz ulertzen dudanaren robot marrazki baten antzekoa egiten saiatuko naiz; ez naiz ari diagnostiko diferentzialezko tresna batez, praktikan desberdintasunak hobeto ikusteko tresna batez baizik. Hona nire atalak:

Paranoia *iragarlea* da.

Paranoia *bihurkari* eta *mimetikoa* da.

Paranoia *teoria indartsu bat* da.

Paranoia *afektu negatibo*en teoria bat da.

Paranoiak *desestaltzean* du fedea.

PARANOIA IRAGARLEA DA

Paranoia iragarlea dela garbi geratzen da fenomenoaren edozein deskribapen eta teoriatan. Paranoiaren lehen betebeharra da *Ez dezagun ezusteko txarrik izan*, eta bai, ezusteekiko ezinikusia da, itxuraz, paranoiaren eta per se ezagutzaren arteko hurbiltasuna lotzen duena, epistemofilia eta eszeptizismoa barne. D.A. Millerrek *The Novel and the Policen* ohartarazten du: «Ezustea (...) da zehazki paranoikoak ezabatu nahi duena, baina bada halaber, gertatuz gero, pizgarri beldurgarri baten modura bizirauten duena: ezin da inoiz nahikoa paranoiko egon» (164).

Paranoiaren soilik etorkizunera bideratutako zaintzak, paradoxikoki, denboratasunarekiko erlazio konplexu bat sortzen du, aurrera eta atzera bilatzen duena: ez baitu ezuste txarrik gertatu behar, eta ezuste txar baten aukeraren berri jakitea berez ezuste txarra izango litzatekeelako. Paranoiak eskatzen du berri txarrak gauza jakina izatea beti. Millerren azterketak ere iradokitzen duen moduan, paranoiaren denboran aurrera eta atzera egiteak, hasiera batez, mugagabeak dira. Agian hortik datoz, iradokitzen dut, Butlerrek *Gender Troublen* emandako azalpen errepikatu eta zehatzak esanez ezin izan dela izan ezein une genero desberdintasunaren Lege totemizatzailea ezarri baino lehenago; hortik dator haren zaintza artega, halako aurreko une ezinezko baten oroiminaren arrastoen bilaketa, beste teorizatzaile batzuen idazlanetan. Ezein garai ezin izan liteke goiztiarregia batek jadanik jakiteko, jada saihetsezina izateko gauza txarren bat gertatuko zela. Eta ezein galera ezin egon daiteke urrunegi etorkizunean behin-behineko hustea eskatzeko.

PARANOIA BIHURKARI ETA MIMETIKOA DA

Paranoiaren epistemologia simetrikoranzko tropismo kutsakorraz ohartaraztean, egin dudan bezala, paranoiaren zentzu bikoitzean oinarritu naiz, bihurkaria eta mimetikoa gisa. Antza denez, paranoia imitatu beharra dago ulertua izan dadin, eta aldi berean imitazioz bakarrik ulertzen du, itxuraz. Paranoiak proposatzen du *Egin diezadakezun edozer okerrago egin dezaket nik*, eta *Egin diezadakezun edozer lehenago egin dezaket nik*,

neure buruari egin. *The Novel and the Policen*, Miller Freud baino askoz zehatzagoa da proposamen bikoitza bereganatzean: paranoia ulertzen duzula bakarrik ezagutza paranoikoa praktikatzen baduzu, eta paranoiak edozer ulertzeko duen modua hori imitatuz eta gorpuztuz dela. Paranoiak ez duela izan nahi bakarrik *edo* jakiteko modu bat *edo* gauza jakin bat, baizik eta haren ezaugarria dela, bi posizio horiek okupatzeko tropismo temati bat adimentsuki antzezten dela paranoiaren gaineko azterketa funtsezko horretan: «Baina agentea...» izeneko sarrera hasten da esaldi jada asmatu batez, alegia: «“lan teoriko” aspergarriena (edo irekiena) ere arazoetan sartzeko beldur da», barne hartuta «iragartzen tematzen den erasoen arerioekiko» arazoak (vii). Liburuaren azken paragrafoan David Copperfieldez ohartarazten den bezala, Millerrek ere «nonahi iradokitzen du (...) eredu bat, zeinean subjektuak bere burua osatzen baitu diziplinaren “aurka” diziplina hori bere izenez onartuz» (220), edo are bere gorputzaz (191).

Ez dirudi harritzekoa, orduan, paranoia, gaia testuinguru ez diagnostiko batean aipatzen denean, soluzio hipersaturatu batean kristal bat hazten den moduan haztea, ulertzeko era alternatiboen *edo* ulertu beharreko gauzen aukeraren arrasto oro ezabatuz. Geroago zerbait esango dut paranoiaren, zentzu honetan nahitaez «teoria indartsu» bat den aldetik, estatusaren zenbait ondorioren inguruan. Baina are garrantzitsuagoa izan daiteke paranoiaren mimetismoak zein neurritan mugatzen duen borroka politiko edo kulturalako bitartekari gisa duen ahalmena. 1986ko testu batean (zeinean nire erreferentzia inplizitua zer eta gerora *The Novel and the Policen* bildutako testuetako bat baitzen) ohartarazi nuen bezala, «Arazoa hemen ez da bakarrik paranoia maitasun mota bat dela, zeren –nolabait esateko- zer ez da maitasun mota bat? Arazoa gehiago da maitasun mota guztien artean paranoia aszetikoena dela, *bere objektutik gutxien eskatzen duen maitasuna*. (...) Foucaultar paranoikoak egindako lan narratibo ederra, instituzioen aldi bereko kaosak espiraleko ihesaldi eta berratzemateen elkarren osteko diagrama bihurtuz, bada halaber subjektu paranoikoaren bere buruaren eta bere trebezia kognitiboaren iradokizun bat, ordu arte *soilik* narratibotasuna, gorputz bat, kognizioa falta zitzaion egoera *morcelée* baten aurrean» (*Coherence* xi).

Izugarri murriztailea izatea arriskatuz, nik iradokitzen dut mekanismo iragarle mimetiko honek argitu egin dezakeela psikoanaliaren arestiko

erabilera feminista eta queeren ezaugarri deigarri bat. Lacan alde batera utzita, psikoanalista gutxiri otuko litzaieke kontrako teorizatzaile asko –eta haien artean Judith Butler ez da setatiena- bezain zorrotz tematzea abagune psikiko *guztietan* «sexu desberdintasun» eta «falo» egintzen (artifizialak izan arren) zentraltasun halabeharrezko saihetsezin nonahikoa baieztatuz. Halako lan sarri tautologikoetatik zaila izango litzateke ikastea –Freudengandik aurrera, barne hartuz, adibidez, Melanie Kleinen azken idazlanak- pentsamendu psikoanalitikoaren historiak tresna oso desberdin eta heterogeneoak eskaintzen dituela pertsonatasun, kontzientzia, afektu, filiazio, dinamika sozial eta sexualitatearen alderdiez pentsatzeko, zeinak, generoaren eta queertasunaren esperientziarentzat garrantzitsuak izanda ere, askotan ez baitaude inolaz ere «sexu desberdintasunaren» inguruan zentratuta. Horrek ez du esan nahi derrigorrez «sexu desberdintasunaren» aurrekoak direnik: kontzeptualizatu litezke besterik gabe haren ondoan dagoen zerbait bezala, erlazio tangential edo kontingente batez, edo are inongo erlaziorik gabe.

Itxura denez, halako pentsamendu eta espekulazioen biltegia baliabide garrantzitsu bat izan liteke filosofia eta zientzia modernoaren beste proiektu batzuetan bezala psikoanalisian ere ohikoak diren genero reifikazio kaltegarri aurreiritzizkoen bidea ez den beste batez giza bizitzetaz gogoeta egiteko engaiatuta dauden teorizatzaileentzat. Horren ordez, nik uste honako honen antzeko zerbait gertatu dela. Lehenik, azterketa jagole baten bidezko prozesua esan geniezaiokeenaren bidez, feministek eta queerek ongi ulertu dute psikoanalisiaren ezein gai edo esparruz ezin daitekeela esan a priori halako genero reifikazio baten eraginaren aurrean immune denik. Bigarrenez, alabaina –eta iruditzen zait beharrik gabe eta maiz kaltea eraginez- halako a priori immunitatearen gabeziak, edozein abiapuntu ez aurreiritzizkoen absentsiak psikoanalisiaren barruko pentsamendu feministan eraman du hainbat pentsalarik halako estrategia iragarle mimetiko bat erabiltzera, zeinaren bidez beti *suposatu* edo *balitz bezala* hartu behar –are, beharrezkoa izanez gero, inposatu behar- baita sexu bereizketa alorreko halako indarkeria estilizatu bat, arrazoi bakarra izanik ezin dela *baztertu* behin betiko. («Mimetiko» hitza erabiltzean ez dut iradoki nahi genero kategoria psikoanalitiko horiek nahitaez jatorrizkoekiko akritiko edo haien identikoak izan behar dutenik. Butlerrek, beste batzuen

artean, «mimetiko» terminoaren erabilera askoz zabalagoa irakatsi digu). Baina, adibidez, tradizio post-lacandar horretan, antza denez, lehenik eta behin «sexu-desberdintasun» falikoaren inguruan zentralki antolatuta ez dagoen pentsamendu psikoanalitikoa itzuli egin behar da, emaitza distortsio eragileak gorabehera, hizkuntza horretara edozein erabilera teoriko eman aurretik. «Sexu-desberdintasunaz» ez beste bideren batez pentsatzearen aukera kontingenteak agindu paranoiko baten mendean daude: alegia, halako genero reifikazioaren indarkeria ezin bada aldeztu aurretik geldiarazi, gutxienez ez du *ezuste moduan* agertu behar ezin agertoki kontzeptualetara. Pentsamolde paranoiko batean, arriskutsuagoa da halako reifikazioa ez iragarria izatea, askotan eztaba daezina izatea baino.

PARANOIA TEORIA INDARTSU BAT DA

Gisa honetako arrazoiengatik, Silvan Tomkinsen lanean paranoia aipatzen da Tomkinsek «afektu teoria indartsu» esaten dionaren adibideen artean nagusia bezala; kasu honetan, umiliazio, edo umiliazio-beldur alorreko teoria indartsua. 3. Atalean azaltzen den bezala, «teoria indartsu» terminoaz Tomkinsek egiten duen erabilerak –areago, «teoria» terminoaz egiten duen erabilerak– halako balentzia bikoitz bat du. Freudek, demagun, paranoiaren eta teoriaren *arteko balizko antzekotasunez* egiten duen gogoetatik harago doa; Tomkinsen azalpenean, hasierako zibernetikak feedback prozesuetan zuen interesak sendo markatua, jende guztiaren bizitza kognitibo/afektiboak afektu teoria alternatibo, aldakor, estrategiko eta hipotetikoaren arabera daude antolatuta. Horren ondorioz, hasieratik ez legoke desberdintasun ontologikorik Freud baten ekintza teorizatzaileen eta, esaterako, haren analizatuetako batenen artean. Tomkinsek ez du iradokitzen Freuden teorian gogoetazko meta-maila bat ez dagoenik, baizik eta afektua bera, afektu arrunta, funtsean gorpuzduna izan arren, zentralki eratuta dagoela, feedback prozesuaren bidez, halako meta-maila teorikoetara sarbidea duelako. Tomkinsengan ez dago batere distantziarik zenbait zientzialarik eta filosofok afektuen inguruan egindako lan teoriko esplizitu garrantzitsuen zentzuan hartutako afektu teoriaren, eta jende guztiak bere eta besteen afektuak bizitzean eta haiei aurre egitean egindako teorizatze batez ere eragabearen zentzuan hartutako afektu teoriaren artean.

Paranoiari teoria indartsua deitzea da, orduan, hura txalotzea, lorpen handia den aldetik (teoria indartsua da Harold Bloomentzat Milton poeta indartsua zen zentzuan), baina aldi berean hura sailkatzea ere bai. Afektu teoria mota bat da, balizko beste mota askoren artean, eta, Tomkinsek kontatzen duenez, litekeena da gizabanako baten gogo-bizitza elkarri lotutako hainbat mota eta indar desberdineko afektu teoriak osatzea. Esanguratsua da Tomkinsengan teoria indartsua teoria ahularekin dagoela kontrastean, eta alderatze horretatik ez da inolaz ere ondorioztatzen mota indartsuaren alde. Teoria indartsuaren helmenak eta erredukzionismoak –hau da, haren ekonomia edo dotoretasun kontzeptuala- badituzte beren alde onak eta txarrak. Tomkinsentzat teoria indartsu baten ezaugarria ez da, azken batean, zein ongi saihesten duen afektu negatiboa, edo afektu positiboa aurkitzen, baizik eta antolatzen duen domeinuaren tamaina eta topologia. «Edozein teoria orokor», idazten du,

gai da itxuraz oso urrun, bata bestetik eta denak iturri komun batetik, dauden zenbait fenomenoren berri emateko. Irizpide eskuarki onartua da hori edozein teoria zientifikoren indar esplikatzailea balioztatzeko orduan. Teoriak soilik fenomeno «hurbilen» berri eman dezakeen neurrian, teoria ahula da, esplikatu nahi dituen fenomenoen deskribapena baino apur bat hobea. Urruneko fenomeno gero eta gehiago formulazio bakar batean ordenatu ahala, haren indarra areagotu egiten da. (...) Umiliazio teoria bat indartsua da gero eta esperientzia gehiago esperientzia umiliagarrien adibide gisa hartzea ahalbidetzen duen neurrian, alde batetik, edo, halako kontingentziak gertatu aurretik, gero eta iragarpen gehiago ahalbidetzen duen neurrian. (*Affects 2*: 433-34)

Azalpen horrek iradoki bezala, umiliazio teoria bat ez da indartsuago egiten umiliazioari jaramonik ez eginez edo hura apalduz: umiliazio teoria bat indartsuago egiten da hain zuzen ere halakorik egin ez dezakeen neurrian. Tomkinsen ondorioa ez da teoria indartsu oro eragingabea dela –izan ere, eraginkorregia izatera iritsi daiteke-, baizik eta «*afektu teoriak eraginkorra izan behar du ahula izateko*»: «Orain garbiago ikus dezakegu teoria murriz eta ahul batek gizabanako bat afektu negatiboaren aurka taxuz babesten ez badu ere, kosta egiten zaiola ahul irautea hala egin ezean. Alderantziz, afektu negatiboen teoria bat indartu egiten da, paradoxikoki, haren estrategiek behin eta berriz huts egiten dutelako babesteko orduan

afektu negatiboen bizipena arrakastaz saihestuz. (...) Afektu negatiboen esperientzia errepikatu eta itxuraz kontrolik gabe zabalduak eragiten du afektu teoria indartsu esan diogun antolakuntza ideo-afektiboaren indar gero eta handiagoa» (2: 323-24).

Afektu teoria bat da, besteak beste, *selektiboki* aztertu eta anplifikatzeko modu bat; horregatik, edozein afektu teoriak nolabait tautologikoa izateko arriskua du, baina haren helmen zabala eta eskusibotasun zorrotza direla medio, afektu teoria indartsu batek oso tautologikoa izateko arriskua du:

Esan dugu umiliazio teoria monopolistan gehiegizko antolakuntza dagoela. Esan nahi dugu ez bakarrik normalean independenteagoak diren azpi-sistemen arteko gehiegizko integrazioa dagoela, baita azpi-sistema bakoitza gehiegi espezializatuta dagoela ere, umiliazioaren esperientzia minimizatzeko helburuz. (...) Aparatu kognitibo osoa alerta egoera etengabe batean dago aukeren zain, hurbilak zein urrunak, anbiguoak zein garbiak izan.

Sumatzeko edozein ahalegin oso antolaturen antzera, ahalik eta gutxien uzten zaio zoriari. Radarraren antenak etsaiak eraso egitea litekeena dirudien edozein lekutan kokatzen dira. Inteligentzia agenteek elkarrizketa bitxiak ere kontrola ditzakete gauza garrantzitsuren bat sumatzeko aukera baldin badago, edo bi informazio independente elkarrekin hartuta etsaiaren asmoen berri eman dezaten aukera baldin badago. (...) Baina batez ere badago informazioa interpretatzeko modu oso antolatuta bat, zeinaren bidez garrantzitsua izan daitekeena azkar bereizi eta handitu baitaiteke, eta gainerakoa baztertu. (*Affect* 2: 433)

Horrela gertatzen da irakurle bati tautologikoa -hasierako hipotesi berberak frogatu besterik ezin duelako- iruditzen zaion egitura esplikatzaile bat praktikatzaile batek egiaren eta berrespenaren aurrerapen garaile moduan bizi duela.

Baina ohikoagoa da drama honetako paperak nahasiago edo sakabanatuago egotea. Ez dut uste irakurle asko –are gutxiago agian egilea- oso harrituta geratuko zirenik entzutean *The Novel and the Policen* argudio edo teoria indartsu nagusia guztiz zirkularra dela: dena ulertu daiteke espetxe izaeraren alderdi bat bezala, eta horregatik dago nonahi espetxe izaera. Baina nork irakurtzen du *The Novel and the Police* haren argudio nagusia egiazkoa ote den jakiteko? Kasu honetan, sarri «sexu desberdintasunaren» tautologiaren kasuetan bezala, teoria indartsu egiten

duen helmen zabaltasunak berak lekua egiten dio –eta Millerren liburuak probestu egiten du- tonu-ñabardura, jarrera, mundu-behaketa, paradoxa performatibo, oldartze, samurtasun, grazia, irakurketa irudimentsu, bide batez, eta gatz-piper literario ugariri. Sari horiek hain dira tokiko eta sarriak, non gogoak ematen baititu esateko gutxi erlazonatutako teoria ahulen mordo bat gonbidatua izan dela liburuaren teoria indartsu nagusiaren besarkada hipertrofiatuan babes hartzera. Zentzu askotan, halako antolaketa bat gauza onuragarria da, iradokikor, atsegingarria eta oso emankorra; denak gauza bera esan nahi duela tematzeak nola edo hala hori adierazteko dauden bideak errazago intuitzea dakar. Baina ez da beharrezkoa ikasleek eta kritikariek egindako liburuaren teoria indartsuaren berridazketa infinituak irakurtzea ikusteko halaber teoria indartsuen eta ahulen arteko erlazio artikulatu gabe horren mugapen batzuk. Teoria indartsua eta mimetismo bihurkariaren locus den aldetik, paranoia ez da ezer irakatsi ezin badaiteke. Teoria indartsuaren indar oso zabal eta murriztaileak zaildu egin dezake pentsamendu tautologikoa identifikatzea, beharrezko eta ia ekidinezina egiten duen bitartean; emaitza da idazleek eta irakurleek zailtasunak izan ditzaketela sumatzen ea benetako lan kontzeptuala egiten ari den, eta non, eta lan horrek zer nolakoa beharko lukeen izan.

PARANOIA AFEKTU NEGATIBOEN TEORIA BAT DA

Tomkinsek kualitatiboki desberdinak diren afektuen artean bereizketa egiten duen bitartean, helburu batzuetarako elkartu egiten ditu afektuak positibo gisa edo negatibo gisa. Terminu horietan, paranoiaren ezaugarria ez da bakarrik teoria indartsua izatea ahula izan beharrean, baizik eta afektu negatibo baten teoria indartsua dela. Hori garrantzitsua da Tomkinsek gizabanako bakoitzaren baitan elkarrekiko gatazkatsuak izan daitezkeela ikusten duen helburu afektibo nagusiei dagokienez: lehenengo eta behin, bereizi egiten du afektu negatiboa minimizatzen saiatzeko helburu orokorraren eta afektu positibo ahalik eta gehiena bilatzearen artean. (Identifikatzen dituen beste helburu sofistikatuagoak dira afektu-inhibizioa minimizatzea eta aurreko hiru helburuak lortzeko indarra maximizatzea.) Praktika –eta bizitza-gehienetan negoziazio txiki sotilak (nahiz guztien artean indarra izan) daude helburu horien artean, baina afektu negatibo iragarlearen estrategia

monopolistaren indar buru-berresle gero eta handiagoak izan dezake, Tomkinsen arabera, afektu positiboa bilatzearen helburu potentzialki eraginkorra guztiz blokeatzeko eragina. «[Paranoikoak] afektu positiboa bilatzen ahalegintzearen logika bakarra da umiliazioaren aurkako babesa agintzen duela», idazten du. «Afektu positiboa *maximizatzeko* estrategia serio hartzea, aukera sortzen denean hura besterik gabe gozatu beharrean, guztiz pentsaezina da» (*Affect 2*: 458-59).

Antzera, Kleinen 40ko eta 50eko hamarkadetako idazlanetan benetako lorpena da –posizio aldaketa garbia, sarri arriskutsua- haur edo heldu batentzat *plazer bilaketa* jarraitu baterantz mugitzea (posizio depresiboaren estrategia konpontzaileen bidez), posizio paranoiko/ eskizoideak eskaintzen dituen estrategia buru-berresleak bilatzen jarraitu beharrean. Ohikoagoa da ziur aski Kleinen posizio depresiboaren inguruko eztabaidetan azpimarratzea posizio horrek atea irekitzen diola aukera etikoari, bestearen ikuspegi errudun, empatiko moduan, bestea aldi berean on, kaltetu, oso eta maitasuna eta arreta eskatu eta lortzekoa den aldetik. Halako aukera etikoa, baina, oinarritzen da eta espazio-denbora partekatzen du Foucaultek «norberarenganako kezka» deitzen dueneranzko mugimenduarekin, alegia, kezka, sarritan oso ahula, nork bere buruari plazera eta elikadura eskaintzeko, halakorik bereziki eskaintzen ez duela sumatzen den ingurune batean.

Kleinen eta Tomkinsen urrats kontzeptualak hemen Freuden dagozkien hipotesiak baino sofistikatuagoak dira, eta, garrantzitsua da hau, ez hain alderdikoiak. Hasteko, Freudek *plazer bilaketa* eta mina saihestea «plazeraren printzipio» ustez jatorrizkoaren barruan kokatzen ditu, bi asmoak errotik desberdinak izan ezin balitezke bezala¹. Bigarrenez, Freudengan mina galarazteko estrategia hori (antsietatea bezala) zabaltzen da «errealitatearen printzipioa» lortzeko. Hartara, *plazer bilaketa* geratzen da ustezko asmo «natural» baten lur azpiko iturri beti suposagarri, aztertu ezin, agorrezin moduan, eta asmo horrek galdetzen duen gauza bakarra da nola gorde kontrolpean haren bor-bor erreprimitu ezina. Agian beste arazo bat ere badago, zeren freudar eskema horrek ezarri egiten du isilpean agindu paranoiko irrikatsua, mina eta ezustea saihesteko ezintasuna baina halaber ustezko beharra, «errealitatea» direlako, egiazko jakintzaren molde, motibo, eduki eta frogak bakar eta ekidinezina.

Hortaz, Freudengan ez legoke lekurik –buru-eldarnioen kasuan izan ezik- Proustar epistemologiarentzat, zeinaren bidez *À la recherche* narratzaileak, azken liburukian «nire baitan giza pasio, izaera eta portaeren inguruko egia sorta bat elkarri bultzaka» sentitzen baitu, egia *bezala* berrantolatzen ditu «[haiek] *sumatzeak poztu egiten ninduen*» neurrian (6: 303, letra etzana gaineratua). Freudar epistemologia paranoikoan ez da sinesgarria suposatzea egia pozteko aukera ustekabekoa ere izan zitekeela, ezinezkoa da irudikatzea poza egia-aren berrantolatze moduan. Izan ere, edozein ikuspuntutatik zirkularra da, edo antzeko zerbait, suposatzea zerbait jakiteagatik norberaren plazera jakintzaren egia-aren frogatzat har daitekeela. Baina afektu positibo-ko teoria indartsu bat, eta badirudi halako zerbaitetarantz mugitzen ari dela *Berraurkitutako denboraren* narratzailea, ez da *Gatibuan* bere paranoiak, adibidez, irudikatzen duen afektu negatibo-ko teoria indartsua baino tautologikoagoa. (Areago, afektu positiboaren bilaketak teoria oso indartsu bat eratze-ko aukera gutxi dituen neurrian, beharbada tautologiarantzko joera txikiagoa izan dezake). Teoria bakoitzari bere funtsezko motibo desberdina izaten utziz gero –minari aurrea hartzea kasu batean, plazera ematea bestean-, ezin esan daiteke bata bestea baino errealistagoa denik. Are gehiago, ez da nahitaez egia biek «errealitatearen» juzku desberdinak egiten dituztenik: ez da bata pesimista dela eta ontzia erdi hutsik ikusten duela, besteak, optimista izanik, erdi bete ikusten duen bitartean. Galera, oinaze eta zapalkuntzaz betetako mundu batean, litekeena da bi epistemologiak pesimismo sakon batean oinarrituta egotea: izan ere, plazera bilatzearen motibo konpontzailea, Kleinen azalpenaren arabera, posizio depresibo bat lortuta bakarrik iristen da. Baina bakoitzak bilatzen duena –esan nahi baita, bakoitzak *bilatzeko* duen motiboa- oso desberdinak izango dira nahitaez. Alabaina, bietatik jakintza paranoikoak bakarrik dauka bere motibo eta indar afektiboa arbuia-itzeko eta benetako egia balitz bezala mozorrotzeko praktika hain osatu bat.

PARANOIAK DESESTALTZEAN DU FEDEA

Bere motiboaz edozein azalpen emanda ere, paranoiaren ezaugarria da, praktikan, garrantzi berebizikoa egozten diola jakintzaren eraginkortasunari per se; agerian jartzearen jakintzaz ari gara. Beharbada horregatik da jakintza

paranoikoa hain narratiboa, halabeharrez. Instituzioetatik irtendako pertsona batek kalean, hiriko gainerakoek traizionatu eta bere aurka konspiratzen ari direla, bere gutun baliotsuez gainezka dagoen hatzez maiseatutako txostena erakusten dizun bezala, paranoiak ere, hainbestetan famaturiko bere susmoak gorabehera, dihardu bere lana egingo balitz bezala azkenik, oraingoan, bere historia benetan jakinaraziko balu. Entzule iniziatu bat ez hotz eta ez bero geratu ahal izatea, edo kontrako jarrera hartzea, edo agian laguntzarik ez izatea eskaintzeko, ia ez dira aukera moduan aztertzen.

Bitxia da susmoaren hermeneutika bat horren fidakor agertzea desestaltzearen ondorioen inguruan, baina Nietzschek (moralaren genealogiaz), Marxek (ideologiaren teoriaz) eta Freudek (idealen eta ilusioen teoriaz) jada aurkeztu zituzte, Ricoeurren esaldian, «misterioa argitzeko prozedura konbergenteak» (34), eta, beraz, itxurazko fede bat, berez esplika ezina, hala jardutearen ondorioetan. *Gender Trouble*ko eragin handiko azken orrietan, esaterako, Butlerrek argudio programatiko bat eskaintzen du misterioa argitzearen alde, «praktika gay eta lesbianarako foku normatibo bat» den aldetik (124), honako hauen antzekoak esanez: «*dragak* inplizituki *agerian uzten du* generoaren beraren egitura imitakorra» (137); «*sexua eta generoa desnaturalizatu* egiten ditu performance batek» (138); «generoaren parodiak *agerian uzten du* jatorrizko identitatea (...) imitazio bat dela» (138); «genero performanceak *antzeztu eta agerian utziko du* generoaren beraren performatibotasuna (139); «errepikapen parodikoak (...) *desestali egiten du* identitate iraunkorraren eragin fantasmatikoa» (141); «generoaren errepikapen parodikoak *desestali egiten du* (...) genero identitatearen ilusioa» (146); eta «“naturala” denaren erakusketa hiperbolikoak (...) *agerian uzten du* haren estatus funtsean fantasmatikoa» (147), bai «haren funtsezko ez-naturaltasuna desestali» ere (149, letra etzana gaineratua).

Nire ustez, orri horietan gutxiago markatzen du bulkada paranoikoa mimesi bihurkaria azpimarratzeak desestaltzean itxurazko fedea izateak baino. *The Novel and the Policen*en egile hipersusmakorrak kasu honetan orobat mintzatzen da arestiko kritika ez hain interesgarrien protokoloen izenean «diziplina modernoa berezko eskubidez arazo bihurtzeko behar den ikusgaitasun gehiagoren “flasha”» eskaintzen duenean (D.A. Miller, ix); zerbait arazo gisa ikusgai jartzea -batera eta bestera jardutea, baina arazoa

konpondu gabe- gutxienez norabide horretan doan urratsa balitz bezala. Honi dagokionez, behintzat, ez guztiari, baina, *The Novel and the Policen* Millerrek Historiagile Berri eredugarria den aldetik idazten du. Izan ere, neurri harrigarri batean Historiagintza Berriaren erudizioa narratiba bakar, nagusi baten ospean bermatzen da: subjektu moderno liberalaren genealogiako ezkutuko indarkeria desestali eta arazo bihurtzea.

Historiagintza Berria berria zenetik denboraren joanaz, errazago bihurtzen ari da ikustea halako desestaltze proiektu paranoiko bat zein modutan izan daitekeen ematen duena baino historikoki espezifikoa. «Subjektu moderno liberala»: dagoeneko ematen du, edo eman beharko luke, narratiba historikoaren azken helburu bereziko aukera nabarmena ez beste edozer. Non *daude* ustezko subjektu liberal moderno horiek guztiak? Egunero topatzen ditut gradu osteko ikasleak, humanismo liberal unibertsalista sekular baten atzean dauden indarkeria historiko ezkutuko desestaltzen trebeak direnak. Ikasle horien urte sentiberak, haien irakasleen heziketa urteak ez bezala, osorik iragan dira Reagan-Bush-Clinton-Bushen Amerika xenofobo batean, zeinean «liberala», edozer izatekotan, kategoria tabu bat baita, eta «humanismo sekularra» sekta erlijioso marjinalizat jotzen baita errutinaz, biztanleen gehiengo handi batek dioen bitartean harreman zuzena duela aingeruak, Satanak eta Jainkoa bezalako entitate ikusezinekin.

Gainera, *ezkutuko indarkeria desestaltzeko* edozein proiektu interpretatiboren indarra testuinguru kultural baten mendean dagoela emango luke, Foucaulten lan goiztiarretan suposatzen dena bezalakoa, zeinean indarkeria arbuiatu, eta, beraz, ezkutatu egingo bailitzateke. Zertarako denbora alferrik galdu boterearen tranpak agerian uzten, non eta edozein unetan gizonezko beltz gazteen ehuneko 40 zigor-sisteman trabatuta dauden herrialde batean? Estatu Batuetan eta nazioartean, desestaltzea eskatzen duen ezkutuko indarkeria asko egon arren, badago halaber, eta gero eta gehiago, etos bat zeinean hasieratik oso ikusgai dauden indarkeria moldeak ikuskizun eredugarri moduan eskain baitaitezke, sekretu eskandalagarri baten modura desestaltzeko geratu beharrean. Giza eskubideen alorreko eztabaidagaiek, hala nola, tortura eta desagertpenak Argentinan edo bortxaketa sistematikoaren erabilera Bosniako garbiketa etnikoan, markatzen dute, ez ezkutatu edo naturalizatu egin ziren praktika

batzuk desestaltzea, ezpada ikusgaitasunezko egitura desberdinen arteko borroka bat. Alegia, indarkeria *hasieratik* eredugarria eta ikusgarria zenari, esanguratsuki zuzendua, komunitate jakin bateko kideei gaztigu edo izu publiko gisa balio zezan pentsatua, ikusgaitasunezko bere zirrikitua *lekuz aldatu eta birzuzentzeko* (baita hedatzeko ere) ahaleginez egiten zaio aurre.

Bada beste arazo bat praktika kritiko horiekin: susmo eta desestaltze hermeneutika batek zer esan diezaieke indarkeriaren parte handi bat ikusgaitasunak berak eskaintzen dituen formazio sozialei? AEBetako hegoaldeko zenbait estatutan lan behartuak ezarri izanaren arrazoia ez da hainbeste zigortuek lan behartuak egin ditzaten; gehiago da hala egin dezaten jendaurrean. Eta Michael Fayren makilatzea zela-eta Estatu Batuetan Singapurreko justiziaz adierazi zen gogo biziko aldekotasunak agerian utzi zuen irudipen gero eta zabalduago bat: jendaurrean iragarritako estigma lotsagarria dela erremediorik onena gazte setatsuentzat. Aldaketa historiko baten seinale nabarmena da: zigor kapitalaren aurkakoek argudiatu ohi zuten exekuzioak, egitekotan, jendaurrean egin beharko liratekeela, estatua eta ikusleak lotsatzeko lehen ezkutatuta zegoen indarkeria judiziala erakusteagatik. Gaur egun ez dira jada aurkariak, heriotza zigorraren aldekoak baizik, garaitzeko anbizioz beteak, exekuzioetarako lekurik egokiena telebista dela uste dutenak. Zer prezio du kultur kritikarien gogor irabazitako trebeziak ikusgai jartzeko, itxura permisiboen atzean, zapalkuntzaren eta jazarpenaren arrasto ezkutuak?

Badirudi desestaltzean dagoen konfiantza paranoikoa, gainera, xalotasunezko edukigailu mugagabe baten mendean dagoela desestaltze horien ikuslegoa osatzen dutenengan. Zertan oinarritzen da suposatzea edonor harritu edo kezkatu, agian motibatuko duela ikasteak adierazpen sozial jakin bat artifiziala, kontraesanduna, imitatzailea, fantasmatikoa edo are indarkeriazkoa dela? Peter Sloterdijkek ohartarazi bezala, zinismoa edo «kontzientzia faltsu ilustratua» -faltsua dela dakien kontzientzia faltsua, «haren faltsutasuna jada gogoetatsuki moteldua»-, dagoeneko da «jende ilustratuak inozotzat jo ez dezaten arduratzeko modu unibertsalki zabaldua» (5). Zer telebista-gose izan beharko luke batek ideologiak kontraesandunak direla, simulakroek ez dutela jatorrizkorik, edo genero irudikapenak artifizialak direla eskandalagarria iruditzeke? Nik uste

halako zinismo ezaguna, zalantzarik gabe oso hedatuta dagoena, jende gehienaren gogo-ekologia osatzen duten teoria heterogeneo elkarren etsai ugarietako bat dela bakarrik. Desestaltze batzuek, desmitifikazio batzuek, lekukotasun batzuek indar handia dutela (nahiz eta sarritan iragarri gabea izan). Haiek bezain egiazko eta konbentzigarriak diren beste askok ez dute batere indarrik, ordea, eta hori hala den bitartean onartu egin behar dugu halako ekintzen eraginkortasun eta per se norabidean jakintzarekiko duten erlazioan ez beste nonbait aurkitzen direla.

1988an idatziz –hau da, Estatu Batuetan Reaganen bi legealdi oso iragan ondoren-, D.A. Millerrek proposatzen du Foucaulti jarraitzea «gizarte liberalak bere zama bakoitzaz ardura intentsibo eta jarraitua» argitzerakoan» (viii). Baita zera ere! Askoz gutxiago kezkatzen nau nire terapeutak patologiaren bat egozteak nire gogo-osasunerako estaldura gero eta txikiagoa izateak baino, eta egundoko zortea dut osasun aseguruia izanda. Zergen matxinada hasi zenetik, Estatu Batuetako gobernuak –eta gero eta gehiago ustezko demokrazia liberaletakoek- presaka aritu dira bere zamen ardura gainetik kentzen, eta ez dago hutsune hori betetzea proposatzen duen beste erakunderik.

Hori gertatzea, ordea, Historiagile Berrien prosa irakurtzetik edonork espero zezakeen azken gauza da; izan ere, prosa horrek 60ko eta 70eko hamarkadetan goia jo zuen ongizate sekularraren historia oso bat da, eta frogatzen du era gezurtaezin batez zergatik gauzek bihurtu behar duten gero eta gehiago horrela betiko. Ezin zaio leporatu 80ko hamarkadako idazle bati errepublikanoen 1994ko «Contract with America» delakoaren ondorioak aurreikusi ez izana. Baina baldin eta, Millerrek dioen moduan, «Ezustea (...) [ba]da hain zuzen paranoikoak ezabatu nahi duena», onartu egin behar da Historiagintza Berriak, paranoia molde bat den aldetik, huts egiten duela bete-betean. «Gauzak gaizki doaz eta okerrera egingo dute» izpiritua gezurtaezina bada ere, ez du balio iragarle zehatzagorik izan, eta, beraz, ziur aski ezta baliorik ere oposizio-estrategia bat aurrera eramateko. Aldaketak aurreikusteko halako ezintasun azeleratua, gainera, argudiatu izan dudana bezala, prozesu paranoikoaren izaeran dago, zeinaren eragin-esparrua (Historiagintza Berriarena bezala) hedatzen baita bakarrik aurreikusi gabeko hondamendi bakoitzak gauza bat frogatzen duen bitartean, gero eta indar handiagoz, ezetz asmatu: *Ezin zara izan nahikoa paranoiko*.

Richard Hofstadterren 1963ko «The Paranoid Style in American Politics» itzal handiko saiakera gaurko begiekin irakurtzea aldaketa diskurtsibo indartsuaren neurria ikustea da. Hofstadterren saiakera D.A. Miller batek, adibidez, bere irakurleak hezten dituen desmitifikatze paranoiko mota ia-ia erregutzen ari den adostasun liberal atsegin-emaile hertsagarriaren adierazpen gorena da. Haren estiloa mekanikoki inpartziala da: Hofstadterrek eskuinean zein ezkerrean ikusten du paranoia: abolizionista, anti-masoi, anti-katoliko, anti-mormoi, natibista eta populisten zein bankarien eta munizio fabrikatzaileen konspirazioetan sinesten dutenen artean; JFK tiratzaile bakar batek hil zuela zalantzan jartzen duen edonorengan, «ezkerreko prentsa herrikoian, AEBetako gaur egungo eskuinean, eta oraingo arraza eztabaidaren bi aldeetan» (9). Kategoria horiek jende mordo bat barne hartzen duela ematen badu ere, hala ere geratzen da balizko «gu» bat –itxuraz ia mundu guztia barne hartzen duena- erabaki dezakeena mutur horiek halako erdigune egoki, lasai eta ulerbera kontsideratzea, zeinean «gu» denok ados egon baikaitezke, adibidez, nahiz eta «gerra hotzeko (...) ezin konta ahala erabakiei ezin zaie ezer aurpegiratu», «besterik gabe, borondate oneko gizonen akatsak» dira (36). Hofstadterrek ez du arazorik aitortzeko jende edo mugimendu paranoikoek egiazko gauzak sumatu ditzaketela, baina «estilo distorsionatu bat da (...) iritzi distorsionatu baten aurrean erne jarri gaitzakeen balizko seinale bat da, arte munduan estilo itsusi bat funtsezko gustu akatsak adierazi ditzakeen bezala» (6):

Adibide sinple eta eztabaida gutxi sortzen duten batzuek guztiz argitu dezakete [edukiaren eta estiloaren arteko erlazioa]. Kennedy presidentearen hilketatik denbora gutxira, garrantzi handia eman zitzaion lege bati (...) postaz saldutako su-armen gaineko kontrol federalak areagotzeko. Neurriaren inguruan agerpenak egiten ari zirenean, hiru gizonek 4.000 kilometro egin zituzten autoz, Washingtonetik Arizonako Bagdaderaino kontrako lekukotasuna emateko. Orain argudioak daude Dodd legearen aurka, batere konbentzagarriak ez diruditen arren, arrazoitze politiko konbentzionalaren kolorea dutenak. Baina Arizonakoetako batek kontrakotasuna azaldu zuen argudio paranoikotzat jo litezkeen bidez, behin eta berririo esanez «botere subertsibo baten beste saiakera bat [zela] gu mundu alorreko gobernu sozialista batean sartzeko», eta mehatxatzen zuela «kaosa sortzearekin», «gure etsaiei» boterea hartzen lagunduko liekeena. (5)

Ez dut ukatuko pertsona batek arma lobbyaren erretorika paranoikoak txorakeria –«iritzi distortsionatuaren» adibide «sinple eta eztabaida gutxi sortzen duena»- ematen zuen garaiazen oroimina senti dezakeela, alderdi politiko nagusi baten plataforma ia eztabaidatu gabea izan beharrean. Baina Hofstadterren adibidearen zaharkitze ikusgarria ez da bakarrik 1963az geroztik estatubatuar zentro politikoak eskuinerantz egin duen aldaketaren seinalea. Orobat adierazten du halako pentsamendu paranoikoa zein normatibo bilakatu den espektrio politikoaren edozein gunetan. Bitxia da, baina hurbilago sentitzen naiz egun arizonatar paranoiko harengandik Hofstadterrengandik baino; nahiz eta, edo agian horrexegatik, suposatzen dudalako arizonatarra Christian Identity miliziakide homofobo eta supremazista zuria dela, niri begiratu bezain laster jo eta desagerraraziko nindukeena. Peter Sloterdijkek ez du esplizituki esaten zinismo zabaldu bizia edo «kontzientzia faltsu ilustratua», harentzat ia nonahi aurkitzen dena, espezifikoki paranoikoa denik egiturari dagokionez. Baina ondorio horrek saihetsezina dirudi. Seguru asko, hala moduzko eguneroko zinismo nahiko inkoherentea izango da paranoiak erakusten duen itxura teoria ahul gisa, eta ez indartsu gisa, jokatzeko duenean. Agertoki hiper-argitzaile paranoiko horretan susmoaren hermeneutika batekin behin eta berriz agertzea, bederen, agerpen horiek 60ko hamarkadan izan zirenetik oso bestelako ekintza da.

Parodia subertsibo desmitifikatzailea, orainaren arkeologia susmagarriak, indarkeriazko eredu ezkontuak sumatzea eta agerian uztea; azaldu dudan bezala, desestaltze protokolo oso egingarri eta irakasgarriak azterketa kultural eta historizistaren moneta arrunta bihurtu dira. Hermeneutika paranoiko baten triunfalismoan arrisku nabarmen bat baldin badago, hori da halako hipotesi metodologikoen helmen kontsentsual zabala, gaur egun profesionalen munduan dagoen adostasuna gauza batean: narratibak, edo esplikazioak, edo historizatze egokiak, zalantzan jartzen ez bada, nahi gabe txirotu egin dezakeela ikuspegi eta trebezia literario-kritikoen banku genetikoa. Banku genetiko eskas baten arazoa, noski, da gutxitu egiten zaiola ingurumen aldaketen (alegia, aldaketa politikoen) aurrean erreakzionatzeko gaitasuna.

Baina egungo adostasun paranoikoa deskribatzeko beste modu agian

zehatzago bat da beharbada, guztiz lekualdatu gabe, sarritan teorizatzaile beraiek eta proiektu beraien parte bezala egun praktikatzen ari diren jakiteko beste modu batzuen, susmoaren inguruan ez hain bideratuta daudenen halako desartikulazio, gezurtapen eta ezagutze faltsua behar izan duela. Jakite paranoikoaren programa monopolistak sistematikoki arbuiazen du motibo konpontzaileetara –artikulatu bezain laster metodologikoki deserrotuak- esplizituki jotzea. Motibo konpontzaileak, esplizitu egiten direnean, onartezinak dira teoria paranoikoan, plazerari dagozkiolako («estetiko hutsak») eta argi eta garbi hobetzaileak direlako («erreformista hutsak»)². Zerk egiten ditu plazera eta hobetzea hain «huts»? Desestaltzea desmitifikatzean paranoiak jarritako fedearen eksklusibotasunak bakarrik: soilik haren hipotesi anker gutxiesgarria, hots, iraultza globalerako, genero rolen ezandarako edo dena delakorako falta den gauza bakarra dela jendeak (hau da, beste jende batek) bere zapalkuntza, pobrezia eta engainuaren ondorio mingarriak nahikoa larriagotuak izatea mina kontzientea (bestela izango ez balitz bezala) eta jasanezina egiteko (egoera jasanezinak konponbide bikainak eskaintzeagatik ospetsuak balira bezala).

Teoria paranoiko gehienak ez du benetan eskaintzen halako printzipio itsusirik, baina hala ere gaur egungo teoriaren parte handi bat haiek egituratuta balego bezala agertzen da. *The Novel and the Policen* jadanik eztabaidatu dugun aporia, zeinean irakurleak teoria paranoiko indartsuzko egitura tamalez monolitikoaren bidez bultzatuak baitira akuilatze askotariko, sarri itxuraz plazerera bideratu, eskala txikian literario eta intelektualekiko harreman jarraituaz, kritikagintza onean ere agertzen da. Nik, behintzat, aitortzen dut neure idazlanen ezaugarri bat horixe dela. Axola al du halako proiektuek beren burua gaizki deskribatzen dutenean edo irakurleek oker hautematen dituztenean? Ez nuke iradoki nahi edozein idazketa indartsuren indarrak bere buruarekiko erabateko gardentasuna iritsi dezakeenik, edo bere buruaren berri eman dezakeenik era egokian idazte maila konstatiboan. Baina demagun batek benaz hartzen duela eguneroko teoria kualitatiboki eragiten duela eguneroko jakintza eta bizipenetan, Tomkinsek artikulatutako nozioa bezalakoa edo beste batzuk bezalakoa; eta demagun batek ez duela bereizketa ontologiko handirik egin nahi teoria akademikoaren eta eguneroko teoriaren artean; eta demagun oso kezkatuta gaudela beste jende baten eta geure jakiteko eta bizitzeko praktiken kalitateagatik. Kasu horietan, logikoa

izango litzateke –aukera bagenu- ez lantzea egiten ari zarenaren eta hori egiteko arrazioen arteko pitzadura azeleratu sistematiko baten beharra.

Prozedura teoriko paranoikoak «teoria indartsu» monopolistaren menderatze estrukturalaren mendean egon eta hura sendotzen badu ere, onura egon liteke ere jakintzaren ekologian konstrukto teoriko indartsuek ahulekin kokatzen duten modu ugari, dinamiko eta historikoki kontingenteak esploratzean; eta esplorazio horrek, ezin du, argi dago, aurrera egin ekintza teoriko indartsu zein ahuletan errespetuzko interes bat izan gabe. Halako proiektu bat aztertzeke nik laburbildu ahal izan ditudan baino askoz eredu gehiago eskaintzen ditu Tomkinsek. Baina literatur kritikaren historia ikus daiteke orobat teoria indartsua eta ahula txirikordatzeko eredu alternatibo sorta baten modura. Zerk ordezkatzeko luke modurik onenean «teoria ahula, esplikatua nahi dituen fenomenoek deskribapenak baino hobeto», irakurketa hurbil irudimenezkoaren Kritikagintza Berriaren trebezia debalatu eta ia zaharkituak baino?³ Empsonengan eta Burkerengan jada egia zena, baina, egia da beste era batean gaur egun: badira zeregin fenomenologiko eta teoriko garrantzitsuak soilik tokiko teoriez eta aukerako taxonomiez bete daitezkeenak; teoria indartsuagoekiko haien erlazioaren mekanismo ugariak izan daitezkeenak arteari eta pentsamendu espekulatiboari dagozkien kontuak dira.

Paranoia, ohartarazi dudana bezala, ez da bakarrik afektu teoria indartsu bat, baizik eta afektu *negatibozko* teoria indartsu bat. Teoria jakin baten indarraren auzia (edo teoria indartsuaren eta ahularen arteko erlazioa) ortogonalak izan daiteke haren nolakotasun subjektibo afektiboaren auziarekiko, eta bakoitzak esplorazioa egin dezake bitarteko desberdinez. Umiliazioaren afektu negatiboa iragarri, identifikatu eta saihestearen inguruan antolatuta ez zegoen teoria indartsu (hau da, orokor eta murriztaile) batek paranoiaren antza izango luke alderdi batzuetan, baina haren desberdina izango litzateke beste batzuetan. Uste dut, adibidez, hori atal honen aurreko sekzioaren ezaugarri justu bat izango litzatekeela. Paranoia afektu negatibozko teoria gisa zehazteak ere afektuen arteko desberdintasunak zabalik uzten baititu, beste aukera bat dago afektu sorta zabal bati justizia egingo dion hiztegi batekin esperimentatzeko. Baina ez bakarrik afektu negatiboekin: reifikatzailea ere izan daiteke, are hertsagarria ere, afektu positibozko eredu totalizatzaile bakar bat edukitzea, beti posizio

berean. Kezkagarria da, baina badirudi teoria askok eta askok esplizituki arduratzen direla afektu bakar baten, edo agian biren, ugaritasunaz, edozein motatakoak, dela estasia, sublimetasuna, buru-suntsitzea, *jouissance*, susmoa, ankerkeria, ezagutza, izua, ordain itsusia edo bidezko amorrua. Txiste zahar hura bezala da: «Iraultza iristen denean, kamarada, denok azpizuna jango dugu egunero». «Baina kamarada, azpizuna ez dut gogoko». «Iraultza iristen denean, kamarada, azpizuna gustatuko zaizu». Iraultza iristen denean, kamarada, atsegin handia emango dizute txiste deseraikitzaile horiek; konortea galduko duzu asperduraz estatu aparatua suntsitzen ari ez zaren minutu oro; egunean hogeitaz edo hogeita hamar aldiz egin nahiko duzu larrutan. Triste *eta* ekintzaile izango zara. Ez diezu Deleuze eta Guattariri sekula esango: «Gaur ez, maiteak: buruko mina dut».

Paranoian denboratasunarekiko erlazio bereziki zurrun bat antzematea, aldi berean iragarlea eta atzeraeraginezkoa, guztiaren gainetik ezustearen arerioa, ikustea beste aukera batzuen ezaugarriak ikustea ere bada. Honetan beharbada Kleinek gehiago laguntzen du Tomkinsek baino: posizio konpontzaile batetik irakurtzea da erabaki paranoiko kezkatik ezagutzaile baten aurrean amore ematea: irakurleari ezein izu, itxuraz pentsaezina badirudi ere, ez zaiola iritsiko *berria balitz bezala*; posizio konpontzaile batean dagoen irakurle bati errealista eta beharrezkoa iruditu dakioke ezustea bizitzea. Hala ere, ezuste beldurgarriak egon baitaitezke, onak ere egon daitezke. Itxaropena, sarritan bizipen hausle, are traumatikoa, posizio konpontzailean dagoen irakurlea topatzen edo sortzen dituen zatiki eta objektu partzialak antolatzekeo energien artean dago⁴. Irakurleak lekua daukanez etorkizuna oraina ez bezalakoa izan daitekeela jabetzeko, posiblea da halaber harentzat aukera horren mingarri, oso lasaigarriak eta etikoki funtsezkoak ikus ditzakeela, hala nola, iragana, berriz, gertatu zen ez bezalako modu batean gertatu izan zitekeela⁵.

Azalpen horrek non uzten ditu queer irakurketaren inguruko proiektuak, zehazki? «Sexu desberdintasunaren» eta sexu «berdintasunaren» auziaren azpimarraren falta erlatiboarekin, eta paranoiaren freudar homofobian zentratutako ikuspegitik beste ikuspegi batzuetara pasatzeko aukerarekin, hala nola Kleinena edo Tomkinsena, bereziki edipikoak ez direnak eta bulkadetara baino gehiago afektuetara bideratuak direnak, iradokitzen ari naiz orobat pentsamendu queeren eta paranoiaren gaiaren elkarrekiko

inskribapena izan daitekeela ez hain beharrezkoa, ez hain definizionala, lehenago idatzitako lanak, nirea ere barne, suposatu duen baino ez hain guztiz osatzailea. Paranoiaren ikuspegi ekologikoago batek ez luke eskainiko freudar ikuspegi batek eskaintzen dituen gay/lesbiana gaien leheneste kontzeptual historian zeharreko, ia automatiko bera.

Bestalde, uste dut horrek posizio askoz hobean utziko gaituela justizia egiteko praktika tipiko kulturalki zentral ugari –haisetako askori konpontzaile deitu lekietan-, queer esperientziatik sortzen direnak, baina ikusezinak edo irakurtezinak direnak optika paranoiko batetik ikusita. Joseph Litvakek, adibidez, idazten duen moduan (komunikazio pertsonal batean, 1996),

Iruditzen zait «akatsen» garrantziak queer irakurketa eta literaturan (...) zerikusi handia duela akatsen eta umiliazioaren arteko lotura traumatiko, itxuraz ekidinezinarekin. Zera esan nahi dut, queer energia pilo bat, demagun nerabezaroan, Barthesek «le vouloir-être-intelligent» («Zorigaiztokoa izan behar badut, gutxienez besteak baino argiagoa izan nadin» pentsamenduan bezala) horretara bideratzen bada, eta horri zor zaio paranoiaren ospe itzelaren parte handi bat, zorroztasunaren sinbolo zehatza den aldetik (azkura ematen duen zorroztasun bat), orduan queer energiatik mordo bat gero pasatzen da (...) hutsegiteari izua kentzen eta akatsak egitea gauza sexy, sortzaile, are kognitiboki indartsua ere egitera bideratutako praktiketara. Queer irakurketak ez al du esan nahi ikastea, besteak beste, errakuntzak ezuste onak izan daitezkeela, txarrak baino gehiago?

Uste dut egokia dela logika horiek gertakari kontingenteak izatea definizionalak edo historian zeharrekoak izan beharrean: ez dira nahitaez berezko gauzak emakumeak maite dituen emakume guztiengan edo gizonak maite dituzten gizon guztiengan. Izan ere, erakutsi dudan moduan, irakurketa paranoikoa praktikatzea oso lotuta dago ekidinezinaren nozioari; badira queer irakurketaren beste ezaugarri batzuk ezin hobeto molda daitezkeenak kontingentziazko une labur batera.

Azken batean, denboratasun paranoiko baten zurruntasun narratiboa, setati eta defentsiboa, zeinean ezin baita baimendu atzo gaur ez bezalakoa izatea, eta bihar are gehiago, bere itxura hartzen du erregularitasun eta errepikapen oso edipiko baten ezaugarria duen narratiba generazional batetik: nire aitaren aitari gertatu zitzaion, nire aitari gertatu zitzaion, niri gertatzen ari zait, nire semeari gertatuko zaio eta nire semearen semeari gertatuko zaio. Baina ez al da queer posibilitatearen ezaugarri bat –ezaugarri

kontingentea bakarrik, baina erreala, eta bere aldetik kontingentziaren beraren indarra areagotzen duena-, belaunaldien arteko gure harremanak ez dutela beti aurreratzen erritmo horretan?

Pentsa dezagun Prousten azken liburukiaz, epifanikoa eta bitxiki konpontzailea. Bertan, narratzailea, gizartetik aparte luze ibili ondoren, festa batera doa, eta hasieran uste du denek daramatzatela soinean antigoaleko itxura duten jantzi landuak; baina gero konturatzen da zaharrak *direla*, eta bera ere bai, eta orduan idazteak denborarekin duen erlazioaren inguruko «egia» poz-eragile sorta garrantzitsu batek erasotzen dio dozena erdi bat ezuste mnemoniko garbiren bidez. Narratzaileak ez du inoiz esaten, baina ez al du merezi ohartaraztea espazio errebelatzaile horretan hastapenak ematen dizkiona ezinezkoa izango zela *père de famille* heterosexual baten kasuan, bien bitartean identitate eta rol nahitaez «aurrerabideko» forman seme-alaben eta biloben etorrera erregularra gorpuzten aritu zena?

Eta adina zertan zen ulertzen hasi nintzen; adina, errealitate guztien artean gure bizitzan luzaroen gordetzen duguna kontzeptu abstraktu huts moduan, egutegiei begiratuz, gutunak datatuz, gure lagunak ezkontzen ikusiz, eta, gero, gure lagunak haurrak, eta hala ere, beldurragatik edo nagikeriagatik ulertu gabe horrek guztiak zer esan nahi duen, harik eta egun batean soslai bat ikusten dugun arte (...) irakasten diguna mundu berri batean bizi garela; harik eta egun batean behinola ezagutu genuen emakume baten bilobak, senez gure garaikidea balitz bezala tratatzen duguna, irribarre egiten duen arte adarra jotzen ariko bagina bezala, badirudielako bere aitona izateko adina dugula; eta hasi nintzen ulertzen halaber zer esan nahi zuen heriotzak, maitasunak eta bizitza espiritualaren pozek, sufritzearen baliagarritasunak, bokazio batek, etab. (6: 354-55)

Berrikiagoko kontingentzia batek, hainbeste queer bizitzaren laburtze basatian gauzatu dena, gutako askoren denboratasunari errutina kutsua kendu dio haren eragina areagotu besterik ez duten moduetan. Hau diodanean ditudan hiru adiskidetasun harreman oso queeretan ari naiz pentsatzen. Nire adiskidetako batek hirurogei urte ditu, beste biek, hogeita hamar, eta ni, berrogeita bost urterekin, erdi-erdian nago. Lauak akademikoak gara, eta komunean ditugu interes, energia eta anbizio ugari; denok izan dugu, era berean, bizitasun maila desberdineko jarduera ekintzailea. Belaunaldien arteko narratiba «normal» batean, elkarrekiko gure identifikazioetan halako

itxaropen bat egongo litzateke, hamabost urte pasata hirurogei urteko nire adiskidearen posizioan egongo nintzatekeela, eta hogeita hamar urteko nire adiskideak nire posizioan egongo liratekeela.

Baina denok konturatzen gara litekeena dela gaur egun halako adiskidetasunen oinarriak eredu horretatik urruntzea. Hori gertatzen da hirietako auzo txiroetan, indarkeria arrazista jasaten duen jendearentzat, osasun asegururik ez duen jendearentzat, industria arriskutsuetan lan egiten duen jendearentzat, eta beste askorentzat; hala gertatzen zaie nire adiskideei eta niri. Zehazki, bular minbizi aurreratu batekin bizi naizenez, aukera gutxi ditut nire adiskide zaharrak orain duen adinera iristeko. Hogeita hamar urte dituzten nire adiskideek ere nekez biziko dute nire adin ertaina: bata minbizi aurreratu bat du, ingurumen trauma masibo batek eragina (funtsean, hondakin toxikoak zeuden gunean hazi zen); bestea GIBekin bizi da. Hirurogei urteko adiskide oso osasuntsua da gure artean ziurrenik beste hamabost urte bizi ahal izango dena.

Zaila da esatea, baita jakitea ere, harreman horiek nolatan diren desberdinak adin desberdinetako jendeak izaten dituenetatik, eta hori ihes puntu komun batean bat egiten duten perspektibetako paisaia batean. Ziur naiz gure harremanak biziago motibatuak direla; beste edozer jakinda ere, badakigu ez dela txorakerietarako denborarik geratzen. Baina elkarrekin identifikatzearen esanahiak ere oso bestelakoa izan behar du. Eszenatoki horretan, pertsona zaharrago batek ez du gazteago bat maite egunen batean bera dagoen lekuan egongo den norbait den aldetik, edo alderantziz. Ez da inor ari, nolabait esateko, familiaren abizena pasatzen; zentzu batean, gure bizitzako narratibak ia ez dira gainjarriko. Beste zentzu batean, era intimoagoan labaintzen dira elkarren ondoan belaunaldien eredu erregularraren arabera aurrera doazen bizitzak baino. Bata bestea da bertatik bertara, bata bestea bihurtze baten oraingo osotasun gisa, zeinaren arkuak ezin baita gehiago hedatu, eta gutako bakoitzak atzeman, bete eta laguntzen ikasi behar duguna.

Testu maila batean, iruditzen zait deskribatutako jakintza konpontzailezko praktikak, apenas ezagutuak eta gutxi aztertuak, gay, lesbiana eta queer intertestualtasunaren historia askoren bihotzean daudela. Queerekin identifikatutako *camp* praktika, adibidez, oso gaizki interpretatu daiteke, Butlerrek eta beste askok bezala, lente paranoikoez aztertzen

denean. Ikusi dugunez, gehienetan *camp* ulertzen da kultura menderatzaile baten osagai eta premisen parodia, desnaturalizazio, desmitifikazio eta desestaltze burlatizko proiektuetarako ezin egokiagoa den zerbait bezala. Eta *camp* moduan aritzea zein neurritan den maitasunak eragina ematen du ulertzen dela batez ere status quo zapaltzaile batekiko konplizitate buru-gorrototzailearen neurri berean dela. Horren arabera, *campean* dagoen bulkada paranoikoaren X-izpizko begiradak kulturaren hezurdura mamigabetu bat ikusten du; ikusmenaren estetika paranoikoa dotoretasun minimalista eta ekonomia kontzeptualezkoa da.

Bulkada konpontzaile baten desira, bestalde, metagarria eta gehigarria da. Haren beldurra, nahikoa errealista, da inguratzen duen kultura desegokia eta kaltegarria izatea hura elikatzeko; elkartu eta osotasuna eman nahi dio gero banako heldugabe bati eskaintzeko baliabideak izango dituen objektu bati. *Camp* kontsideratzeak, besteak beste, zenbait praktika konpontzaileren azterketa komun eta historikoki trinkoa justizia hobea egin diezaieke *camp* antzezpen klasikoen osagai definitzaileetako askori: erudizio gehiegiko erakusketa harrigarri biziak, esate baterako; antzinazaletasun grinatsu sarri barregarria, historiografia alternatiboen ugaltze neurrigabea; «gehiegizko» atxikipena produktu zatikako, marjinal, hondakinezko edo soberakoei; ugaritasun afektibo aberatsa, eteteko joera duena; sabeliztunen esperimentazioarekiko lilura hertsaezina; oraina eta iraganaren, eta kultura herrikoia eta kultura garaiaren alboratze nahasgarriak⁶. D.A. Millerren idazlanetan bezala, soberako edertasunak, soberako inbertsio estilistikoak, arrisku, arbuio eta oroiminaren agerpen espikatu gabeek osatutako lika batek elkarlotzen eta bizia ematen dio objektu partzialen amalgama indartsuei zenbait egileren lanean, hala nola Ronald Firbank, Djuna Barnes, Joseph Cornell, Kenneth Anger, Charles Ludlam, Jack Smith, John Waters eta Holly Hughes.

Izen horiek –haietako batzuk nortasun «paranoiko» ospetsuei lotuak- aipatze hutsak berretsi egiten du Kleinek behin eta berriz esandakoa: ez dela jendea, posizio –edo, nik esango nuke, praktika- aldagarriak baizik, banatu daitezkeenak paranoikoaren eta konpontzailearen artean; batzuetan paranoiko izateko joera handiena dutenek garatu ditzakete, eta behar dute, bai barreiatu ere, praktika konpontzaile aberatsenak. Eta posizio paranoikoak edo depresiboak banako tipologiaren mailaren baina

eskala apalagoan funtzionatzen badute ere, maila handiago batean ere funtzionatzen dute: historia partekatuen, sortzen ari diren komunitateen eta diskurtso intertestualaren bilbatzearen mailan.

Proustek bezala, irakurle konpontzaileak «bere buruari laguntzen dio behin eta berriz»; ez bakarrik garrantzitsua, *posiblea* ere bada halako motibo eta posizio konpontzaileez arduratzeke moduak aurkitzea. Edozein irakurleren testu bat edo kultura batekiko motibo konpontzailea artikulatzeko hiztegia denbora luzean izan da hain txepel, estetizatzailer, defentsibo, anti-intelektual edo erreakzionarioa, non ez baita harritzekoa kritikari gutxiek nahi dute halako motiboekiko beren ezagutza deskribatu. Hala ere, arazo nagusia egungo hiztegi teorikoen mugapenetan egon da, motibo konpontzailean baino gehiago. Irakurketa konpontzaileak, posizio paranoikoa bezain akutua, hura bezain errealista, hura bezain lotua biziraupen proiektu bati, eta ez hura baino gehiago edo gutxiago eldarniozkoa edo fantasmatikoa, bere gain hartzen du bestelako afektu, anbizio eta arrisku sorta bat. Praktika horietatik atera dezakegun irakaspena da, agian, banakoek eta komunitateek modu asko dituztela kultura baten objektuetatik bizimodua ateratzeko, baita kultura horren desira aitortua askotan haiek ez elikatzea izan denetan ere.

OHARRAK

1 Laplanchek eta Pontalisek, «Plazeraren printzipioa» sarreran erakusten dute Freud ongi jabetzen zela arazoaz. Honela azaltzen dute: «Beraz, aski izan behar al genuke definizio ekonomiko huts batekin, eta plazera eta mina aldaketa kuantitatiboak termino kualitatiboetara itzultzea besterik ez dela onartu? Eta orduan zein da bi alderdi horien, kuantitatiboaren eta kualitatiboaren aurreko korrelazio zehatza? Pixkana-pixkana, Freudek behin eta berriz azpimarratu zuen galdera horri erantzun sinple bat ematen saiatzean topatutako zailtasun handia» (323). 3. Atalean, Adam Frankek eta biok afektuaren inguruko Tomkinsen lana deskribatzen dugu arazoa planteatzeko modu honi erantzuten saiatzen diren terminoetan.

2 Leo Barsanik *The Culture of Redemptionen* barrena «berrerospen» terminoa darabilen destainazko kutsu inplizitua erabileraren azken motaren adibide on bat izan liteke; baina Barsaniren higuina, itxuraz, lotzen zaio, ez gauzak hobetu daitezkeela dioen ideiari, baizik eta areago Artearen reifikazio errukitsuari, halako aldaketarako eragile izendatua den aldetik.

3 Mila esker Tyler Curtaini hau ohartaraztegitik.

4 Hemen Emily Dickinsonen poema baten Timothy Goulden interpretazio bat datorkit burura, «“Itxaropena” da ariman eskegita / dagoen gauza lumadun hori» (116, 254 zk. poema) hasten den poemarena. Gouldek iradokitzen du itxaropen iheskorren sintomak estres postraumatikozko asaldurarenaren antzekoak direla, desberdintasuna izanik asalduraren arrazoi itxuraz absentea etorkizunean dagoela, iraganean baino gehiago.

5 Ez dut hipostatizatu nahi hemen «benetan nola» gertatu zen, edo «benetan» hori zein gauza eraikia izan daitekeen ukatu, muga batzuen barruan. *Gerta zitekeena baina gertatu ez denaren* esparrua, ordea, eskuarki zabalagoa izaten da, eta ez hain mugatua, eta kontzeptualki garrantzitsua dirudi biak ez erortzea; bestela, galdu egin liteke gauzak *beste era batera* gertatzeko aukera osoa.

6 Michael Moonen *A Small Boy and Others* liburuak queer kulturaren zentzu aberats hori transmititzen du.

Zer esan nahi du gure katuak etxe barrura aberetxo zaurituak ekartzeak? Jende gehienak eskaintza edo opari moduan hartzen ditu objektu horiek, gaizki aukeratuak, guri, katuen gizakioi, atsegin emateko edo gurekin adiskidetzeko. Baina, Elizabeth Marshall Thomas antropologoaren arabera, «Agian katuak hezitzailearen rola bereganatzen ari dira harrapakina beren giza jabeen etxeetara eramaten dituztenean. (...) Ama katu bat bere kumeei irakasten hasten zaie bere atzetik ibiltzen hasten diren unetik. (...) Geroago irakaspen praktikoak datoz, eta biktimak botatzen ditu haien aldera, katuek jolasetan egiten duten bezala. Ama katuek harrapakin [zaurituak] eramaten ditu bere habia edo gordelekura, bertako kumeek praktika dezaten, batez ere harrapakina tamaina egokikoa bada. Beraz, gure etxeetara harrapakin biziak ekartzen dituzten katuak agian irakaspen praktikoa eman nahi digute, gure ehiztari trebeziak doitzeko» (105).

Katuekin edo pedagogiarekin zerikusia duten pertsonentzat, Thomasen hipotesi hori kezagarria izan daiteke zenbait zentzutan. Hasteko, zauri nartzisista dago. Boteretsuak edo miretsiak ginela uste genuenean, ia guraso irudiak gure katuentzat, heziketa berezia behar duten jaioberri baldarren rola egozten digute. Are okerrago, heziketa horretatik ez dugu ezer ikasi. Kontuan hartuta katuak egindako agertokiko antolaketa arretatsua, bereziki ergelak ematen dugu ez dugulako agertokia ezagutu ere egin agertoki pedagogiko gisa. Egia al da ikasi dezakegula bakarrik norbait irakasten ari zaigula konturatzen garenean? Orduan, nolatan nahasi ditugu opari emate eta irakaste ekintza ilokuzionarioak? Hizkuntza ekintza alorreko beste arazo bat imitazioari dagokio: katuak suposatzen zuen (baina nola jakin dezakegu?) bere mugimenduak gure mimikarako txantiloak zirela, eta ez zituela egiten guk bereganatu edo graziaz onartzeko. Erantzun simetriko bat eskatzen zuen keinu batek erantzun osagarria ekarri du.

Baina, katuaren proiektuari pedagogikotasuna ikusi bagenio ere, bazitekeen gure erantzuna egokia ez izatea, eta ez «doitzea gure ehiztari trebeziak» harrapakin hautsi, dardartiarekin. Beharbada ez dugu gure katua irakasten ari den ikasgaia ikasi nahi. Hemen, esparru afektibo batean, badago mimesiaren inguruko beste akats bat: katuak uste du berarekin identifikatzen garela berak bezala egiteko indar nahikoaz (hau da, karraskariak bizirik jatea). Giza hezitzaile batentzat, katuaren pedagogia arrakastarik gabeak eguneroko amesgaizto asko dakartzio gogora. Ikasle batzuek beren irakasleen lan gogorra beren ohorez egindako mirabekeriazko oparitzat jotzen dute, eta hori gutxi balitz, gustu txarrekoa. Beste ikasle batzuek esker onez hartzen dituzte emandako formulazioak, opari moduan, baina haien produkzioaren prozesua imitatzea pentsatu gabe. Zalantzarik gabe, psikoanalistek eta psikoterapeutek topatzen duten ez atzera ez aurrerako egoera komun bat deskribatzen du horrek. Unibertsitateko ikasle gazte pribilegiatuei irakasten ari nintzela, batzuetan irudipen izugarri bat izaten nuen: ni eta nire trebezia eta jakintza ispilatzeke haien desiran oinarritzea espero nuen arren, gaztigu gisa ikusten nindutela zen haien motibazioa: halakoxeak bihurtuko ziren unibertsitateko sastraketatik mundu korporatibora jauzi egiteko nahikoa azkar, maltzur eta moldagarri ez baziren:

Eta pedagogo maltzuraren frustrazioez gain, giza jabe ergelaren frustrazio hausnartuagoak daude. Askotan beranduegi da azkenik konturatzen garenean ikasle/gaixo baten «erresistentzia» (sagua jaurtitzea) pedagogia mota bat dela, guri zuzendua eta gure mimetismoari dei egiten. Gero gure buruari galdetuko diogu ea eta nola molda gintezkeen bakoitzak behar duen irakasle/terapeuta berezia bihurtzen. Agian haien asmoa zen: saia zaitez gauzak nire modura egiten, irakatsi nahi badidazu. Edo are: nik irakatsi behar dizudana zuk irakasten didazuna baino garrantzitsuagoa da.

Atal honetan aztertzen ditudan harreman ozta-ozta pedagogikoen artean, garbi dago haietan lehena Asiaren eta Euro-Amerikaren artekoa dela, budismoaren gaiaren inguruan. Azken bi hamarkadetan, Estatu Batuetako kulturen osagai budisten presentzia jarraitua oso ikusgai dagoen arren, ikertzaile kritikoek Pazifikokoan zeharreko pedagogia horren azpian bide dauden gaizki-ulertu eta alferreko hizketa hedatu, sistemikoak arakatu ditu.

Ikerketa kritikoak irakurtzen dituen «budista estatubatuar» bat apaldu egingo litzateke jakitean zenbat modu funtsezko ia ikusezinetan baldintzatzen zuen Mendebalderako transmisioaren historiak bera asiar testu, praktika eta kontzeptuetara iristea. Donald Lopezek, adibidez, bere saiakera kritikoen antologia eredugarria laburbiltzen du esanez mendebaldeko irakurle modernoentzat eskura dagoena bakarrik dela «objektu hipostatizatu bat, budismo izenekoa», zeina, «Europak sortua baitzen, Europak kontrolatu ere egin baitzezakeen» (7). Halako hipostatizazio batean agertzen diren distortsioen artean honako hauek aipa daitezke: gainbeheraren narratiba bat, azterketa budistetan modernoa eta bertakoa dena deslegitimatzen dituen; Asiako irudikapen budistari mendebaldeko sustraiak egozteko gogo bizia; konplizitatea proiektu natibista eta kolonialistekin Japonian, eta faxistekin Italian; adierazpen harro eta ezjakinak, hala nola Jungenak, ekialdeko psike exotiko batez mintzatzean; eta Asiako budistek mendebaldeko ikertzaileentzat modu katramilatsuan jardutea informatzaile eta guru rol bateraezinetan.

Zer indar dute halako aurkikuntza oso kritikoek? Zergatik eta norentzat dira garrantzitsuak? Zentzu onak iradokitzen du haien eragina arinagoa izango dela budismoa unibertsitateetik kanpo ikasten ari direnentzat alorreko ikertzaileentzat baino. Ikerketa zorrotz horiek (gehienak unibertsitateetako argitalpen zerbitzuek emanak) ez bakarrik ez daude hain eskura akademikoak ez direnentzat; baliteke haiek irakurtzeko funtsezko motiboak ere desberdinak izatea. Era gordinen esana, budismoa aztertzen duten akademikoak, profesionalki, aurkituko dute bideren bat, asintotikoa izan arren, beren gaien ezagutzara iristeko, ezjakintasunak, harrokeria inperialistak eta ilusioek edo mendebaldeko kulturaren pentsamendu eredu tipikoek hainbeste distorsionatuko ez luketena. Bestalde, budismoaren gaineko irakurketen balioarekiko irakurle ez akademikoaren atxikimendua oinarri dezente pragmatikoago batean oinarritzen da beharbada. «[Azalpen] hau zehatza da, edo engainagarria?» galderak bidea eman diezaike irakurle horiei «[Praktika] honek funtzionatuko du, edo ez?» galderara.

Azken galdera egiten den leku eta une historikoa bereziak dira, egoki deskribatuak gizarte funtsean sekularren barruko indar pluralista, merkatu librearen antzekoen terminoetan (ikus Berger). Oraindik orain, «buru-laguntza», «New Age» eta «terapia-gisako» idazpuru nolabait

estigmatizatuek iradoki dute asiarrak ez diren kontsumatzaileei zuzendutako irakaspen budisten jendarteratutako zerrenda merkatu-hobi are gutxiago agurgarria dela. Hobi horretatik sortzen da atal hau, hezitzaile espezializatu gabeko baten bost urteko konpromisoa islatzen baitu ingelesez idatzitako eta masen merkatutik arlo akademikora doan literatura «budistarekin». Konpromiso hartarako nire lehen motiboa argi eta garbi soteriologikoa izan zen, adin ertainean metastasia sortutako minbizi bat diagnostikatu zidatenean abiarazia. Baina, atal honek erakusten duen legez, heriotzaren eta hiltzearen inguruko literatura budistan hartu nuen interesa guztiz korapilatua agertu zen halaber Mahāyāna tradizioetan errepikatzen diren pasio eta antinomia pedagogikoekiko identifikazio batek bultzatua.

Pentsamendu budistaren erudiziozko topos nagusia, baita sarritan mendebaldeko jende xehearentzako deskribapena ere, *moldatzea* da, moldatze hori goratu edo zentsuratu. Horrek esan nahi du asiar jatorriko norbait moldatu edo moldarazi egiten dutela mendebaldeko ohitura, sentiberatasun eta mundu ikuspegi funtsean desberdinetara. Era berean, moldatze praktiken defentsa komun bat izaten da budismoa, sarritan aldatu dutela historian zehar, hark bere burua aldatu adina, bere historia peripatetikoan topatutako kultura desberdinek.

Atal honek, pedagogian zentratuta bai gai bai harreman gisa, bestelako zerbait lortu nahi du halako defentsa baten bidez: iradokitzen du *moldatzea* ez dela mendebaldetarrek jendarteratutako irakaspen budistak topatzeko eredu bakarra. Moldatzeak agerian uzten du jatorrizko nola bat aldatzen den, eraldatzen, beste erabilera batera moldatzen, agian baita deszentratu ere, gorputz ezezagun baten grabitate erakarpenak aurreko orbitatik aterata. Neurri batean, topos horren egokitasuna ukaezina da. Gainera, idazki budistetan horren justifikazio asko dago: Pali kanonean, sutretan eta Jataka istorioetan entzuleen gaitasun eta erreferentzia esparru desberdinetara errotik moldatutako adibideak daude, denak kanonikoak.

Baina atal honetan ikastearen eta irakastearen fenomenologia budistaren altxor handiko baliabide desberdin gehiago probatu nahi ditut. Zer gertatuko litzateke, adibidez, *ezagutzea/konturatzea* bezalako topos berdin-berdin kanonikoak moldatzearen bide bakarreko toposak baino hobeto esplikatuko balitu mendebaldeko dibulgazio alorreko zenbait dinamika? Dibulgazioko testu horiek kontsumitzen dituzten subjektibotasunera eta

kezka epistemologikoetara hobeto egokitzen da, inondik ere.

Atal honen bigarren mailako helburu bat da gaur egun asiar ideia erlijiosoen inguruko topiko bihurtu den baten ondorio batzuk ilustratzea: alegia, «iritsi» egin dela, eta mendebaldeko pentsamenduan eragina izan, era askotan, hainbat mendetan izandako topaketa askoren bidez. Hala, dagoeneko budismoaren topaketa «mendebaldeko kulturarekin» ulertu behar da halaber asiar korrante eta eraginaren palimpsesto batekiko topaketa gisa (eta alderantziz). Esate baterako, estatubatuarrek askotan bilatzen dituzte liburu budistak liburu-denda ezagunetako buru-laguntzako apaletan. Baina «buru-laguntza» marketin epigrafeak oihartzun estatubatuar ikaragarria badu, ez al da, parte batean behintzat, zuzenean igortzen duelako XIX. mendeko Emersonen «Buru-konfiantza» eta Whitmanen «Kantua neure buruaz» lanen bulkadara? Hau da, irakaspen budista eta hinduarekiko elkartruke zuzen eta zeharkakoan kontzienteki erlazonatutako bulkada batera?

Nire esplorazio budistan topatu nuen lehen liburua, ziur aski, aztertu gabeko zentzu batzuetan, budismoaren gaiarekin dudan erlazioa oraindik ere egituratzen duena, Sogyal Rinpocheren *The Tibetan Book of Living and Dying* dibulgazioko best-sellerra izan zen. *Hildakoen tibetar liburua* delakoaren gaineko glosa zabaldu moduan eraikia, hasberrientzako sarrera orokor bat eskaintzen du tibetar budismora, eta aldarrikapen are zabalgago bat egiten du (poltsiko edizioaren atzeko azalean): «Bizitzaren eta heriotzaren eskuliburu bat (...) gure garaietarako behin betiko klasiko espiritual berria» izatea.

Zen budismoa edo Theravada meditazioa –XX. mendean estatubatuar ez asiarren artean oso ezagunak egin diren beste tradizio budista batzuk- baino gehiago, tibetar budismoak arrisku bat du: banaezina irudi dezakeela Asian izan zuen garapenaren zirkunstantzia eta historia kulturaletik. Beharbada beste tradizioak meditazioan zentratzeak ematen die tibetar budismoari falta zaizkion gardentasuna eta irisgarritasun unibertsalaren ilusioa. Beharbada Japoniaren eta hego-ekialdeko Asiaren irisgarritasun geografiko erlatiboak hobeto uztartzen du tibetar budismoa (mendebaldarren begietan) tokiko auziei, hizkuntzaren, ohituren, historiaren, «sinesmenaren» opakutasunari; laburbilduz (budista goiztiarrek nahi zuten

bezala), «sineskeriaren» opakutasunarekin. Dalai Lamak munduan barrena adierazten du «Nire erlijioa adeitasuna da» tarteka. Baina sarrera itxuraz artikulatu horretatik harago joatea da bitxikeria (mendebaldeko ikuspuntu batetik) ia aldaezinak eman ditzaketen praktikak eta kosmologiak berehala topatzea.

Nola gainditzen du Sogyalek hutsune kultural horretan irakurleak galtzea? Hitzazurrekoaren lehen paragrafoa narratiboki pizgarria da:

Tibeten jaio nintzen, eta sei hilabete nituela sartu ninduten Jamyang Khyentse Chöki Lodrö nire maisuaren monasterioan, Kham probintzian. Zendu diren maisu handien berraragitzeak aurkitzeko tradizio berezi bat daukagu Tibetean. Gazte izaten dira aukeratuak, eta heziketa berezia hartzen dute etorkizuneko irakasleak bilakatzeko. Niri Sogyal deitu zidaten, baina nire maisua geroago konturatu zen Tertön Sogyalen haragitzea nintzela, mistiko ospetsu bat bera, haren irakasle izandakoa eta Hamahirugarren Dalai Lamaren maisuetako bat.

Nire maisua, Jamyang Khyentse, tantaia zen tibetarra izateko, eta burua kentzen zien beti ingurukoei. Ileurdina zen, motz-motz ebakia, eta umorea zerien begi adeitsuak. Belarri luzeak zituen, Budak bezala. (xi)

Ipuin antzeko hasiera horrek antzekotasun eta haragitze sistema ezezagun batean murgiltzen du irakurle nahasia. Estrategikoki, ordea, irakurlearen ikuspegia aldi berean lotu egiten da «monasterioan sartu zuten», «maisua» bat egotzi eta ibiltzen edo hitz egiten ikasi baino lehen aurkitua edo «aukeratua» izateko prozesu misteriosuetatik pasatu zen sei hilabeteko haurraren (gurasorik ez da aipatzen) nahasmendu errotikoagoari.

Hitzazurrearen gainerakoak inimizazio paraleloen antzeko estrategiari jarraitzen dio. Irakurleok gisa honetako informazioa hartzen dugu: «Tibeten ez zen inoiz mahikoa haragitze baten izena eramatea bakarrik; beti irabazi behar zenuen begirunea, zure ikasketaren eta praktika espiritualaren bitartez» (xi). Aldi berean, egilearen ahotsaren beste osagai batek bere ingurune eta estatus nahasgarriari logika bilatzen ari den haur bat irudikatzen du: «Ume bihurria nintzen. (...) Ezkutatu nintzen hurrengo aldian, nire tutorea gelara sartu, nire maisuaren aurrean hiru aldiz makurtu eta handik atera ninduen. Gogoan dut gelatik tiraka ateratzen nindutelarik pentsatzen nengoela zein bitxia zen hark maisuaren beldurrik ez izatea, itxuraz» (xii). Badirudi haurrak topatutako arrotzasuna haren *tulku* estatus ezohikoari

eta, aldi berean, mundu batek berataz ez dakien edonori –mendebaldeko irakurle edo tibetar haur- erakusten dion arrotzasunari (edo berezkotasunari) dagokiola.

Sogyal Rinpocheren hitzaurreak, beraz, iraganaldi bat eskaintzen du, zeinean haur batek oztopo handiekin hartzen baitu kultura, eta aldi berean orainaldi inplizitu bat, irakurlea dagoen orainaldia. Sogyalen estiloak eta perpaus egiturak elkartu egiten dituzte biak. Baina inimizazio bikoitza era berean jokatzen du beste bi babes nagusiren pean. Bata tonalitate emozional berezi bat da, esker ona samurtasunarekin nahasia. Tonalitate hori aplikatzen zaion bestea, da «nire maisuaren» eragin jarraitua. «Denek esaten zioten *Rinpoche*, “Baliotsua”, hau da, maisu bati ematen zaion titulua, eta hura bertan zegoenean ez zitzaion hala deitzen beste ezein irakasleri. Haren presentzia hain zen zirraragarria, non askok “Funtsezko Buda” deitzen baitzioten, txeraz» (xiii). Narratzailearen haurtzaroan zentzumenentzako presentzia bat da: «Nire maisuaren ondoan lo egin ohi nuen, haren ohearen oinean zegoen ohe txiki batean. Ez dut sekula ahaztuko haren *malaren*, arrosario budistaren, aleen klask hotsa, bere otoitzak xuxurlatzen zituen bitartean. Lotara joaten nintzenean hantxe egoten zen eserita, praktikatzen; eta goizean esnatzen nintzenean hura esna egoten zen, eserita eta praktikatzen berriro, bedeinkazioz eta boterez gainezka. Begiak zabaltu eta hura ikusten nuenean, zorion goxo bero batek hartzen ninduen. Bakez inguratua zirudien» (xiii). Era berean, haren heriotzatik harago irakurlearen inimizazioaren orainaldira zabaltuz, «Jamyang Khyentse nire bizitzaren oinarria eta liburu honen inspirazioa da. Gure herrialdean budismoaren praktika eraldatu zuen maisu baten haragitzea zen» (xi). «Aditua naiz nire maisuak esan zuela bere lana jarraitzen lagunduko nuela, eta, egia esan, beti tratatu izan nau bere semea banintz bezala. Irudipena dut nire lanean izan ditudan lorpenak eta iritsi ahal izan dudana entzuleria hark emandako bedeinkapenaren fruitua direla» (xii). Eta hitzaurrea honela bukatzen da: «Otoitz egiten dut liburu honek munduari haren jakintza eta errukitasunaren parte bat transmititu diezaion, eta haren bidez, zuek ere, edonon zaudetela, haren gogo jakintsuaren presentziara iritsi zaitezten eta harekiko lotura bizia aurkitu dezazuen (xiv).

Hitzaurrean tibetar budismoaren tradizioak ezagutzen ez dituen irakurlea harrituko duen xehetasun asko geratu arren, haren hizkuntza

bakunak dagoeneko erlazio pedagogiko konplexu, afektuz blaituetan sartu ditu irakurleak. Irakasle-ikasle posizioen mugikortasuna hezuramaitzen da lehenik eta behin Sogyal berarengan, hitzaurrea haur baten moduan hasi eta irakasle gisa amaitzen baitu, baina bere «maisuaenganako» bere dependentziaren nolakotasuna aldatu gabe, itxuraz. Izan ere, bidean barrena bere maisuaren irakaslearen berraragitzea bezala «ezagutu» baitute. Haietako zein izango da, orduan, irakurlearen maisua? Antza denez, haien arteko bentrilokia/inpregnazio prozesuren batek bermatzen die ez dagoela zertan aukeraturik; areago, ez dagoela biderik bereizketa egiteko Sogyal Rinpoche ikasle/irakaslearen eta haren presentzia dirdiratsuan beste inor bat izan ezin daitekeen maisuaren artean. Izan ere, «Niretzat bera Buda zen, ez daukat inolako zalantzarik. Eta beste guztiek gauza bera esaten zuten» (xiii).

Irakaste egoera hori, garbi dago, garatu egiten da nortasunean eta harreman emozional intimoan oinarrituta. Aldi berean, banako nortasunaren disolbatzaile indartsu eta misteriotsu baten moduan funtzionatzen du.

Nortasunaren disoluzioa topiko bat da «budismoaz» ari garenean, ezbairik gabe. Baina, egia esan, Sogyalen hitzaurreak gutxi kontatzen du budismoaz per se, eta ezertxo ere ez haren printzipioez. Liburua hasten duen irakurle batek, nahasmendua dela medio, bere buruari galdetuko dio, ez budismoaz, pedagogiaren beraren erlazonaltasun aberats baina disolbatzaileaz. Mundu horretan badirudi erlazioa *bakarrrik izan litekeela* pedagogikoa, eta arrazoi *hori* dela-eta, erradikalki gizabanakoarengandik haragokoa. «Maisuaren giroa beste batzuekin partekatzen dudak bakoitzean sumatzen dute nigan piztu zuen sentipen sakon bera. Orduan, zer inspiratu zuen Jamyang Khyentsek nigan? Konfiantza irmo bat irakaspenetan, eta sinetsita egotea maisuaren garrantzia zentral dramatikoaz» (xiii).

Erraza da, inondik ere, argudiatzea erlazio pedagogikoa funts-funtsezkoa dela Vajrayana budismoan, edo «lamaismoan», XIX. mendeko European esaten zen bezala, lama/guruari, hastapenetako irakaslea den aldetik, emandako nagusitasun berebizikoan oinarrituta. Ez bakarrik Vajrayana budismoa, Mahāyāna budismo osoa baizik, errotik definitzen da termino pedagogikoetan. Azken batean, Mahāyāna (bitartekari handiagoa) shravakayanak eta pratyeka-yanak baino «handiagoa» da; bitartekari «txikiagoak»

izaki hobetuak dira, shravakak (entzuleak, irakasten ez dutenak) eta pratyekak (iratzarri bakartiak), ikasleak edo autodidaktak bakarrik, nirvana beren on beharrez iristen dutenak.

Mahāyāna ideala, kontraste zuzenean, bodhisattvari dagokio, «budatasuna iristeko helburua duen bat, egintza altruistetara dedikatzen dena, era berezian besteei argitzea lortzen laguntzen dizkien egintzetara» (Chang 471). Hala, shravakak eta pratyekak bezala, bodhisattva ere ikasle eta argitugaia da, eta aholkatzen zaio «denbora guztian besteen ikaslea izatea» (Santideva 40). Bodhisattvarentzat, baina, besteen argitzea eragiteko agindu pedagogikoak norberaren aurrerapen espiritualak baino garrantzi gehiago du: bodhisattva batek atzeratu egiten du nirvanan sartzea gainerako izaki kontziente guztiek sartzen ikasi duten arte. Beraz, Thomas Clearyk eskaintzen duen bodhisattvaren itzulpenak, «izaki argitzailea» (2), besteak argitzearen eta nork bere burua argitzearen erreferentzia bikoitzarekin, bide egokia dirudi adierazteko funtsezko kondentsazio hori, zeinak gehiago egiten baitu bodhisattvaren posizio-ardatzak ardatz pedagogiko gisa identifikatzeko, ardatz horietan bere kokapena zehazteko baino. Gainera, Mahāyāna budismoarekiko edozein pertsonaren konpromisoak berarekin dakar bodhisattvaren dimentsioetan kokatzea; ardatz horiek eratutako planoan barrena doan «bodhisattva bidea» ez da espiritualki aurreratuentzat. Bodhisattva, Mahāyāna budismoaren irudi definitzailea, bere aldetik, erlazionaltasun pedagogikoarekiko engaiamendua eternitatearen horizontera hurbiltzen zaion izaki baten modura definitzen da.

Begien bistakoa izan arren (edo horrexegatik), merezi lezake azpimarratzea, Platoren elkarrizketetan bezala, sutra budista handienak azken finean irakaspen eszena dramatizatu sorta bat besterik ez direla. Areago, sutretan agertzen diren izakien forma eta maila ugarien artean –asurak, bodhisattva eta Bodhisattva-Mahasattvak, brahmak, devak eta devaputrak, herensugeak, gandharvak, garudak, jainkoak, etxebizitza dutenak, magiaz sorturiko izakiak, monjeak, itzultzen ez direnak, behin itzultzen direnak, pratyekak, rsiak, Śakrak, Śravakak, korrontean sartzen direnak, yaksak-, inork ez du Dharmaren irakaspenak hartzea baino gauza baliotsuagorik nahi. Mahāyāna idazkietan, irakaste edo ikaste eszenak unibertetsalki bilatutako helburuak dira, bitarteko instrumentalak bezainbeste.

1844en, Elizabeth Palmer Peabodyk ingelesera egindako sutra baten lehen itzulpena *The Dial*en argitaratu zuenean, haren irakurleen artean Boston inguruko haren lagun transzendentalisten talde bat zegoen. Aukeratu zituen testuak, Eugène Burnoufek egindako Lotoaren Sutraren frantsesezko itzulpenetik hartuak, irakaspen budisten behin betiko batasunean sutra horrek duen garrantzia azpimarratzen badu ere, hala eta guztiz ere bereizketa arretatsua egiten du budismoko bitartekarien artean. Arreta horrek agian nahasi egin ditu haren irakurleak, kontuan hartuta haien arteko ikasienek apenas bereizten zutela brahmanen eta budistaren artean. Baina Peabodyk gauzak esplikatzeko lana hartu zuen, oin oharretan azalduz, adibidez, Pratyeka Buda bat dela «halako Buda berekoi bat, zientziaren jabea dena, baina hura zabaltzeko asmorik ez duena» (“Preaching” 393).

Baina bereizketa hori Budaren pedagogiaren zabaltasun ez-diskriminatzaileari egindako kantuaren zerbitzura dago. «Izakiei legea esplikatzen diet haien joerak ezagutu eta gero», esaten du Peabodyren bertsioan, «nire hizkuntza modulatu egiten dut gaiaren eta bakoitzaren indarraren arabera»:

Oi Kâçyapa, hodei batek, unibertsoaren gainetik altxatuz, guztiz estaliko balu bezala da, lurra erabat ezkutatuz. (...) Modu uniformeaz ur masa itzel bat zabalduz, eta alboetan sortzen zaizkion tximistek argiztatuta, lurra pozaren pozez uzten du. Eta lur horren azalean sortu diren sendabelarrak, belarrak, sastrakak, basoko erregeak, zuhaitz txiki zein handi; haziak, eta berdetasuna ematen duen oro; mendi, leize eta baratzeetan aurkitzen diren barazkiak; belarrak, sastrakak, zuhaitzak... Hodei horrek denak betetzen ditu pozez, poza zabaltzen du lur idorraren gainean, eta sendabelarrak bustitzen; eta hodeiaren ur homogeen hori bereganatu egiten dute belarrek eta sastrakek, bakoitza bere indarraren eta helburuaren arabera. (...) Hodiaren ura bereganatzen dute beren zurtoinez, beren adaxkez, beren azalaz, beren adarrez, beren hostoez, eta sendabelar handiek loreak eta fruituak ematen dituzte. Bakoitzak bere indarraren arabera, bere xedearen arabera, eta sorreraren izaeraren arabera fruitu berezi bat ematen du, eta hala ere ura homogeenoa da, hodeitik erori zena bezala. Beraz, Oi Kâçyapa, Buda mundura dator unibertsoa estaltzen duen hodei baten modura (...) eta benetako doktrina irakasten die izakiei. (“Preaching” 398-99)

Pentsa liteke irakurle transzendentalistentzat halako pasarte baten oihartzuna ez litzatekeela etorriko «benetako doktrinaren» promesetik, baizik eta *Bildung*ekiko kezka erromantikoan sartuta dagoen arazo zail

batean zentratzetik: irakasmolde batek nola elika litzakeen patu banakoak, baita hartzaileen premia komunak ere.

Zeren eta inoiz izan baldin bada pedagogian sutretako pertsonaiak bezain interesatuta dagoen talderik, Transzendentalistak taldeak behar du izan. Thoreauren salbuespenarekin, bazirudien haietako bakoitzak bere itxaropen biziena jartzen zuela pedagogiaren ahozko praktikan, eta kasu bakoitzean unibertsitate edo elizaren kredentzialetatik independentea, autoritatearen aldarrikapena aktiboki arbuiazen zuen batean, esperientziak eskatutakoaren alde. Sutren munduan bezala berriz, baina modu askoz ezohikoan mendebaldean, halako praktika sorta batean –Temple Schooletik Margaret Fullerren solasetara edo Concordeko Filosofia Eskolara- parte hartzen zuten haurtxoek eta adineko jendeak, eta ez zen pentsatzen bizitzako aro bat bereziki egokia zenik heziketarako. Hala, irakaslearen eta ikaslearen arteko identitate maila bereizi nahi ez duen Mahāyāna idealaren alderdi hori bat zetorren haien idealarekin. Helduek haurrei irakasten zietenean ere, Elizabeth Peabodyk *Record of a School*en idatzi zuen bezala, Bronson Alcotten bizi laburreko Temple Schoolen deskribapen xehekatua, «irakasle batek ez luke inoiz ahaztu behar zuzentzen ari den gogo berea baino eskala handiagokoa izan daitekeela; haren sentsibilitateak sakonagoak izan daitezkeela, samurragoak, zabalagoak; haren irudimena askoz azkarragoa izan daitekeela; haren moldatze eta arrazoitze indar intelektuala askoz indartsuagoa izan daitekeela; eta batzuetan izan beharko luke haurraren lekuan sentitzeko apaltasuna eta bere (irakaslearen) eraginaren kontra defendatzen irakasteko bihotz-zabaltasuna» (19-20). Bronson Alcottrek ere «Irakastea, ulertzea sinesmen inplizitutik gordetzea saiatuz» dioen printzipioari jarraitu zion (318). Haren buru-eskakizunetako beste bat: «Irakastea, ikasleak etxekotasun uniformeaz eta pazientziaz, eta adeitasun, samurtasun eta begirune handienaz tratatuz» (319).

Transzendentalisten heziketa alorreko manifestu formal zein informaletan ez dira aipatzen Asiako irakaste teknikak; Asiako idazkiekiko etxekotasunean haien oinarritzea ere oso apalduta dago. 1830eko hamarkadan transzendentalistek budismoan eta hinduismoan zituzten interesek Europako erromantizismoaren interesak zituzten bitartekari nagusi. Baina garai hartan alemanek eta ingelesek Asian jarritako interes akademikoaren formak bestelako zentzu batean zeuden pedagogikoki

imajinatuta. Metodo konparatiboeke filosofian eta erlijioan ekarri zuten India, bereziki, greziar, kristau eta Europako hizkuntza eta erlijio ororen jatorria edo «sehaska» kontsideratzea (Halbfass 61).

Hala, Peabody filologia orientalista eta etxeko sentimendu bat ditu gogoan honako hau idazten duenean: «Benetako heziketan ez dago ama sentimendutik ez datorren ezer; eta ama guztiek filosofia espiritualetik gehiago aurkituko lukete haien gogoek beren bihotzak irakurriko balituzte. (...) Luze iraun duen filosofia oker batek era askotan kutsatu duenean bihotzaren eta irudimenaren hizkuntza naturala, bereziki beharrezkoa da garbitzea, hizkuntza sortu zen sentimenduaren eta pentsamenduaren «ur putzu arazetan», ama-hitz indartsu eta konbentzigarriak, berezko ideien filosofiatik haziak, eta, haren gainbeheraren ostean, ezkutatuak eta albo batera utziak izan direnak, nabaritu gabeko «harri-kozkorrek bezala, ohituren errutina hautsez beteetan» (*Record* 181-82). Ontogenia eta filogenia espiritualezko antzeko narratiba bikoitz bat hedatzen du ohartarazten duenean: «Benetako erlijioen lehen fasea, agian, panteismoa da, nahitaez. Eta haurtzaroa da panteismorako adin egokia. Akitu egingo da, eta lekua utziko dio teismo kristauari. Banakotasuna gauzatu ahala» (183).

Nahiz era Peabodyk, konbentzionalki, «arraza gizakien azpira eramanez duten erakunde eta idolo» (*Record* 187) zaharkituek zapalduta bezala deskribatu egungo Asia, eta haren afiliazio kristau formala baino gehiago gorabehera, hark ere, «jatorrizko hizkuntzen jakintzatik» arrazoituz, mendebaldeko monoteismoan ikusten du erotiko jaitsiera bat antzinako Ekialdeko idealismo espiritual identifikatzailetik. Zorionez, ordea, gertatu zen bai berak bai Alcottek haren funtsezko berrantolaketa pedagogikoa kontsideratzen dutena Grezia Klasikoan: «Anaxagoraren filosofia teorikoa ekialdeko filosofia erlijiosoaren berraldarrikapena da Grezian. Gogoia Jainkoa da, zioen Sokratesen eta Periklesen irakasle handiak. Eta hortik sortu zen Atenasen *zeure burua ezagutu* dioen filosofia. Gizakia gaiaren existentziaren aurreko Izpiritu haren sorkaria baldin bada, Sokratesek arrazoitzen zuen moduan, orduan gainerako gauza guztiak kontsideratu behar dira haren legeen kontzientziaren, hau da, haren kontzientziaren ikuspegitik; eta beste inori galdetu gabe, hasi zen bere buruari galdetzen eta besteak ere galdetzera eramaten ustekabekoaren eta errealeko arteko bereizketaz» (189). Temple Schoolen praktikan Ascottek eta Peabodyk, eta

geroago Fullerrekin, izan zuten *Bildung* kristauaren ikuspegiak gehiago zor dio ekialdera begira zegoen Platori Sokratesen molde dialogikoari baino, suposatuz, Peabodyren hitzetan, «gainerako arima guztiak Jesukristo zena direla potentzialki; arima bakoitza infinituaren haragitze bat dela; ez duela inoiz garbiro pentsatuko mentalki denbora eta espazioaz harago ez doan bitartean; ez dela inoiz bere buruarekin harmonian sentituko haren sentiberatasuna izaki guztiekin parekagarria ez den arte» (191).

Hala, ingelesera itzultako lehen sutra izan arren, *The Dialek* Lotoaren Sutratik Peabodyren orriak argitaratu zituenean –haren *Record of a School* argitaratu eta ia hamar urte igaro ondoren-, Transzendentalistak ongi jabetzen ziren budismoaz zekitena ez zela oso orijinala. Bazekiten antzinako grekoek eta erromantiko alemaniarrek, «mendebaldeko» kulturaren zuten bi identifikazio puntu nagusiek, asko idatzi zutela Asiaz jatorri intelektual, linguistiko eta espiritualeko balizko leku gisa (Halbfass 2-23, 69-138). Gutxi jakin bazezaketen ere pentsamendu budistaz edo hinduaz, beren pentsamendua, eta ongi zekiten hori, hura ez ezagutu barik, neurri handi batean hark osatzen zuen. Planteatzera iritsiko ziren, mende erdialdeko Max Müller indologistarekin: «Denok gatzat ekialdetik; gehien estimatzen duguna ekialdetik iritsi zaigu, eta ekialdera joanez (...) denek pentsatu behar lukete «betiko etxe zaharrera» doazela, oroipenez josia, haiek irakurtzeko gai badira» (29).

Müllerren irudiaren iluntasun alemana gehiegitu gabe, eten bat egin nahi nuke, eta New Englandeko garai hartako egoera hermeneutiko oso adierazgarria aitortu. Uste dut oraindik ere asiar pentsaerarekin etxekotu nahi duten mendebaldar askoren egoera hori dela, segituan konturatzen baitira oso gutxi dakitela eta aldi berean beren baitan asiarra den guztia «mendebaldeko» kultura intelektual eta espiritualaren barruan barneratu dutela.

Badago enpresa estatubatuar bat dibulgazioko audio zinta budistak ekoizten dituen (Sogyal Rinpoche, Lama Surya Das, meditaziorako musika), Sounds True izeneko. Hasieran izen desagokia iruditu zitzaidan irakaspen espiritualak izendatzeko, irudikatzen nuelako norbaitek soinak goratu eta esan zezakeela «Egiazkoa ematen du [*Sounds true*], baina...». Berrikiago, ordea, konturatu naiz, bere apaltasuna gorabehera, «sounds true» hitzek ongi deskribatzen dutela zer sentitzen den irakaspen horiekin bat

etortzean edo haietatik ikastean. Batez ere aitorpen truke bat deskribatzen du; kasurik onenean, harridurazko aitorpen truke bat. Egiaren txantiloia jada entzulearen barruan balego bezala, haren ezaugarriak argituak gerora «egiazkoa» bezala beregana dezakeen irakaspen batekin topo egitean.

Transzendentalistekin bezala, zaila da jakitea nola pentsatu behar den egoera hermeneutiko horretaz. Arrazoizkoa izango litzateke halako «ikasketa» bat zalantzan jartzea erabateko tautologia delakoan, denok ezagutzen ditugun mendebaldeko topikoen proiektzioa Ekialde fantasiatzko baten pantaila glamorosoan. Edo topaketa hori moldatze eszena gisa deskriba liteke, zeinean tradizio budista konplexu batetik mendebaldeko kontsumitzaileak egoera jakinetako premiei erantzun simetrikoa ematen dieten osagaiak bakarrik aukeratzen baititu, eta emaitzari «budismoa» deitzen baitio, harro-harro.

Beste aukera bat da ezagutze sentipena sortzea bere jatorrizko budistarekin batera mendebaldeko pentsamenduan erabilera etengabeak bertakotutako zenbait ideia historikoki budista elkartzetik. Adibidez, ez-dualismoan ezarritako edozein enfasiak «egiazkoa eman dezake» nire gogoan, eta ez naiz lehena izan joera baten aztarnak historikoki ez-dualerantz bilatzen saiatzen, demagun, desereikitzearen bidez, eta haren aurrekari modernoak gero eta espekulatiboagoak diren asiar harremanetara, atzerantz zabaltzen direnak zenbait kristau heresiaz, neoplatonismoaz, gnostizismoaz, Platoz, presokratikoez, eta abar.

Baina perspektiba genealogiko honek itzulera infinituzko bi mota eskaintzen ditu. Bata historikoa da: Transzendentalisten garaian, orain bezala, berreraikitze espekulatibozko tradizio sendo bat zegoen jada (gutxienez Berpizkunderaino iristen dena), molde eta xede berbera partekatzen duena. Hala, historia intelektualaren ikerketa enpirizista bezala hasten dena azkar bihurtzen da tradizio hermetiko, esoteriko, masoi, teosofiko, okultista, rosenkruztar eta mendebaldeko oinarritzko beste halako tradizioak barne hartzen dituen historiografia nahiko fantasmatikoen ispilu-joko zorabiagarri. Aldi berean, historia pertsonalaren perspektiba ere nahiko frustagarria da. Sounds True zintak egiazkoak iruditzen bazaizkit, ezin daiteke izan besterik gabe deseraikitzea gogora dakartelako; azken batean, zergatik zirudien egiazkoa deseraikitzea? Gogoratzen dudan neurrian (ez dakit ezertarako balio duen), irakaspen ez-dualistak irudit

izan zaizkit beti egiazkoenak.

Egoera hermeneutiko honetan dagoen beste aukera bat da erakartzen zaituzten irakaspenak egiazkoak iruditzea egiazkoak *direlako*, eta jende batek, ekialde zein mendebaldekoak, halakotzat jotzen dituela, nolabait banako sarrera dutelako *philosophia perennisen* mundu alorreko estratu ahistoriko batera.

Egoera aztertzeko bide desberdin horietako bakoitzak bere historia eta erudizioa dauzka, eta bakoitzak esperientziaren, pentsamenduaren eta politikaren oinarri subjektiboei erregutzen die modu desberdinez. Hala ere, badute ezaugarri komunik: ukitu gabe uzten dutela esparru pedagogikoaren izaera itxuraz tautologikoa. «Egiazkoa ematen du» irizpidearen arabera, antza denez soilik ikasi dezakezu lehendik zenekiena, zeure kultura natiboaren bidez, ideia historikoki arrotzen epe luzeko introiekzio kulturalaren bidez, edo zuzeneko senez.

Pedagogia budista nekez da zirkulu hermeneutiko ezagun honetan sartzen den pedagogia bakarra. Jada dakizunaren bertsioak bakarrik ikasi ahal izatearen edo bilatzen ikasi duzuna bakarrik aurkitzearen heideggertar paradoxa/ez atzera ez aurrerako egoera/eskandalua bai teorikoki bai estrategikoki ezaguna da mendebaldeko erudizioaren diziplinetan. Hemen tautologia hermeneutikoa beti ikus daiteke deslegitimazioaren euskarri gisa, baina inoiz erabat integratu gabea edozein protokolo diziplinarioren praktikan. Zeren nola integra liteke? Asko jota, ikerketagai bat da.

Pentsamendu pedagogiko budistan, hala ere, ez dirudi jada dakizuna ikastearen itxurazko tautologia paradoxa bat denik, ezta ez atzera ez aurrerako egoera bat, ezta eskandalu bat ere. Arazoa ere ez da. Ezer izatekotan, praktika berriazko eta definitzaile bat da.

Elizabeth Palmer Peabodyk egun batean zuhaitz baten kontra talka egin zuenean, normala den bezala, galdetu zioten ea ez zuen ikusi bere bidean zuhaitz bat zegoela. «Ikusi nuen», izan zen haren erantzun ospetsua, «baina ez nintzen hartaz *konturatu*»» (Ronda 261). Pasadizoak halako lausotasun transzendentalista agerian uzten badu ere, halaber adierazten du nolako interesa zeukan jakitearen psikologiatik eta fenomenologiatik zetorren zabaltze bereziki budista batean. Mendebaldeko zentzu komun modernoan, izan ere, zerbait ikastea atalase sinple bat zeharkatzea baita; *ikasi* duzunean *badakizu*, eta gero beti jakingo duzu *ahazten* (edo agian

erreprimitzen) duzun arte. Ereditu horretan, gauza bera berriz ikastea eskatutako pizza bera bi aldiz ekarri dezaten bezain logikoa da.

Lagunarteko solasean, eta bakarrik lagunarteko solasean, ingelesez ere bereizi egiten da, demagun, ideia edo proposamen bat aditzearen, hura ulertzearen, buru-belarri hartzearen, konbentzitzearen eta guztiz jarraitzearen artean. Horien artean bereizketa egin daitekeen neurrian, noski, tautologiaren arazoa desagertu egiten da. Pentsamolde budistan, halako desberdintasunen gunea zentrala da, epifenomenologikoa baino areago. Zerbait *jakitetik* horretaz *konturatzea* pasatzea, Peabodyren formulazioan, urteak edo bizitza osoak behar dezakeen zeregin trinko prozesal baten gisan ikusten da. Gauza guztiak jaio gabeak direla –baita bodhisattva batentzat ere– dioen ideia ulertezina «toleratzeak» ere gauza bera ezagutzearen hiru eboluzio fase behar ditu (Thurman, *Holy5*). Eta norberak duen formaren ideia, beti garatzen ari dena, halako mugarri batzuetatik pasatzen da, hala nola: forma ikustea; barne formarik eza kontzeptua duen norbaitek kanpoko forma ikustea; formatik askatze sentipen fisikoa eta haren sendotzea; espazioaren mugagabetasunean sartzea, espazioaren mugagabetasunaren esparrutik harago joanda; ezerezaren mugagabetasunean sartzea, kontzientziaren mugagabetasunaren esparrutik harago; eta ez kontzientzia ez inkontzientzia den esparruan sartzea, ezerezaren esparrutik harago (153).

Budismoak bere ikaste psikologia aberatsa aurrealdean eta erdigunean jartzeak, mendebaldeko pentsamendu gehienak bezala itxurazko biribiltasun oro gutxietsi beharrean, arrazoi posible bat izan dezake: ezagutzea bera jakintza budistaren xede bat dela, bai bitarteko bat ere. Batez ere hainbat Mahāyāna adierazpenetan, *konturatzeak* funtsean esan nahi du *aitortzea* –Buda, gogoaren izaera, fenomenoak, guria, hustasuna, agerpenak tarteko estadioan– norbera ez beste zerbait bezala. Garbi dago halako aitortpen bat ezin dela gertakari kognitibo azaleko bat izan.

Beste geruza bat, beraz, Transzendentalisten egoera hermeneutikoan eta gure egoera batzuetan. Pentsaera pedagogiko budistak erakarrizko mendebaldeko irakurlea arrisku handian egon daiteke hura testuingurutik ateratzeko eta nahasteko, jaramonik egin gabe haren kultur bestelakotasunari, are bere irudira birmoldatzeko ere –horra aditu kritikari batek arestian identifikatutako aje orientalizatzaile okerrenak– halako neurritan, non jakitearen zentzu budista batez bereganatu baitezake,

zentzu mendebaldarrean baino gehiago. Alderantziz, aitortzearekiko –prozesu trinkoa eta praktika aktiboa ere baden aldetik- begirune budistaren esparru barrutik, mendebaldarrek budismoa iritsi ote dezaketen adituen eszeptizismo teoriko batek agerian utzi dezake mendebaldar «jakitearen» fenomenologia ahul batekiko nolako dependentzian dagoen.

Nire katuak gauza hezigarriren bati –ilargi betea, edo, demagun, bere argazki bat- begira diezaion nahi dudanean, koreografia aurreikusitako bat gertatzen da. Hatzaz erakusten diot begira diezaiola nahi dudan gauza, eta hark, jakin-minak bultzatua, nire hatz erakusle luzatuan jartzen du arreta, eta hura esploratzen hasten da usnaka.

Huts egindako pedagogiazko eszena hori antzezten den bakoitzean (eta sarri izaten da, nireztat hatzaz ez erakusten ikastea nire katuarentzat ez usnatzen ikastea bezain zaila baita), Sakyamuniz geroztik budismo irakasleak liluratu dituen arazo pedagogiko batean harrapatuta geratzen gara. Izan ere, literatura budistan «ilargia hatzaz erakustea» izen teknikoa ematen zaio, eta hizkuntzaren eta ez linguistikoaren inguruko auzi sorta bat hartzen du barne, mendebaldeko irakasle zein ikasleentzat erakargarria egin ez zena XX. mendea arte.

Litekeena da Elizabeth Peabody, Bronson Alcott eta XIX. mendeko mendebaldeko beste irakasle askorentzat pedagogia budistaren goian aipatutako aitortze/jabetze alderdiak interpretazio oker askori atea irekitzea, batez ere identifikazio positiboaren hausturarik gabeko pedagogia baten haien itxaropenaren irudian. Thomas Tweedek *The American Encounter with Buddhism: 1844-1912* liburuan ohartarazten duen bezala, estatubatuar interesatueneke ere gogor egin zieten historikoki budismoaren alderdi negatibo larrietako gehienei. Europar Indologiaren hasieratik, adibidez, eta Grezia Klasikoan izandako aurreiritzi beraren adierazpenak gorabehera, mendebaldeko akademikoak sinesgaiztasunezko harresi bat izan ziren patu zorionsuena ez jaiotzea (edo birjaiotzea) dela dioen hipotesi hinduista eta budistaren aurrean. Schopenhauer eta azkeneko Freud alde batera utzita, ez-izatean motibo bat bilatzea kontsideratzen zen, arrazoren batengatik, giza jardueraren muga definitzaileetatik kanpo geratzen zela. Transzendentalisten monismoak ere, arbuia egiten zuen budismoaren joera ukatzaile osoa; natura eta espiritua bat diren eta sendotasuna zentzumenean ilusio bat den intuizioa, ez zen inoiz gauzatu hutsunearen ezein irakaspenetan.

Antzeko moduan, Transzendentalisten ikastearen ideia ezagutze mota gisa ez zuen inoiz aztertu, tradizio budista askok egin duten moduan, hari dagokion kontu bat, alegia, nola –eta ea- gerta daitekeen ikasketarik berezko ezagutzarik ez dagoenean. Azken batean, bodhisattva pedagogiaren geruza anitzek eta iraupen luzeak erakusten dute haren zailtasuna, bat-bateko argitzeen narratibek haren bakuntasuna erakusten duten bezain garbi. Bronson Alcotten gogo-mugen ideia ezer negatiboa irudikatzeko zailtasunari soilik zegoen lotuta. Peabodyk ohartarazi bezala, eskola batean «irakasten zen *ezere*z hitzaren jatorria, *ezer-ez* hitzetatik eratorria. Alcott jaunak galdetzen zien ikasleei ea pentsa zezaketen *ezertxo ere ezaz*, edo ez ote zuten pentsatzen zerbaitez edo batez gero *ezere*zaren ideia abstraktura iritsi ahal izateko. (...) Alcott jaunari komenigarria iruditzen zaio haurrei uztea ulermenaren mugak ikasten muga horiek sentituz» (Peabody, *Record* 29).

Peabodyrentzat, Alcottentzat bezala, hizkuntzaren izaerak berak arazo pedagogiko gutxi planteatzen zituen; ezer egitekotan, irakaspen espiritualerako bitarteko egoki bat eskaintzen zuen. «Hizkuntzak», idatzi zuen, «bi izaera baititu, espirituala eta materiala, funtsezko esparru bat da bizitza intelektualarentzat, materialtasunik harago; labur esanda, mundu metafisiko bat osatzen du, zeinean espiritu finitu eta infinituek bat egiten baitute beste espiritu finituekin eta Infinituarekin» (*Lectures* 93). Ez zen horren problematikoa, ordea, metodo ez-ahozko, deiktikora jotzearen lehentasun teorikoa: funtsean, gauzak erakustea. Alcotten Esaera Orokorren artean daude «Irakastea batez ere gauzen, ez hitzen, Jakintza» eta «Irakastea objektu sumagarri eta ukigarriaz ilustratuz» (318). Urteak joan, urteak etorri, eta Froebel hezitzaile erromantiko alemanaren eragin gero eta handiagoz, Peabody are suharrago jarri zen «gauzak» erakusteari: «Lehen printzipio bat da objektuak, mugimenduak edo ekintzak haiek izendatzen dituen hitza baino lehenagokoak direla. (...) *Gauzen* legeak dira *pentsamenduaren* legeak» (*Lectures* 48).

Pedagogia budista ez da, ezta hurrik eman ere, hain optimista gauzak esatearen eta erakustearen inguruan. Walter Hsieh laburbiltzen duen bezala, «Mintzamena bitarteko eraginkor gisa erabiliz, Budak sutra asko esan zituen, «ilargia erakusten duen hatza» bezala hartu behar direnak, ez ilargia bezala. Budak esan zuen: «Ez dut hitz bakar bat irakatsi nire Dharma

predikuetan emandako berrogeita bederatzi urteetan». Sutrek sarritan gogorarazten digute esanahiaz fidatu behar dugula, hitz hutsetan baino gehiago. (...) Irakurleek ez lukete ahaztu behar ez direla hitzak, hitzekiko loturak baizik, arriskutsuak direnak. Ilargia erakusten duen hatza diren aldetik, sutren funtsezko funtzioari eutsi beharko litzaioke» (in Chang 23 20. Oin oharra). Hatz/ilargi irudiaren helburua da erakusteak mintzatzeak baino gaizki-ulertu gutxiago sorrarazi litzakeela, baina haren zehaztasun ez linguistikoak ere ezin duela babestu erreferentziaren inguruko arazo arriskutsuetatik.

Arazoa beste modu batean jarrita, ikasle arduratuegia –nire katua, esaterako- gaizki ulertzen ari da erakustea den hizkuntza ekintza mota, edo, esan genezake, ekintza mota: niretzat, «erakustea» da lokuzio garrantzitsua, eta katuarentzat, «eskaintzea». Budaren lau egia nobleak («“Bizitzea sufritzea da”, “Sufrimenduaren kausa irrika da”, eta abar») *sinesmen* paralelo, postulatu alorreko gisa kontsideratzeak, *eskaera* aktibo eta performatiboki bereiziak bezala bainoago («estutasuna *ulertzeko*, haren jatorrietatik *askatzeko*, haren amaieraz *jabetzeko*, eta bide-zidorra *lantzeko*»; 4-5) Stephen Batchelorrek aurkitzen duen hutsegite mota bera da.

Beharbada «ilargia erakusten duen hatzaren» arazoa gainditzen Mahāyāna budismoak saiatu zuen era bereziena *halatasunaren* eta *halakotasunaren* (sanskritoz, *tathatā*) hizkera deiktiko batez izan da. Kukaik idatzi zuen bezala, «Dharma mintzotik harago dago, baina mintzorik gabe ezin daiteke jakinarazi. Halakotasuna formatatik harago doa, baina ezin gauzatu daiteke formaren menpean egon gabe. Nahiz eta batzuetan huts egin daitekeen, ilargia erakusten duen hatza ilargia delakoan, gure herria gidatzen duten Budaren irakaspenak mugarik gabeak dira» (Hakeda 145-46). Buda bati Tathāgata esaten zaionean, hots, «hala etorria», edo XII. mendeko japoniar testu batek gomendatzen duenean gauza arruntan «halakotasunaren» kontenplazio are une batekoa ere argitze bizkor baten bermea dela (Stone 199), erakustearen keinua gutxienez modu bikoitzean ari da erabiltzen. Erakusten ari den fenomenoaren delako ziurtasuna adierazten du, baina aldi berean baita haren ezin azalduzkotasuna, ulertezintasuna eta are nortasunaren izaeraren hustasuna ere. «Bere alderdi dinamikoan», W.T. de Baryren formulazioan, halakotasuna «adierazpena da, fenomeno, Egintzen esparrua» (167). Ildo horretan, «ekzeitasunarekin» aldera liteke,

halakotasuna adierazteko Joan Duns Eskotoren hitz latinoarekin, zeina Deleuzek maileguan hartu baitzuen, demagun, «ordu baten, egun baten, bolada baten (...) bero maila baten, bizitasun baten» presentzia hutsa edo «banakotasun perfektua» izendatzeko (Deleuze and Parnet 92). Budismoaren «alderdi estatikoan», bestalde, de Baryk dio, «Halakotasuna Hutsa da, noumenoa, Printzipioaren alorra». Eta, hustasunaren zentzu horretan, halakotasuna, berriz, Deleuzeren «ekzeitasunaren» baliokidea izan liteke: pertzepzioa iradokiz, sumatzailearen eta sumatuaren artean ez barne identitaterik ez hausturarik inplikatzeko duen edozein gauza.

Orduan, badirudi halatasuna trinkotu egiten duela keinu bakar batean –hatzaz erakustearen oinarritzko baliabide pedagogikoan-mugimendu bikoitz bat: erakarren apertzeptibo bat fenomenoetara haien espezifikotasun neurtezin, artikulatu ezin guztiarekin, eta aldi berean haien espezifikotasunaren eta, areago, haien izatearen itxurazko oinarri ontologikoen baztertzeko bat. Mugimendu bikoitz burrunbari horren ozentasun azkengabeak iradokitzen du Dalai Lamak hustasunaren irudi gisa kanpai baten barnealdea eskaintzen duenean zer esan nahi dezakeen. Gainera, Tathātā, forma hustasunarekin konbinatu ez ezik, forma guztiak elkarrekin konbinatzen ditu, era ez-dualista batean: «bakoitza identikoa den guztiarekin eta bere baitako beste guztiak barne hartuz» (Stone 201).

Horregatik, azkenik, halatasunaren ikuspegiak, hatzaren eta ilargiaren arteko bereizketa bera ere desagertu egiten da, eta harekin batera, agian, elkarrekin nahastearen aurkako agindu aspaldi-aspaldikoa. Gaur egungo Zen abade batek ohartarazi bezala, «ilargia erakusten duen hatza ilargia da, eta ilargia hatza da (...) bata bestea gauzatzen du» (Looi 8). Kōan iruzkin batek garatzen du ideia: «Monjeak galdetu zuenean “ilargiaren” esanahiaz, maisuak [Fa Yen] erantzun zuen “hatzaz erakustea”; beste norbaitek galdetu zuenean “hatzaz erakustearen” esanahiaz, maisuak “ilargia” erantzun zuen. Zergatik zen hori? Ziurrenez arrazoitze sakonena Ch’an maisuaren gogo argituan zegoen, bertan ez baitzegoen bereizketarik gogo arrunt batek “hatzaz erakustea” esaten zionaren eta “ilargiaren” artean. Harentzat, bien arteko erlazioa itsaso baten eta haren olatuen artekoaren antzekoa zen» (Holstein 49).

Baina kontzeptualki askatzailea izan arren, halako esanahi konplexuki gauzatu bat «hala» eta «halako»tan trinkotzeak nolabaiteko

menderaezinezkotasun pedagogiko bat ere adierazten du. Badirudi esan nahi duela pedagogia budistak ez duela *jada* ulertzeko funtsezko gutxienekoa eskaintzen. Artikulatu gabeko irakaspenaren akatsa den erakuste keinuak berak lezio zaila hezurmamitzen duenean, beharbada gertatzen ari da galdetu behar baldin baduzu ez duzula inoiz jakingo (ez bizitza honetan, behintzat). Estatubatuar hezkuntzaren optimismo demokratikoak suposatzen du irakasgai bakoitza zati txikiago, gero eta asimilagarriagoetan banatu daitekeela; budismoaren jakintza tradizioek, aitzitik, haien egitura holografikoa dela-eta, suposatu behar dute ikasleek gainditu egin dutela jadanik ezagutze atalase nahiko garai bat.

Estatu Batuetan badirudi Zenaren XX. mendeko dibulгатzaileei egokitu zaiela, II. Mundu Gerraren ostean, artikulatzen hastea budismoaren molde askotan funtsezkoa dela oinarritzko jabetze bat komunikatu ote daitekeen zalantza errotikoa. Azken batean, Zen praktikak ezin badu promestu era metodiko batez ikaste handiko satori atalasea eramango zaituenik, gutxienez zenbait praktika eskaintzen ditu, hala nola kōanekin burua haustea, ikasketa metodikoaren ezintasuna adierazteko eta agian agortzeko. Gainera, Zenaren anti-eskolastikotasunak eta kontrakulturaren anti-intelektualismo sarriak bat egin zuten ahozko artikulazioaren mugen kontzientzia iraunkor batean. Esplorazio horien 1960ko hamarkadako goren aldian, Transzendentalisten goren aldian baino gehiago, hezkuntza instituzioen kritika izan zen espekulazio utopiko mota ia guztien bitartekaria; esplorazio budistek ikasleen mugimenduan garrantzi gutxi izan arren, hala ere hura ahalbidetu zuten, eta alderantziz.

Ukazio molde horrek Zen dibulгатzaileen artean gero eta ospe handiagoa hartu ahala, hustasuna bezalako ideiak lehen baino ulergarriagoak egin zituen estatubatuarrantzat, eta erakutsi zuten pedagogikoa bezain metafisikoa zela haien garrantzia. *Three Pillars of Zen* eragingarri eta pragmatikoki xehetasunez josiak, adibidez, 1965en argitaratua eta jende asko Zen irakastearen praktika eta teorian sartu zuena, Rinzairena bezalako aholkuen inguruan dihardu: «Ez dago jabetu beharreko gauza berezirik» (Kapleau, 194)¹. Gerra osteko irakurleek esker on zirrargarritz erantzun zioten irakastea eta ikastea zeregin (ia) ezinezkoak, bakartiak, zuzenean gatazkatsuak ez direnean, direla dioen kontzeptuari. Alan Wattsek

1957an idatzi zuen bezala: «Zenaren oinarritzko posizioa da ez duela ezer esatekorik, ezer irakastekorik. (...) Horrenbestez, maisuak ez dio inolaz ere "laguntzen" ikasleari. (...) Aitzitik, ahal duena egiten du ikaslearen bidean oztopoak eta langak jartzeko» (163). Beren bilaketan, 50eko eta 60ko Zen praktikatzaileak arimaren ekintza heroiko bakarti existentzialen izaera batean inspiratzen ziren. Kapleauk, esate baterako, Mumonen lehen kōan bat lantzeko aholkua aipatzen du: «Ez interpretatu Mu ezerez bezala, eta ez hartaz pentsatu existentzia/ez existentzia terminoetan. [Puntu batera iritsi behar duzu, zeinean sentituko baitzara] burdinazko bola gori-gori bat irentsi bazenu eta, zure ahaleginak gorabehera, bota ezingo bazenu bezala» (76). Negatiboranzko haien joeraren parte handi batean «borondate indar hutsezko» gorespen bat zegoen (95): neurri horretan, Zen dibulgatzaileek eskaintzen zuten autonomiaren bertsioan, haren erlazioa hustasunarekin eta ez-izatearekin ez zen Transzendentalistena baino garbiagoa izan.

Bai 1960ko hamarkadako kontrakulturaren loratzea bai haren gainbeherarekin batera gertatutako deslilura sentipena bete beharreko baldintzak izan ziren «heriotza kontzientearen» mugimendua Ingalaterran eta Estatu Batuetan garatzeko 1980tik aurrera. Horretan eragina izan dute Tibeteko diaspora zabalak, hies izurritearen begien bistakotasunak eta abiarazita zegoen hospizioen eta medikuntza paliatiboaren aldeko mugimenduak. Hiesa gizon gazte, hezi eta koherenteen artean (eragindako beste askoren artean) –batez ere gaitza mailakatua delako, eta, oraingo, sendaezina- bat-batean agertzearen eragin bat izan da mendebaldeko kultura esparru bat bereiztea, bertan hiltzearen daudenen subjektibotasuna artikulatzeko. Esparru hori, 1980ko hamarkada arte praktika medikal modernoak nahiko arbuaiatua, orain gero eta eskurago dago heriotza goiztiar bati aurre egin behar dioten beste batzuentzat, eta adindu batzuentzat ere bai, noski. Interesgarria da, 1960ko hamarkadako politika batzuen anbizio komunitariorik ez izan arren, heriotza kontzientearen aldeko mugimenduak harreman askoz handiagoa duela egorik ezaren pedagogia budistan.

Beharbada ez da harritzekoa subjektibotasun horretan barrena mugitzen ari garenok ezohiko baimen sentipen bat izatea XIX. mendeko estatubatuarrentzat oso kezagarriak ziren budismoaren zenbait alderditan arakatzeko. Jakina, geratzen dira oraindik ahots ozenak esaten digutenak, *batik bat* «Ekialde-mendebalde gogo-gorputz medikuntzaren» izenean,

pentsamendu positiboaren erregimen etengabe bat alde batera uzten baimendu behar zaion azken jendea garela. Baina Asiako negatibotasuna deskribatzeko mendebaldeko epiteto historikoetatik kondentatzaileenek –pesimismoa, kietismoa, agortzea, ahitzea- dagoeneko edozein egunetako ideien korrontearen parte saihestezin bat osatzen dutenean, zer eragozpen geratzen da pentsamendu budistako «ezaren» alor dinamikoetako gehiago esploratzearen aurka?

Diagnostikotik heriotza arte zabaltzen den *bardo* garaiak irakaspen budistak hartzera bultzatzen du jende bat; irakaspen budista askotan, baina, *bardoa* tresna pedagogiko berebizikotzat jotzen da. Agian ezerk ez du jakintzaren eta jabetzearen arteko distantzia irudikatzen gaitz hilgarri baten diagnostikoak bezain modu eraginkorrean. Iragarri bezala, gogoia modu miresgarrian kontzentratzen du (nahiz eta hori hura txikituz lortu) eta nabarmendu egiten du hil egingo zarela *jakitearen* eta *jabetzearen* arteko distantzia. Eragina areagotu egiten dute hiltzeko ideia errentzat bizitza osoan izan ditugun erabilera zorrotz guztiek, depresioak, histeriak, hipokondriak, drama estoiko edo existentzialek; horiek kontraste nabarmenean daude norberaren heriotza jakite kognitiboarekiko duen itxurazko opakutasun erabatekoarekin. Errealitatearen adierazgarri bat: osasuntsu nengoenean, suposatzen nuen Pascal-en apustua dezenteko zitalkeria bezala bakarrik ikus zitekeela.

Badirudi heriotza kontzientearen inguruko literatura eta praktikak halako minimalismo estetiko, edo, hobeto, Zen gisakoa, ekartzen diola budista tibetar alorreko irakaspenen ugaritasun joriari. Baba Ram Dassen 1970eko *Be Here Now*tik Stephen Levineren hamaika urte geroagoko *Who Dies?*era, eta hamaika urte joan ondoren Sogyal Rinpoche-ren *Tibetan Book of Living and Dying*era, *bardo* garaiko irakaspenen deskribapena era esponentzialean egin da xehakatuagoa eta aberatsagoa. Baina Sogyal batek ere, ikusi dugun legez, sinpletasun erretoriko ia haur-antzeko batetik irten ezinik gordetzen du irakurlea; badirudi hartara irakurlea aske mugi daitekeela bidaiako irregulartasun kultural eta ontologiko larrietan zehar. Gainera, Sogyal-en liburutik ingelesezko ia beste edozein tibetar testura –heriotzearen inguruko angloamerikar-tibetar solas berezi honek taxutzen ez dituen hainbat eta hainbat liburutara- pasatzea da bat-batean gelditu behar izatea, Sogyalek berak iradoki besterik ez zuen

alteritate baten trinkotasunak geldiarazia.

Idazlan horien estetikari Zen gisako deitzean ez naiz haien tonalitate afektiboaz ari. Haietako guztiak, Sogyalena barne, espresibotasun emozionalez gainezka daude. Zen alderdia –agian hobeto Tao alderdia-, aitzitik, bitartekoen ekonomian jarritako balio izugarri handian agertzen da. Budaren «eraginkortasuna bitartekoetan» esaldiak, beti bitarteko pedagogikoei dagokiena, molde ikaragarri landuak har ditzake sutretan. Hiltzen irakatsi eta ikasteko proiektu moderno honetan, aldiz, ekintza mantsoak edo are ekintza negatiboak ere eraginkortasuna irudikatzen dute, antza. Helburua da ahal beste lantzea, Vimalakīrtiren formulazio baten arabera, «isiltasunean, ezin adieraztea eta ezin irakastea» (Thurman, *Holy* 86). Inork ez dio hiltzeari huts egiten; asko jota, zeure bidetik irten zaitezke.

Hala, hiltzeko argibideak hiltzearen daudenekin lan egiteko argibide berdinak dira. Egoera horretan ikasteak eta irakasteak funtzionamendu pasiboena eta gutxienekoa eskatzen du. «Irekitzea» (pertsona edo dilema bati), «leuntzea» (gune minberatu bat), *entzutea*, erlaxazioa, eremu zabaltasuna, pazientzia *pateor* edo zabalik egotearen zentzuan, arnasketa partekatua: ez-egitearen praktika hauek, horietako batzuek New Age topikoak baino apenas gehiago ematen dutenak, gai dirudite errearen zentzu magnetiko bati eusteko nortasun ezabatuen atariraino. Sandra Butlerrek idatzi bezala, «Haragia ustelduz, gogoak gorputz akastunetan harrapatuta, bihotzak taupadaka, bizitza bultzaka saihetsezur argalen kontra, hiltzen ari direnak zaintzearen esperientzia liminalak irakatsi dizkit hitzen arteko beharrezko isiluneak, arnasa agertzen den etenak, loturaren mututasuna» (4). Eta ezustekoa da, izan beharko ez balu ere, ia ezabatzea den ez-egite bat izatea *adiskidetasunerako* posibilitate-baldintza suntsipenezko eremu hauetan.

Estetika pedagogiko bat den aldetik, minimalismo apal horrek elkartu egiten ditu «ekialdeko» eta «mendebaldeko» eraginak orain ezaguna egiten zaigun feedback historikozko begizta batean. 1836an, adibidez, Bostoneko emakume helduentzat solasaldi espiritual eta politikoak eskaintzeko nahia deskribatzean, Margaret Fuller transzendentalista zalantzan zegoen entzuleek ulertzen ote zuten esaten zuena tonu itxuraz berri batez zioenean: «Badakit oso zaila dela [parte-hartzaileentzat] alde batera uztea orotariko

kontu lausoen babesa, zirkulu kritikoen jargoia eta *jendarte onaren* destaina finak, eta argia topatzea beldurrik gabe, egiaren eguzkitik badator ere. Hala ere, halako adore eskuzabalik gabe ezer egin, edo ikasi, ezin baitaiteke, espero baino ezin dut egin hori egiteko gai diren asko ikustea. (...) Isiltasun orokorrak edo albo iruzkinak paralizatu egingo nindukete. Arrunt eta lekuz kanpo sentituko nintzateke gehiegi harengatuko banu. Beste batzuetan gai izan naiz hogeita hamarretik hogeita bostentzat aise, eta are atsegingarri ere, egitea haien parte-hartzea, haien iritziak zalantzan jartzea, definitzea, aurkeztea eta aztertzea. Orain horrenbeste iritsiko ez banu, pentsatuko nuke ez ditudala nire helburuak lortu, eta atzera egin beharko nuke (Kornfeld, 98-99).

Bestalde, hurrengo mendeko amaieran, Robert Thurmanek *Essencial Tibetan Buddhism* liburuan Budaren apaltasunaren pedagogiaren antzeko deskribapen bat egitean, irudipena ematen du sustraituta dagoela Estatu Batuetako kultur molde ezagunetan, hala nola terapia taldeak edo batzorde antolatzaileak: «Hala, suposatzen zen Budaren haragitze batek gupidazko adierazpen bat izan beharko lukeela, eta haren helburu bakarra, jendea bere barne potentzial garaiari irekitzea. (...) Buda batek ez du zentroaren ideia sendo bat, guk bezala. (...) Buda baten energia guztiz gurekin eta guretzat dago topatzen dugunean; ez dago bertan ezein energia murrizte edo areagotze gurearen kontrakorik. (...) Halako izaki bat, haren moldea gorabehera, puntu fokala da alor batean, zeinean beste izate/izaki batzuek aukera maximoak aurkitzen baitituzte eboluzioan aurrera egiteko, modu ikusgarrian irabaziz adimen areagotua, emozio, pertzepzio eta sakontasun hobeak, askoz hobeto sentituz, askotan arazoak gaindituz eta gauzak askoz hobeto eginez eta ulertuz» (21-22).

Ez dut iradoki nahi Thurmanen idazlanen kutsu estatubatuarrak hura modu distortzionatzaile edo bereganatzaile batean markatzen duenik. Aitzitik, «mendebaldekoa» izateko haren moduak kokatzen du elkarrizketa jarraitu, palimpsesto-antzek baina oso dinamiko batean zenbait asiar irakaspenekin, haien artean eta are haien barruan ere².

Zer esanahi izan dezake hatz erakuslea eta erakutsitako ilargia banaezinak bezala ikustea? Bitartekoak helburuekin nola erlazionatzen diren inguruko meditazio budista jarraitu baten parte bezala ikusten dut nik irudi hori. Irudi ez pedagogiko batek, hala nola, bidaia bera helburu gisa

ikustea, nahikoa errazten du bitartekoak eta helburuak gauza banaezinak bezala ikustea. Baina nahitaez irakaspen irudi bat gogora dakarren irudi batekin, eta pentsamendu hermeneutiko budistaren tradizio oso apalean, antza denez beharrezkotzat jotzen da errutinaz azpimarratzea identitaterik ez dagoela bitarteko eta helburu pedagogikoen artean, eta bakarrik noizean behin aipatzea haien banaezintasuna.

Baina gaitzaren eta hiltzearen pedagogiak, jada iradoki dudan moduan, elkarrekiko erlazio ezohiko batean jartzen ditu bitartekoak eta helburuak, eta erakusten du zein zaila izan daitekeen modu egonkor batean ikasle, irakasle eta irakaspen etiketak egozte. Vimalakīrti elbarriaz, adibidez, esaten da «bere burua gaixo gisa agertzen du[ela]», «teknika askatzailean oso trebea delako» (Thurman, *Holy* 21). *Bardo* irakaspenek kontsideratzen dute heriotza dela «[askapen aukerak] aurkitu eta haietaz jabetzea ahalbidetzen digun giltza edo tresna, eta haiek ahalik eta gehien erabiltzen dituela» (Sogyal 104). Heriotza kontzientearen mugimenduan topiko bat da –baina topikoa baino gehiago ere bai-, Cicely Saundersen hitzetan, «Lehenago edo geroago, hiltzen ari den jendearekin lan egiten dutenek badakite[la] gehiago ari direla hartzen [hiltzorian daudenengandik], ematen baino» (Sogyal 177). Izan ere, bada dibulgazio liburu espiritualen azpigenero bat, *Hiltzen ari direnen Ikasgaiak* eta *Azken Opariak* bezalako izenburuekin, jende osasuntsuak hiltzen ari den jendearengandik nola ikasi dezakeen azaltzen dutenak. Areago, bada urtebete irauten duen eta gaitz hilgarri bat duzula irudikatu behar duzun buru-laguntza programa bat (Levine, *Year*).

Hala, gaixo-ohea edo hil-ohea irakasteko agertoki nagusi gisa etengabe agertzen den bitartean, rol pedagogikoak esleitzea egongaitza da, baita bitartekoak eta helburuak esleitzea ere. Gaixotasuna eta heriotza beste helburu baterako bitarteko eraginkorrak al dira, edo (beste) bitarteko eraginkorrak erabiliz gauditu beharreko arazoak? Bizitza praktikatzeko heriotzaren presentzia etengabe bezain kontzienteki; bizi zaren bezala hil ahal izatea, kontzientziak eta duintasunez; Vimalakīrti bezala, hustasunaz ikasi edo irakatsi ahal izatea heriotzaren hurbiltasunetik; heriotzaren eta transmigrazioaren *bardoa* bizitzea nahigabeko birjaiotzetik askatasuna lortzeko bidea den aldetik... Xede horiek ez dute elkar salbuesten, baina desberdinak dira, inolaz ere. Haien artean

zaila da esatea zein hatz ari den zein ilargi erakusten.

Heriotza kontzientearen mugimenduaren literaturak, baita Sogyal Rinpocherenak ere, izendapen erlijiosorik gabeko konpromiso komun bat dauka, erlijio desberdinetako edo erlijiorik gabeko irakurleentzat interesgarria egiteko pentsatua. Hau da, helburuen eta bitartekoen arteko hurbiltasunaren, de fakto haien banaezintasunaren sentipena da mugimendu horren marka finkoa; areago, haren bitartekoen ekonomiaren adierazpen sendoena. Tibetar irakaspenetan, ordea, murriztu ezinik geratzen dena, baita haien bertsio mendeabazaleenetan ere, da birjaiotzean jartzen duten enfasi pragmatikoa eta benetan hiltzearen esperientzia subjektiboaren zalantzarik gabeko narratiba.

Jende osasuarekin mintzatzen naizenean gaixotasun bat jasateaz mugimendu horren testuinguruan, gure solasa maiz hausten da berraragitzearen inguruan: Horretan sinesten al dut? Nire solaskideak dio berak ez lukeela inoiz sinetsiko. Elkarrietzak horiek bi aldeentzako bakartzaileak eta defentsiboak izateko joera dute³.

Dena den, ikuspegi pedagogiko batetik aztertuta, *bardoen* eta birjaiotzearen inguruko tibetar irakaspenak izugarri aberatsak dira. Birjaiotzearen esparruak giza bizitza ikaste proiektu oso konplexu eta askoz luzeago baten testuinguruan ipintzen du. Gaintitzean edo ez gaintitzean oinarritutako funtsezko irakaspen bat izan beharrean, kristautasuna bezala —edo are kalifikaziorik gabea ere, bertsio sekularrean bezala—, gizabanakoaren bizitza norberaren eskolatzeko urte bat bezalakoa da, eta bai aurretik bai ondotik beste eskola urte batzuk daude dagokien mailetan. Hala ere, berraragitzea eskola eta institututik edo unibertsitatetik bereizten da funtsezko kontuetan. Uda bakoitzean, ia ikasle guztiek nor direneko oroimen ia guztiak galtzen dute. Irailean gehienek ahaztu dute matrikulatuta daudela. Hasiera batean maila sorta ordenatu bat badago ere, oso ikasle gutxik jarraitzen dute behar bezala; horren orde, bost maila atzera egiten dute, haurtzaindegitik zuzenean graduatzen dira, edo laugarren maila errepikatzen dute milaka aldiz. (Promozio sozialik ez dago. Baina urteroko amnesia jendeari laguntzen dio huts egiteak eragindako lotsa edo adoregabetasunik ez sentitzen.) Ikasleak desberdintzen dira halaber beren heziketaren helburuaren arabera. Batzuek beti hala jarraitzea nahi dute. Beste batzuei gustatu ez, eta unibertsitatea betiko uzteko prestakuntza

gisa ikusten dute. Beste batzuek ez dute ikusten unibertsatetik kanpoko mundua, eta ikasle irakasle rolean beren ikasgeletara itzultzeko irrikaz daude. Egia esan, oroimen arazoa dela-eta, maila bakoitzean asko geratzen dira pentsatzen beraiek edo beren gelakideak *badirela* jada ikasle irakasleak.

Orain, bederen, ez dakit zer logika izan lezakeen halako azalpen bat sinesteak edo ez sinesteak. Esan dezakedan gehiena eta gutxiena da harekiko erlazioak, hainbeste bufoikeriarik ez duten bertsioak barne, berrantolatu egin duela nire iritziz hiltzearen auziak inguratzen dituen kontzientziaren paisaia. Zehazki, paisaia oso zabaldu da. Sartzen nintzen baina irteten asmatzen ez nuen korapilo epistemologiko/psikologiko oso mingarriak ditut gogoan: Benetan beldur ematen dit heriotzak, edo ez? Nola bereizi dezaket bizitzaren nekaduraren eta heriotzaren erakarpenaren artean? Nola dakit zalantzarik gabeko nire ateismoa ihartuko ote den hosto baten antzera haize beroaren eraginez? Benetan, *egiatan*, konturatzen naiz, orain ere, hilkorra naizela?

Galdera horien izaera murriztaile obsesiboa ziur aski nabarmena da singularreko lehen pertsonan daudenean, hori geldiarazi beharreko zerbait balitz bezala, hutsaren hurrena izan beharrean. Haien eraginkortasuna faltaren seinale okerragoa da haiekin obsesionatuta nengoen bitartean neuri ere izugarri aspergarriak iruditzen zitzaizkidala.

«*Benetan* sinesten dut birjaiotzean?» galderak agian besteen antzera funtzionatuko luke, edo askoz interesgarriagoa ere izan liteke. Robert Thurman bezalako adituen birjaiotzearekiko temari erantzunez, Stephen Batchelorren *Buddhism without Beliefs* 1997ko liburua saiatzen da jarrera ez sineskor ez sinesgaitzezko bat artikulatzen. Batchelorrek dio agnostizismo printzipiodun bat dela biderik onena bitartekari izateko «etorkizunarekiko erantzukizunaren», alde batetik (113), eta «beste garai batzuetako klixe eta dogmen» artean, bestetik (104). Baina XX. mendeko enpirizismo sarri zalantzan jarri gabearen mendean dago. Birjaiotzeaz espekulatzeak ere, kexatzen da, «Budaren perspektiba agnostiko eta pragmatikotik urrundu, eta eramaten gaitu frogatu zein arbuia ezin daitezkeen ikuspegi metafisikoak hartzera» (36). «Budista agnostiko batek ez luke Dharma ikusiko nondik gatozen, nora goazen edo heriotzaren ondoren zer gertatzen den galderen «erantzun» iturri baten moduan. Esparru egokietan bilatuko

luke halako jakintza: astrofisika, biologia ebolutiboa, neurozientzia, etab.» (18). (Harrituta ikasi nuen diziplina horietako edozeinek aztertzen duela zer gertatzen den heriotzaren ondoren) Eta programatikotik gutxien duenean ere, *kontsolamenduarekiko* destaina kezkarri batek markatzen du Batchelorren agnostizismoa. Adibidez, birjaiotzean sinestea kritikatzan du «kontsolamenduaren luxua» delakoan (43).

Beraz, zabaltasunaren eta ez jakitearen aldeko aldarrikapenak gorabehera, Batchelorren liburuak sarri partekatzen du «*Benetan jabetzen* naiz...?» bezalako korapilo psikiko estu mingarrien sentipena. Nortasuna antzeko eran bakartu eta geldiarazten du, adibidez. Hitza gutxiespenez erabiltzen badu ere, ez dut uste Batchelorrek, zeina «besteen larridura moteltzeko gogoa[z]» mintzatzen baita, *haien* kontsolamendua gauza gutxiesgarria dela benetan uste duenik (104). Alderantziz, garbi dago bera dela inoiz kontsolamendurik nahi edo behar ez duena. Nori eta *norbaiti* planteatzen dizkion exijentzia existentzialak gupidagabeak dira; destaina adierazten du «funtsezko gai existentzialen aurrean» «jarrera ez dogmatiko eta ez saiheskako bat arriskatzeko adorea biltzeko orduan» (38). «Agnostizismoa ez da erabakitasunik ezerako aitzakia», gogoratzen dio zorrotz *norbaiti*. «Ezer izatekotan, ekintzarako katalizatzailerik bat da» (38). Irudi moralki gihartsu hori eraiki eta hari eustea zeregin garestia da. Sakrifikatutako gauzen artean dago iraunkortasun ezaren, edo are hustasunaren kontzientzia, zeinaren bidez irudiak bere burua ezagutu bailezake tratamendu gupidatsuago baten premia duten «besteak» ez bezalako beste bat etengabe. Horri dagokionez, heriotza kontzientearen aldeko mugimenduaren etengabe zirkulatzen ari den pedagogiak malguago, norabide askotakoago eta eraginkorrago dirudi.

Dena den, ez dakit samsara gisako birjaiotze askotarikoak hain kontsolagarriak ematen duten. Niretzat nabarmenagoa da tibetar irakaspenen gaitasuna presentzia den aldetik hilkortasunari aurre egin behar dion jendez betetako mundu batean. Ego bat izatea eta ez izaten ikastea ez da hain itogarria dagoeneko amnesia, metamorfosia eta erlazonaltasun aldagarria duen espazio batean, zeinak haiek fenomeno guztien arragoatzat jotzen baititu.

Irakaskintza horrekin izate soilak desberdintasun handiagoa markatzen du hartan sinesteak edo ez sinesteak baino. Hartu, adibidez,

zure bizitza, are zure izaera ere, den ez bezalakoa irudikatzeko jolas edo meditazioa, birjaiotzea irakastea aise ager daitekeena. Hainbat eta hainbat galdera sortzen dira. Baina haien agerpena ez da gertatzen errua edo buru-erruaren, borondate edo deliberoaren testuinguru batean. Espazioa gehiago da zera bat bezala... Zer bezala? Desira? Non edo non, gutxienez, posibilitateak eta ezintasunak, eta batez ere egoarekiko askatze erlatiboak, askatua.

Demagun pentsatzen ari naizela lotsagatik, adibidez, edo deserosotasun fisikoaren kontrakoa naizelako, inoiz egin ez ditudan gauza on batzuez. Orain konturatzen naiz «Tasun horiek zerk egin zitzakeen bestelako?» galdera, bizitza historiaren sakonean eta are harago ere, egin daitekeena, sortu eta jarraitzen oso galdera erraza dela, harrigarriro erraza. Gogoeta asko «zabaldu» egin daitezke haren inguruan inoiz ez bezala, ez behintzat galdera *nire* inguruko galdera lotsagarri murriztu eta deontologikoa zenean. Espazio gizartekoi asko dago inoiz ezagutuko ez dudana eta bere aldetik bere adore ezaugarrian nola edo hala harildutako itxaropen izpiaz pentsatu behar ez duen izaki baten desberdintasun irudikagarri eta babeslean. Logikoa al da galdetzea ea halako irakaspenak orainari edo geroari dagozkion? Gutxienez jende batentzat, zenbait historiaren bidez, irakaspen budistak pedagogiaren aldetik aztertzeak luzaro eskaini du haien bitarteko eragingarri zorrotzetan haien helburu iheskorrak ezagutzeko modu bat.

OHARRAK

Saiakera hau 1997ko Yom Kippur egunean bere buruaz beste egin zuen nire lagun eta ikasle Brian Selskyren oroimenaz beteta dago.

1 Dharma funtsean transmisioaren aurka joatea ez da erantzunik gabe geratzen sutretan. Peabodyk heziketa espiritualaren oso bestelako ikuspegi bat aurkitu zuen, ia hausturarik gabea, Lotoaren sutra itzultzean. Vimalakīrtin ere, ospetsua bere isiltasun menderakaitzagatik, teknika pedagogikoen sorta deigarri batez irakurtzen dugu: «Buda-alor batzuek Budaren lana egiten dute bodhisattvaz; beste batzuek argiaren bidez; beste batzuek argitzearen zuhaitzaz; batzuek lortzen dute edertasun fisikoaren eta Tathāgataren marken bidez; beste batzuek lortzen dute jantzi erlijiosoez; beste batzuek janariaren bidez; beste batzuek uraren bidez; beste batzuek, lorategien bidez; beste batzuek etxeen bidez; beste batzuek jauretxeez; beste batzuek haragitze magikoaren bidez; beste batzuek hutsune bidez; beste batzuek zeruko argien bidez (Thurman, *Holy*, 86). Eta Bitarteko Eraginkorren gaineko sutran balirudike bodhisattva batek indar-alor mimetiko baten luzapen fisikoaren antzeko zerbaiten bidez irakasten duela: «Jaun Beneragarria, honela da. Mendien erregea den Sumeraren aurrean dauden izaki kontziente guztiak kolore berekoak dira -urre kolorekoak-, gorroto, lasaitasun edo miresmenezko pentsamenduak edo doktrinara iristeko pentsamendu trabatzaileak dituzten edo ez kontuan hartu gabe. Era berean, jaun Beneragarria, bodhisattven aurrean dauden izaki kontziente guztiak, lasaitasun edo miresmenezko pentsamenduak edo doktrinara iristeko pentsamendu trabatzaileak dituzten edo ez kontuan hartu gabe, denek dituzte izaera bereko pentsamenduak, orojakitezko izaera» (Tatz 45).

2 Mintzatzen da halaber Europako pedagogia erromantikoaren barruko tradizio alternatibo minimalista batez (ikus Rancière). Eta kontuan hartu hiru adibide horiek helduei zuzendutako hezkuntza lanetik hartu direla; logikoa dirudi bitarteko minimalistak irakaskuntzan errazago agertzea helduekiko lanean -a *fortiori*, hiltzen ari direnekikoan-, haurrekikoan baino gehiago. Horrek orobat dakar azpimarratzea Transzendentalistek helduen hezkuntzan zuten interesa haiek utzitako ondare funtsezkoena dela. Peabody, Froebelekin Alemanian ikasi ondoren, Estatu Batuetako haurtzaindegi mugimendu izugarri arrakastatsuen aitzindaria izan arren, beren klase bereko helduei zuzendutako pedagogia jarraitu, ez errehabilitaziozko, orientazio espiritualazkoarekiko Transzendentalisten konpromisoa orijinalagoa zen, eta seguru asko eragin handiagoa izan du.

3 Bronson Alcotten Temple Schoolen patuak adierazi dezake nolako zatiketak eragiten dituen birjaiotzearen auziak mendealdean. 1836-37an eskola hondoratu zuen jendaurreko kritikaren suzko ekaitza «sortzeaz eta erditzeaz mintzatzen ziren esamesei» (Ronda 128) egotzi ohi zaio. Baina Peabodyren beraren sentipena, behintzat, arrakastarik gabe saiatu zenean eztabaida geldiarazten, zen «jaiotzaren» inguruko eskolako eztabaidek ez zutela zerikusirik sexuarekin, birjaiotzearekin baizik. Ukatu egin zuen Alcottek «aurre-existentziaren eta emanazioaren ekialdeko doktrina» irakasten zuenik, baina honako hau idatzi

zuen: «Alcott jaunak sinesten du jaiotza haragitzearen aurreko ekintza eta egitate espiritual bat dela. (...) Nire aldetik, espiritu baten batasuna ulertzeko bide bakarra dela sinesten dut; eta hori dela Wordsworthen “Oda hilezkortasunari”n aipatzen zuen aurre-existentzia, Platok berak irakatsi nahi zuena; eta zalantzarik gabe hori dela Jesukristok irakatsitako kristautasunaren doktrina» (Ronda 128). Sexu eskandaluak berraragitze eskandaluarekin bat egitea oso harrigarria da, 1830eko hamarkadako bostondarrek egin edo geroko historialariek egin.



Eve Kosofsky Sedgwick y M^a José Belbel Bullejos en el seminario *Crítica Queer. Narrativas disidentes e invención de subjetividad*. Sevilla, mayo 2007



Mª José Belbel Bullejos e Eve Kosofsky Sedgwick desayunando en Triana



Eve Kosofsky Sedgwick, Michelle Tea, Mª José Belbel Bullejos y Katastrophe.
Triana, mayo 2007

UN SENTIDO DE POSIBILIDAD: *TOUCHING FEELING*.
AFECTO, PEDAGOGÍA, PERFORMATIVIDAD
DE EVE KOSOFSKY SEDGWICK

María José Belbel Bullejos

Conocimiento feminista y políticas de traducción es un proyecto que continúa otros trabajos anteriores en relación a la traducción, entendiendo la misma en un sentido estricto y también expandido. La intención de esta colección, iniciada con *Arteleku* en 2013, pretende dar a conocer en euskara y castellano algunos textos, cuyo pensamiento ha contribuido de forma relevante a los estudios de género, los estudios feministas y los estudios sobre sexualidad, así como a la ampliación y reformulación de nuestra concepción sobre políticas de conocimiento y modos de hacer. Es un intento modesto de paliar y señalar la debilidad editorial en relación a la teoría de género en el Estado español, la ausencia de traducciones de textos relevantes, necesarios, y la debilidad actual de los proyectos de traducción dentro el mundo académico y activista. También de hacer una referencia al anti-intelectualismo de una buena parte de los movimientos sociales cuando, como decía Azaña, “si los españoles hablásemos solo de lo que sabemos, se generaría un inmenso silencio, que podríamos aprovechar para el estudio”. Necesitamos conocer y dar a conocer los textos relevantes de la teoría crítica y adentrarnos en la producción teórica que cuestiona el hetero-patriarcado y la heteronormatividad, de modo inclusivo y transversal, mediante una reflexión contemporánea sobre un buen número de convenciones y reificaciones teóricas que algunas formulaciones de dichos cuestionamientos han ido produciendo sin ser demasiado conscientes de ello. Quizás este análisis autocrítico mejore la producción propia que, en parte, se ve afectada por esta escasez de traducciones en tornos a temas sobre los que se ha escrito bien. Desde una voluntad política de traducir en sentido estricto para poder traducir y cambiar mejor.

El hecho cierto es que ya han transcurrido casi veinticinco años de la publicación de los textos fundacionales de la teoría queer: *La epistemología*

del armario de Eve Kosofsky Sedgwick, (1990), *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad* de Judith Butler, (1990), *Inside/ Out: Lesbian Theory, Gay Theory*, editado por Diana Fuss (1991), en el que colaboran además de Diana Fuss, Judith Butler, Carole-Ann Tyler, Ed Cohen, Lee Edelman, D.A. Miller, Patricia White, Judith Mayne, Richard Dyer, Wayne Koestenbaum, Michèle Aina Barale, Richard Meyer, Thomas Yingling, Jeff Nunokawa, Ellis Hanson, Catharine Saalfeld, Ray Navarro, Cindy Patton y Simon Watney y *Fear of a Queer Planet. Queer Politics and Social Theory* (Miedo a un planeta queer) una obra coral, editada por Michael Warner en 1993 y que cuenta con ensayos de Jonathan Goldberg, Andrew Parker, Eve K. Sedgwick, Diana Fuss, Janet E. Halley, Steven Seidman, Cindy Patton, Cathy Griggers, Lauren Berlant, Elizabeth Freeman, Henry Louis Gates Jr, Phillip Brian Harper, Robert Schwartzwald y Douglas Crimp. Cito estas obras por su importancia y por ser una buena muestra del gran número de personas implicadas en ellas, siendo consciente de que no están todos los que son.

La teoría queer ha pasado a formar parte de los estudios de género académicos, como teoría de género y de la sexualidad con presencia interdisciplinar y transversal en numerosos departamentos universitarios. La única teórica queer cuya obra se traduce regularmente al castellano es Judith Butler. Si es un motivo de satisfacción que la obra de Butler sea accesible al castellano (su primer libro tardó once años en traducirse (2001) en Paidós, dentro del Programa de Estudios de Género de la Universidad de México), es evidente que una vez más, se pretende que un solo autor o autora representa a todo un movimiento complejo y de gran pluralidad. A todo un movimiento, a sus derivas y a su devenir histórico. Con ello se hurta a los lectores de los contextos en los que surgen dichos pensadores y de la riqueza, pluralidad e historia de los mismos. Estas políticas de traducción son eso: políticas. Modos de hacer, de diseminar el conocimiento desde unas ideologías y unas prácticas en los que parece que prima la rentabilidad económica a costa del conocimiento. Y que nos interpela a reflexionar y llevar a cabo otras prácticas.

ALGUNAS HISTORIAS DE LA HISTORIA DEL MOVIMIENTO QUEER. ALGUNAS HERRAMIENTAS NO DUALISTAS DE *TOUCHING FEELING*.

Después de la gran eclosión de las políticas queer de los últimos quince años del siglo XX, podemos afirmar con Sedgwick que

parece que debido a la banalización estratégica de las políticas gays y lesbianas, así como por su resuelto distanciamiento de la relación histórica y presente con la epidemia del sida podría haber sucedido que haya pasado el momento en el que la teoría tuvo una relación muy productiva con el activismo sexual en muchas áreas de conocimiento.

Esta afirmación de Sedgwick quizás pueda explicarnos una de las razones por la que el trabajo de Judith Butler ha ampliado los temas de su interés teórico de forma notable desde hace más de quince años y, en especial, desde el 11-S del 2001 y, paralelamente, su intervención política ligada a los movimientos sociales y a la política y conflictos internacionales ha adquirido mayor peso y centralidad. Quizás también sea una de las razones por las que Eve Kosofsky Sedgwick dedicó una parte de sus esfuerzos desde mediados de los años noventa al desarrollo de la Teoría de los Afectos con la ayuda de la obra de Silvan Tomkins y Melanie Klein y las enseñanzas del budismo -claves para entender la construcción de la subjetividad y problematizar el autoritarismo-científico-psicoanalítico-exclusivista-de la modernidad occidental y para llevar a cabo una relectura crítica de su propio trabajo en relación a los debates teóricos en los que había participado; al estudio del budismo tan ligado a la pedagogía y a la propia historia intelectual, cultural y artística de los Estados Unidos; a la publicación de un libro de poemas, así como a su libro más autobiográfico, *A Dialogue on Love* y a la producción artística de collages, poemas visuales e instalaciones textiles. Trabajos que calificaría como audaces y radicalmente políticos, así como felizmente no moralistas, no prescriptivos y complejos: de ahí que el título de esta introducción apele a *un sentido de posibilidad*. Una obra que no pretende sustituir unos modelos por el propio, sino propiciar que distintos modelos (la lectura paranoica y la reparadora, el psicoanálisis y la psicología, por ejemplo) dialoguen de forma menos

autoritaria y excluyente y que posiciones y argumentos se vean sometidos al test de la experiencia, para ser reformulados, criticados, mejorados o ignorados en base a su utilidad. Un trabajo de gran importancia política y para la política, desde los Afectos y su textura; desde la Pedagogía, desde la pregunta sobre qué se hace con el conocimiento, y desde la productividad del performativo: de los debates sobre la tutela de lo lingüístico en relación a formas de conocimiento no verbales.

El segundo volumen de *Conocimiento feminista y políticas de traducción* está dedicado a la escritora Eve Kosofsky Sedgwick, especialmente conocida por el carácter fundacional de su obra para la conceptualización de la teoría queer, cinco años después de su fallecimiento. Para las personas jóvenes, la teoría queer quizás sea algo que se originó en una época, relativamente, del pasado, a mediados de los ochenta; para las personas más mayores educadas en el feminismo y la liberación sexual, la teoría queer es algo relativamente reciente, posterior a la teoría más en boga de las generaciones de los años 60 y 70, educadas –en general de forma autónoma– en el marxismo, las teorías de los movimientos de liberación anti-imperialistas, de liberación de la mujer, de liberación de los homosexuales, y de un interés, si bien relativamente pequeño, por el psicoanálisis freudiano: esta generación suele abominar del prefijo “post” y no distingue demasiado entre ciertas formas de la postmodernidad y los estudios post-estructuralistas. Todo ello pertenece al contexto en el que han surgido de manera muy visible los debates identitarios. Cuando se vuelven a poner en circulación conceptos como “liberación”, incluso citando a Foucault, y se habla de hegemonía/ contrahegemonía; consenso/conflicto; poder/contrapoder, defensa radical de la otredad nacional, habría que preguntarse ¿qué hemos aprendido de la deconstrucción/ problematización/ cuestionamiento/ autocrítica de términos como “sistema”, “status quo” y de sus anversos “antisistema”, “alternativos”, “liberación nacional” que apelan a la creencia en un afuera y nos sitúan en un exterior constitutivo: dentro/ fuera, centro/margen, fondo/forma, superficie/profundidad del que parece que nos hemos desposeído? Parece que hacemos un uso binario que tiende a reificar las esencias que pretendíamos desplazar, en nombre de proyectos antiesencialistas, o al menos así me lo parece cuando escucho

términos como biomujer y biohombre, manada e incluso cuando se ponen en circulación términos como transfeminismo, y observo la enorme dificultad de mis buenas amigas transfeministas al intentar explicarme en qué consiste, aunque no sea exactamente.

Y es por ello por lo que este segundo volumen de *Conocimiento feminista y políticas de traducción* quiera dar a conocer a los lectores de euskera y castellano, una selección de textos -tres capítulos- de *Touching Feeling. Affect, Pedagogy and Performativity*, el último libro en vida de la autora, publicado en 2003. Sedgwick señala en los agradecimientos que “*Touching Feeling* es un palimpsesto de obra anterior, publicada y sin publicar. Aunque he revisado aquello que he considerado oportuno, los ensayos aparecen en el orden en el que fueron escritos” y, más adelante, apunta:

El título que he elegido para estos ensayos, *Touching Feeling*, recoge mi intuición de que parece que existe una intimidad particular entre las texturas y las emociones. Pero el mismo doble sentido, táctil más emocional, ya lo encontramos en la simple palabra “tocar” (touch); e, igualmente, es inherente a la palabra “sentimiento” (feel).

Algunos párrafos sobre la performatividad presentes en la “Introducción” de *Touching Feeling*, el primer ensayo que hemos traducido, pertenecen a la introducción de *Performativity and Performance*, escrita junto a Andrew Parker para el libro que ambos coeditaron en 1995. Una versión de “Lectura Paranoica/Lectura Reparadora”, el capítulo 4 de *Touching Feeling* formó parte de la introducción de Sedgwick al libro que editó con el título *Novel Gazing: Queer Readings in Fiction* de 1997 y “La pedagogía del budismo”, el capítulo 5 de *Touching Feeling* corresponde a un encargo para *Critical Terms for the Study of Buddhism*, libro cuya edición estaba preparando entonces Donald S. Lopez Jr y que finalmente se publicó en 2005.

Pero *Touching Feeling* también es un proyecto específico llevado a cabo durante una década, que “analiza algunas herramientas y técnicas que pueden ser útiles para un pensamiento y una pedagogía no dualista”.

Ya sabemos que salir de la lógica binaria es algo más fácil de decir que de hacer y que “incluso invocar el no dualismo puede derivar en una trampa dualista”. Para ello, Sedgwick entra en debate con cuatro textos de gran importancia a nivel “político, intelectual e imaginativo” que a la vez que le han hecho sentirse privilegiada por poder aprender de ellos, contienen elementos que le han producido una cierta frustración cognitivo-política con el paso de los años: *Cómo hacer cosas con palabras* de J.L. Austin, el primer volumen de la *Historia de la Sexualidad* de M. Foucault, *El género en disputa* de J. Butler y los primeros tres volúmenes de *Affect Imagery Consciousness* de Silvan Tomkins, teórico de los Afectos, cuya obra Sedgwick considera de gran importancia a pesar de ser mucho menos conocido que los anteriores.

En los ensayos traducidos se entra en diálogo y se analizan las frustraciones cognitivas que a Sedgwick le han producido de dichas obras. Por poner un ejemplo, vamos a detenernos en uno de los términos más empleados y citados en los últimos veinte años en los estudios de género y en los estudios culturales: el concepto de performatividad, tanto en su acepción lingüística austiniana como en su acepción teatral, performance, donde lo performativo contiene dos acepciones: la dramática y la no autoreferencial, y de la importancia de dichos términos en los proyectos antiesencialistas de la deconstrucción y de la teoría del género para señalar los problemas que ambos términos presentan en el uso que hace Butler de la deconstrucción derridiana del performativo. Para Sedgwick, resulta problemático que tanto Derrida como Butler partan de “una disyuntiva en la que las taxonomías sintácticas de Austin, que eran a la vez provisionales y lúdicas, puedan persistir solamente como reductivamente esencializadoras” y no se muestra inclinada por subsumir “los aspectos no verbales de la realidad a la tutela de lo lingüístico” ni en privilegiar ontológicamente la forma verbal frente a lo verbal. Y plantea una propuesta que puede sorprendernos, quizás hacernos reflexionar, que incluso estábamos esperando que se articulara y cuando nos encontramos con ella decimos: esto es lo que hacía falta, parece un camino por el que se puede transitar: “dejar de lado el antiesencialismo y dar un menor peso relativo a las demandas epistemológicas acerca de una verdad esencial” como una posibilidad

